

Sagastiberri.



URRUZUNO literatura-lehiaketa

2011

irakaskuntza ertainetako

URRUZUNO

literatura-lehiaketa 2011

LAN SARITUEN BILDUMA



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.

Argitaraldia:	1.a, 2011ko ekaina
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Prestatzaileak	Maite Artabe, Iñaki Artola, Miren Jule Azurza, Iñaki Iturain eta Santos Izagirre
Azala:	Jesus Iturriza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposaketa:	Composiciones RALI, S. A. Costa, 12-14, 7.a - 48010 BILBAO
Inprimaketa:	ONA Industria Gráfica, S. A. Polígono Agustinos, Calle F - 31013 PAMPLONA
ISBN:	978-84-457-3165-9
Lege-gordailua:	BI 2024/2011

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	7
-------------------------	---

Barruko bidaiak <i>Leire Bilbao Barruetabeña</i>	11
---	----

Prosa: A maila

Ez dago zer begiratu	<i>Irene Ortiz Perez</i>	19
Bizitza berri bat	<i>Iker Miret Atxikallende</i>	31
New York amestua	<i>Lohitzune Ganboa Sosa</i>	41
Mens sana in populo sano	<i>Irati Oregi Belaustegi</i>	51
Gutunak zuri beltzean	<i>Ainhoa Vidal Gonzalez</i>	59
Azken dantza hau	<i>Leire Alonso Allue</i>	69

Prosa: B maila

Etxera itzulera	<i>Izar Hernando Ibero</i>	79
Txaro	<i>Garazi Mugarza Markina</i>	91
Idazmakina baten azken tangoa ..	<i>Adriana Unanue Mañoso</i>	107
Blas	<i>Maialen Akizu Bidegain</i>	117
Haran isila	<i>Ibai Esnaola Barriola</i>	129
Irribarre bat	<i>Amaia Galarraga Bastida</i>	147
Hemen nago	<i>Elena Bermudez Yarza</i>	159

Poesia: A maila

Borobilean amaitzen diren istorioak:

Narziso	<i>Leire Arenas Belamendia</i>	173
Malkoen kaligrafia	<i>Iosune De Goñi Garcia</i>	181
Hondarrezko gutunak	<i>Ane Garcia Lopez.</i>	187
Jainkoaren izenean	<i>Leire Alonso Allue</i>	195
Hiria antzoki	<i>Irati Majuelo Itoiz</i>	203

Poesia: B maila

Kanposantu urdinean ihesi.	<i>Itziar Ugarte Irizar</i>	213
Ipuin batean bezala	<i>Maialen Akizu Bidegain</i>	219
Hiriko gizakia	<i>Garazi Castaño Fariñas</i>	227
Zure alboan.	<i>Gemma Urteaga Garmendia</i>	233

Urruzunotarrak 1986-2011		241
---	--	------------

HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketak hogeita sei urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Bos-tehundik gora dira dagoeneko horrelako «titulua» lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetako lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle.

Urtero bezala, goraiatu nahi dugu idazle gazte haue-tako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo haue-tako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori

kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea «saiatu berriro», eta topiko erdiarekin nahikoa da «saiatu» besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaiaren literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Castillo Suarez
Urtzi Urrutikoetxea
Leire Bilbao
Miren Agur Meabe
Katixa Agirre

Parte-hartzeari dagokionez, 2011. urte honetan 336 lan jaso dira: A mailan 91 prosan eta 53 poesian; B mailan, berriz, 156 hitz lauz eta 36 olerkian; bestalde, parte-hartzaileetako 252 neskak eta 84 mutilak.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailatan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sariaz gain hainbat aipamen ere egin ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

- Irailean 10 egun inguruko bidaiaria (Britainia)
- Bidai poltsa norbere gastuetarako: 300 €.
- Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.

– Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.
Liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurtien Burlatako Askatasuna institutuari eta Donostiako Zurriola ikastolari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2011a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erasoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaiari kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Leire Bilbaori.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek, lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusio eta sormenaren ispilu moduan. Euskaltzale oro, irakur ezazu itzaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

Euskara Zerbitzua

BARRUKO BIDAIAK

Leire Bilbao

Bidaia ez da sekula amaitzen. Bidaiariak dira amaitzen direnak. Eta beraiek ere iraun dezakete memorian, gogoan edo narrazio batean... Bidaia baten helburua, bidaia berri bat hastea da.

J. Saramago

Ez dakit noiz hasi nintzen literaturarekin liluratzen. Ez dut gogoan, liburu bat esku artean hartu nuen lehen aldian izan ote zen edo, herentzian jaso nuen Tom Sawyerren komiki zaharkitua hamaikagarren aldiz irakurtzeari ekin nionean. Ez dakit noiz liluratu ninduen literaturak; herriko liburutegira bakarrik joan nintzen lehen aldian milaka orri zabaldu zitzaizkidanean lurralde ezezagunetara ninderramaten atek bezala edo uda batean izan ote zen, hondartzan familia osoa uretan eta nik itsasoari begira Agatha Christieren nobelak irensten nituenean.

Ez dakit noiz literotu nintzen. Stendhalek gorritik beltzera aldatu zidanean musua edo Victor Hugok XIX. mendeko miseriak ekarri zizkidanean. Ez dakit. Dakidana da ni neure kabuz umetatik ari nintzela birusa elikatzen, eta beranduago edo lehenago agerikoa izan behar zela

gaitza. Orri zuria baino zuriagoa nuela aurpegia udetan eta nonbaitetik atera behar zirela letrak, zurbiltasun hura koloreztatzeko, moldeatzeko. Noizbait, nonbait eta nola-bait literotu nintzela dakit. Asko gehiago ez.

Uda amaiera batean izan zela ausartuko naiz esaten; hamasei urte bete berri nituela. Esango nuke, orduan loratu zitzaidala urteetan inkubatzen izan nuen ernamuina. Ondoko herriko jaietara joan nintzen lagunekin parrandan. Egun, lehiaketa honetan epaimahaikide dudan lagun zahar bat aurkitu nuen kasualitatez, kalean taberna baten kanpoan. Eskuan zuen garagardoa baino irribarre apartsuago batekin sari bat irabazi zuela esan zidan. Poema batzuk idatzi zituela, literatur sari honetara aurkeztu eta European zehar bidaiatzera zihoala beste hemeretzi lagunekin.

Ulertu nuen, poema batek hegazkin txartela eman ziola Europa erdialdera. Poemak benetako hegalak zituela. Literaturarekin ez nuela zertan etxeko sofan lotuta egon, ez nuela nire irudimena bidali behar kilometroak egitera. Kanpoko begiekin ikusi nezakeela mundua, ordura arte bezala barruko begiekin ikusi ordez.

Ezin nion halako aukera bati ihes egiten utzi! Ez dakit neuk edo nire eskuko garagardoak erantzun zion derrepentean, baina *datorren urtean neu ere joango naiz* entzun zen tabernako musikarekin batera.

Ikasturtea hasi eta berehala, poesia irakurtzen hasi nintzen. Bertsolaritza maite nuen orduan, errima eta doinuekin egiten nuen jolas, zortziko txiki eta habanerekin. Zelan landu nezakeen poesia? Errima eta doinurik erabili gabe, egin ahal nezakeen hitzarekin jolas?

Udal liburutegira joan nintzen euskal poeten obren bila. Memorizatu ere egin nituen zenbait poema. Institutuan euskara ematen zigun irakasleari esan nion Urruzuno lehiaketara aurkeztu nahi nuela. Poesia idaztera animatu behar nintzela. Ez dut ahazteko, F. Kafkak bere maiteari idatzitako gutunen liburua ekarri zidala fotokopiatuta irakasleak. Nahita edo halabeharrez, jarri nintzen poesia idazten.

Hurrengo urtean, garagardo bana eskuetan genuela topa egin nuen berriz lagun zahar harekin, oraingo honetan ez zen Euskal Herriko edozein jaixetan Irlandako taberna batean baino.

Urte batzuk igaro dira ordutik. Eta aitor dut, literotuta jarraitzen dut. Bidaia haietan ezagututako lagun batzuekin sarriago egiten dut topo beste batzuekin baino. Bidaia bat konpartitu genuen, eta ez da gutxi. Baina batez ere sukarraldi bat igaro genuen elkarrekin. Eta jakinekoko kontua da, zerbaitek izerdia aterarazten badizu, gehiago baloratzen duzula izerdiarazten zaituen hori. Eta niri ez diezadatela esan, idazteak ez duenik izerditzen. Nahiz eta etxeko txapinekin eta ordenagailuaren aurrean egon lasai asko eserita, idaztean maratoi bat korritzean beste izerditu daitekeelako bat. Batez ere, maratoian baino kilometro gehiago egin behar direlako sarri, eta sorkuntzaren bidea ezezaguna eta helmuga zehatzik gabekoa izan ohi delako askotan.

Arriskutsua da Literoturara garamatzan bidea. Ezezaguna eta norabide ezberdinetakoa. Bidean galtzeko arriskua dago, tarte luzeetako atsedenaldiak hartzeko aukera dagoen bezala. Bidean errealitatetik ihes egiteko aukera

dago, baita bide berriak zabaltzekoa ere. Baina merezi du bidaia horretan sartzeak ... Adin, kolore eta kultura ezberdineko bidaiari anitz aurkitu daiteke erromesaldi horretan, eta batez ere, norberaren adin eta kolore ezberdinekin topatzen da bat.

Saramagoren aipuak dioen bezala, bidaia ez da sekula amaitzen. Hasi besterik ez da egin. Ea, nik adina gozatzen duzuen literatur bidaia honetan. Nahiz eta noiz, nola eta non literotu nintzen jakin ez... behintzat, badakidalako zergatik.

Leire Bilbao Barruetabeña
Durangon, 2011ko apirila

PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Ez dago zer begiratu

Irene Ortiz Perez
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Telefonoak jo zuen, esandakoaren arabera: bost tonuko hiru dei jarraian, hamabost segundoko itxaronaldiarekin dei baten eta hurrengoaren artean. Hura zen seinalea. Hamahiru orduko atzerapenarekin heltzen zen seinalea. Merkantzia Marsellatik aterata zegoen.

Oxanak egun osoan bere esku izerditsuen artean edukitako mugikorraren dardara nabaritzen zuen. Bere atzamar arduratsuen artetik ateratzen zen oihartzunak emakumearen burua eta bihotza hain indartsu ponpatzean, itxarondako tinbre eta isiluneak kontatzen zihoan denbora hartan, bere inguruan denak hartu zuen bere pultsuaren neurria.

Egongelan, alfonbra gainean bere seme txikienarekin egurrezko tren txiki baten bidea muntatzera jolasten ari zen beste emakume bat zegoen. Zurrun jarri zen, bere buruarentzat kontatzen zuen bitartean. Itxarotea bukatu zen.

Oxanak sukaldeko mahai gainean utzi zuen mugikorra, eta hari begira hipnotizaturik zegoela, bere malkoen itoaldia agerian utzi zuen azkenean. Gero, arnasa sakon hartuz, bere semearekin batera barrezka zegoen emakumea bilatzera joan zen. Itziarrek begiak bere semearengandik altxatu eta Oxanari irribarre egin zion, lasaigarri.

Telefono deiaren atzerapenak gau osoan lo egiteko aukera eman zion, eta behar zuen. Bere autoan irtengo zen Gernikatik telefonoak jo eta ordu erdira, bere ordenagailu banaezinarekin eta bidai poltsa txiki batekin. Konpainia egingo zion bakarra GPS berriaren ahots ez-titsua izango zen, lan egiten zuen enpresak zor zizkion atzeratutako ordainketen diruarekin goiz hartan erositakoa. Gogoko zuen jostailutxo, baita Bartzelonara bidaiatzea, deskantsaturik zegoela jada. Gainera, bidaiak asteburuarekin bat egiten zuenez, «oraintxe nator» bat bakarrik iruditzen zitzaion. Sobietar Batasuneko probintzia bateko immigrante ilegal baten sarrera prozesuko azken kate-maila.

Diru-zorroan zeukan sartuta Alinaren argazkia, neska gazte horren begirada berde eta nahasiaren erretratua zapi beltz batean markoztatuta. Irudia ezkontza egunekoa zen, bere lehengusina ezkongai soinekoarekin agertzen zen, irribarretsu. Baina denbora gutxi iraungo zion irribarreak ahoan emaztegaiari. Irribarrea eta marfilezko azal leuna, bere senar berriak kiskaliko zizkion sutontziko olio aurrepegira botatzean.

Prestatuta zeukan eta identifikatuko zuen kotoizko alkandora zuria hartu zuen, hain gogoko zuena, bakeroak eta tonu urdindun lepo-zapi bat lepoan. Janzten zen bitartean buruzko kalkulu arin bat egiteari ekin zion. Bedera-tzietarako bueltan egongo zen; horrela denbora nahikoa izango zuen bere seme-alabak besarkatu eta haiekin afaltzeko. «Espero dut gure gonbidatu berriari patata tortilla gustatzea dastatzen duenean», pentsatu zuen, etxeko platerik gogoko eta goraiatuena, Oxanari egiten irakatsi ziona hau Errusiako gune Kaukasikoenetik heldu zenean, Pjati-gorsketik, familiari ahoskatzen nahiko kostatu zitzaiena.

Oxanaren exodoa tren bati itxaronez hasi zen, Bakuren muturretik, Azerbaijanen, Georgiatik igarotzen zena, eta Tbilisi hiriburua zeharkatzen zuena Kaukasoko barrualdetik Errusian barneratu arte. Tren hori zen egunero entzuten zuena bere hiritik igarotzen, apirileko goiz hotz hartan itxaron zuena. Tren hura hartzen zuen lehenengo aldia. Bera, familiako eskubideetan lizentziatua zena bere hiriko fakultatean. Hiri bereko langilea. Alaba, emazte eta ama leku berean.

Hilabeteak ezkutaturik eta beldurturik konpartitutako gelatxo bateko iluntasun eta hezetasunean eman eta gero, Itziarren etxera heldu zen emakume hura. Halabeharrak eta Elenek, Itziarren hamaika urteko alabak, ekarri zuten etxera, etxeko langile bat bilatzeko elkarrizketan dudarik izan gabe esan zuenak «Gurekin geratzen da». Hitz komunen faltaz sortu zen afektuaren presentzia adeitsua. Eta kontratu moduan hasi zena elkartasun zintzo eta sendoa bihurtu zen.

Hori dela eta sukaldean jarri zuten Vileda arbel bat. Han gelditu gabe margotu eta idazten zuten Itziar eta Elenek, eta haien ikasle nabarmenari irakasteko edozein aitzakiarekin.

Gero bere historia ezagutu zuten, eta ordurako mundu mapa erraldoi bat zeukaten arbelaren alboan jarrita. Orain, ia hiru urte pasatu eta gero, Jon txikia zen mapan merkantziak egiten zuen ibilbidea margotzen zuena. Mugaldeen esanahiaren ezagun, erraz atzematen zituen mapa hartan «an» guztiak; Tazajstan, Azerbaijan... baita ere «nia» guztiak; Estonia, Letonia... Zaletasun ukaezina zuen hegazkin eta trenak margotzeko, eta bere arrebarekin bidaia

agentzietara jolasteko. Helmugarik gogokoena, Paris zen, bere ume begiekin Disneyland moduan ikusten zuena, eta ez maitasunaren hiri bezala. Jonek ez zituen ulertzen Alinaren bidaiaren urruntze eta gerturatzeak bere ibilbidea mapan jartzen zuenean, zergatik zegoen Egipto edo Errumanian, eta batez ere, ez zuen ulertzen zergatik egoten zen hainbeste denbora hotel berean ezkutatuta, bidaiaria bakarrik izanda.

Egunen joan etorriekin eta isiltasun larrien areagozarekin isilik egoten ikasi zuen, eta horrela telefonoak jo eta bere amak burua altxatu zuen unerako, bazekien amak joan egin behar zuela, eta bueltatzerakoan Alinarekin etorriko zela.

Itziarrek ezтики musukatu zituen bere seme-alabak eta Oxanaren besarkada hunkigarri bat jaso zuen. Poltsa sorbaldan eskegi, gauzak hartu, eta etxekoei zaintzeko gogorarazi eta gero, kotxearen bila joan zen, jada urte batzuk zituen Renault familiar bat. Umea eskolatik eraman eta ekartzera ohituta, atzeko aulki txikia hutsik ikusteak ezinegon arraroa sortu zion. Bost ordu geratzen ziren topaketarako. Tom-toma jarri zuen martxan. Helmuga: Barzelonako Autobus geltoki nagusia.

Alina betidanik bizi izan zen Sevan laku alboko herrixka batean, Armenian; bere sorterrian. Bere etorkizunari buruzko etxean egon ohi ziren liskar guztiei arretarik jarri gabe, ez zuen inoiz pentsatu bere zazpi neba-arreba nagusien moduko bizitza edukitzea baino aukera gehiago zeudela, ezkondu eta herrian finkatzeaz aparte. Baina errusiar jatorriko aitak eta aitaldeko aitona-amonak urte asko itxaron zituzten ohitura familiarra berreskuratzeko: seme-

alabetatik gazteena, Alina, Unibertsitatean ikasiko zuen, eta Georgiako hiriburuan egingo zuen, errusieraz. Bere amaren familia, Azerbaijanetik etorritako musulman suniak, Alina Tbilisira joateaz gain, emakume batek ikastearen aurka ze-
goen. Azkenean, karrera atera eta emakume egin zen.

Maleta prestatu zuen herrira bueltatu eta bere senarra izan behar zuen gizona ezagutzeko. «Adina duzu, hogeita bi urte, eta ezkontza ahalik eta arinen hitzartu beharra dago –idatzi zion amak bere azken gutunean– jada ez zara opari bat, Alina, zaharra, hiritarra eta hezia. Burutik sano dagoen gizon batek ere ez luke zurekin ezkondu nahi. Zortea izan duzu, gogo oneko gizon alargun kementsu bat topatu dizut eta; objekziorik jarriko ez duena baldin eta dote on bat ordaintzen badiogu. Bere seme-alabak zainduko dituzu, eta zureak propioak ere izango dituzu. Bere borondateari men egingo diozu, txorakeria unibertsitario horiei buruz inoiz hitz egin gabe. Hirian irabazi duzun diruaren erdiarekin zure senarra izango denari ordaindu, eta gainerakoa niri emango didazu. Horrela izan behar da eta horrela izango da».

Hala ere, bere lehengusina Oxanarekin idatzi zuen korrespondentziaz bete zuen maleta. Herrialdetik aterako zuten «artekari» batzuen zerbitzuak kontratatuta zituen. Bere aitarentzako gutun maitekor bat idatzi eta gero, amez-
tsez beteta prestatu zen bere lehengusinak kontatu zion bidaia ezezagunerako. «Bakarrik egongo zara –esan zion– eta ezer baino gutxiago izango zara».

Eta horrela sentitzen zen bidaiariak ere garraiatzen zituen autobus baten azpi faltsu ilunetan, beste zortzi gorputz zikinen alboan etzanda, haien okada eta txizez lohituta.

Arnasteko leku faltak itotzen zuen. Une labur batzuetan konortea galtzen zuen, asfixia zela eta, baina ez zion bere buruari eztul egiten permititzen. «Hori inoiz ez, eta gutxiago geldirik gaudenean... hobeto hilda!» esan zien gidariak. Errusiar gizon handi bat zen, eta taldeko emakumeak izutzea gustatzen zitzaion, kokotsetik hartu eta bere irribarrerik onena jartzen, urrezko haginak erakutsiz.

«Zure helmugara iritsi zara» esan zuen GPS-aren ahots gozoak. Aparkatzea ez zen izaten Itziarrentzat arazoa, beti uzten zuen kotxea justu-justu heldu nahi zuen lekuaren ate aurrean. «Gustatuko litzaidake, bai, arazo guztiak aparkatzea bezain errazak balira» esaten zien bere lagunei, haiek inbidiatsu baina pozik, bere zortea gogorarazten ziotenean. Horrela, Erdiguneko autobus geltokiko hesiaren aurrean aparkatu zuen autoa, eta kalkulatu eta gero, berrogei minuturako jarri zuen aparkalekuko ticketa.

Hasierako aldapa jaitsi zuen eta eskailera mekanikoan jarraitu zuen etorrera internazionalen kartela aurkitu zuenera arte. Geltoki horrek aireportu erraldoi bat ematen zuen, bizitza osoan ikusitako handiena zen, dudarik gabe, eta Bilboko ez zuen kontutan hartu aireportu moduan. Amsterdametik bueltan Frankfurten eskala egiterakoan galdetu zion behin bere seme txikiak, hango aireportuak ikusita, ea non zegoen Gernika inguruan benetako aireportua...

Ez zekienez Alinaren autobusaren jatorria, argidun taulan begiratu zuen oso ziur egon gabe. Etorrerako orduaren arabera, hiru eta erdietan aurreikusita, Bruselako edo Vienako autobusa izan zitekeen, Lyonetik Marsellara jaittsiz Bartzelonara heltzen zena. Tauletan autobusak aparkatuta zeuden nasak iragartzen ziren. Nasa horiek

ibiliaz, denboraren joanaz eskailerak igo eta jaisten zituen bitartean (etorrera eta irteeratarantz), autobus geltokiaren pisu zikina hasi zen sentitzen, gasolio usaina, kanpoko gizonen begirada zantarrak, topera zeuden paperontzi berdeen inguruan pilatzen zen tabernetatik ateratako zaborra, dendetako zikinkeria, geltokia infernua balitz moduan populatzen zutenak. Jendearen etengabeko mugimendu geldiezia eta nasen gunean maleten soinuak zoruarekin jotzean ateratzen zuen zarata jasangaitza egin zitzaion.

Alinaren argazkia atera zuen bidai internazionalerako hainbat gidariri erakusteko, informazioko andereñoi eta geltokiko zaintzaileei. «Neska honen bila nabil». Geltoki hartan bizi zenaren antza zeukan aguretxo zahar eta marmarti bati ere erakutsi zion argazkia, bere erosketako karro betea alboan zuena. Eta argazkia gorde zuen arineketan Poliziaren eta haien txakur fidelen albotik igaro zenean. Azken batean, herrialdean egon beharko ez zukeen baten bila ari zen. Oxana ezin izan zen etorri, ezin baitzuen lepoa jokatu ilegal moduan harrapa zezaten, bere lehengusinarekin bila.

Ez zion Oxanari deitu nahi izan. Informazio berri-rik bazuen, bera izango zen kontaktuan jartzen zena. Hasierako andenera itzuli zen. Alkandora txukundu eta txirikorda bat egin zuen zapi urdina ondo ikus zedin. Eta itxaron egin zuen. Zenbat gustatuko litzaiokeen zigarro bat edukitzea, zigarro bat edo hogeit. Zer axola zion ke apur batek bere birikietan, izaten ari zen nerbio eraso horren aurrean? Ziur aski bere medikua ez zen ados egongo. Eta zer, bere medikua ez zen Bartzelonan egongo «inor» topatzeko. Ai, 'ene bihotzeko' armeniarra! –pentsatzen zuen– Ager zaitez, eta zin egiten dizut ez dudala bizitzan gehiago erreko...

Autobusak etengabe ailegutzen ziren, baina batetik ere ez zen jaisten berak itxaroten zuen neska. Izerditan, andenetan zebilen alde batetik bestera, astiro, toki itxi eta zikin hartatik pasatzen zen jendea saihestu gabe. Lurrazpiko hiri hartako horma batetan jarri zen, pizzeriako bi langileei begira. Zein zorori bururatuko litzaioke zabor poltsak bide erdian uztea? Txerri halakoak! Ez al dute ikusten hemen-dik ez dela sartzan ezta kotxe bat ere?...

Kotxe bat! Nirea. Orain dela orduak ticketaren denbora agortu zaidala. Mesedez, mesedez, garabi batek ez hartzea.... Multa bai, multa bai –esaten zuen bere bururako, korridoretatik korrika ari zen bitartean, begiak itxita ere egin ahalko zuena. Eta multa izan zen. Ordaindu eta, itota, bere jesarlekuan jesarri zen. Autobusak... –esan zuen bere bururako. Berde koloreko autobus hamarkadek hiria zeharkatzen zuten.

Geltokian, bere hilkutxa barruan zaborrontzian, begi berde ikaratu batzuek alkandora zuria eta zapi urdina janzten zituen keinu adeitsudun emakume bat ikusi zuten korrika alde egiten. Irteteko zorian egon zen, baina berriro ere heltzen ziren gizonak poltsekin. Ez zegoen seguru. Eta indar gabe jarraitzen zuen. Arnasa hartu ezinik sartu zuten zaborrontzitik irteteko, hilik zegoela uste zutela, «Guk bete dugu agindutakoa, Bartzelonako geltokian zaude. Ondo ibili».

Ordenagailua piztu zuen. Nork esan zuen erdiko geltokian egongo zenik? Inork ere ez. Autobusez etorriko zela, hori bai, baina nora? Zer autobus mota zen? Bidaiariena? Autobus geltoki guztietan begiratuko zuen. Bilatzailea. Bartzelonako autobus-lineak. Jainkoarren! Berrogeita zor-

tzi. Lehenengotik hasiko zen, geltoki guztietatik pasatu arte. Aurkituko zuen! Iluntzen hasia zen. GPSa martxan. Giltza kontaktuan jarri zuen mugikorra hartu aurretik Oxanari deitzeko. Ez zuen bere lehengusina Alina topatu, baina topatuko zuela esan zion, eta bere plana kontatu zion emakume kezkatuari, bere ahots nekatuan animoa islatu nahian.

Eta hasi egin zen, nekaezin. Bide guztietatik pasatzen eta markesina guztietan geratzen. Maniobrak egiteko lekua kentzen zion humore txarreko gidarien txistuak eta irainak jasaten. Neska baten bila zebilela esatera heldu zen. Zoratuta al zaude? Deitu mugikorrera –erantzuten zuten denek– kendu paretik. Ez dauka mugikorrik. Nongoa da, ba, Martitzekoa?. Ez, errusiarra –esaten zuen laburtzeko–. Hemen errusiar neska guztiak leku berean daude.

Hitz haiek bere buruan forma hartzen hasi ziren goizeko lauretan taberna zikin batera sartu zenean txiza egin, garagardo bat hartzeko, eta bere ordenagailua kargatzen saiatzeko, ez baitzeukan nora joan. Bere ibilbidea bukatua zegoen. Bartzelonako autobus geltokiren batean neska armeniarrik bazen, noski, ez zen berak bilatzen zuena.

Ordaindu eta kanpora irten zen tabernako gizon guztiek egin zioten korridorearen erditik. Zeren bila zabiltza? Etorri nirekin... Ez ziren izango gau hartan lehenengo biderrez entzuten zituenak. Hemen errusiar neska guztiak leku berean daude. Amorru guztia zuen eztarrian.

Ramblasera helduta, beherantz jaitsi zen autoz, ezagutzen zuen kale batetik. Astiro. Kanean «lan egiten» zutenak hurbildu zitzaizkion leihora. Batzuei argazkia erakusten

zien, ea neska ezagutzen ote zuten galdetzen zuen bitartean, Alina seinalatuz.

Eguna argitzen hasia zen bi gizonak kotxeko aurreko atea ireki eta kolpeka atera zutenean. Gehiegi galdetzen duzu. Nork bidali zaitu? Neska hau ari naiz bilatzen. Nork esan dizu nire kaleetan bilatzeko? Ez dago zer begiratu –eta atzerako ispiluak apurtu zizkioten. Ez dago zer begiratu, ulertzen? Bat kotxean sartzen zen bitartean, besteak Itziar hartu eta hurbilen zegoen kalezulara eraman zuen, autoa atzetik zetorrela. Bestea kotxetik irten zen, eta lurrera bota zuten, ukabilkadak eta ostikoak eman eta eman. Bere alkandora zuritik hartu eta lurretik arrastaka eraman zuten auto alboraino.

Kalea isilik geratu zen. Itziarrek takoi batzuk entzun zituen, urrunean. Ahalik eta arinen joan zaitez... berriro takoiaren soinua, oraingoan korrika, aldentzen.

Eta joan egin zen. Noraezean, autobus geltokira heldu zen. Lurrean jesarri zen, horma baten kontra eta, han, negar egin zuen. Autobusak joan eta etorri bitartean eta jendeak agur esaten zuen bitartean bera negarrez ari zen. Negarrez, leku berean zeuden neska guztiengatik. Emakume guztien zorteagatik ari zen negarrez. Bere umeak besarkatu behar zituelako ari zen negarrez. Ezagutzen ez zuen emakumearen faltarengatik egiten zuen negar.

Isiltasuna apurtu zuen ahots bat atera zen ezerezetik, bere burua izendatzen. Hitz bat, ahots guztiak zena. Alina.

Bizitza berri bat

Iker Miret Atxikallende
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Margorik argienak hartu ditut. Unibertsitateko ate aurrean irudikatzen ditut biak, biologiako apunteak eskuan eta ustekabeko begiradek duten xalotasunean gozo eta deseroso. Aita alkandora mahoi batekin eta gainetik bakero berri batzuk. Ama, loraz apaindutako soineko zuriz, azalaren antzera, zuriz, kolore bereko oinetakoekin zelaia zapaltzen dagoela. Eguzkiak luke egon, udaberriko eguzki kikildua, eta honen argitasunak zoko guztiak bedeinkatu, larruazala laztandu eta zuhaitz azpiko itzalpeko toki freskoren bat hor nonbait.

Haizea. Leuna, belar gaztea orrazten duen horietakoa, freskoa. Amaren ileetako bakoitza haizearen atzetik hura harrapatu nahian-edo. Gainerako apaindura, xumea. Zenbait eserleku zuhaitzaren inguruan eta bizikletentzako bide bat urrunxeago. Bakea eta lasaitasuna. Irribarre gazteak bazterreko ikasleen aurpegietan.

Hau izan liteke ezagutu zireneko erretratua, edo beste asko. Edertasunez gainezkako irudia, irrealak dudarik gabe, baina sormenak eskeitzen digun abantaila hori ere aprobe txatu beharra dago. Unibertsitatean kokatu ditudan bi horien arteko begiradak gero eta maizagoak izango ziren, argitasuna egunean handiagoa, eta klase amaieran zein ha-

sieran, ate horretantxe, bien arteko distantzia astero murriztagoa, elkarren sudurrak parez pare geratu arte. Kontuak kontu, hortik bederatzi hilabetera edo hamar urtera ni jaio nintzen, bien maitasunaren hazi eta fruitu, eta landa eremuko etxe batean, laztan eta lausenguz elikatua. Aita, ama baino bost urte nagusiagoa, herrian biologo ezaguna jada itsas-biologian, eta amak etorkizun oso esperantzagarria zuen.

Etxe hartako berezko eguzkia zen ama. Ezpain finetan ostatu hartutako irribarreak eztiki akatzen zituen nire gaueko amesgaiztoak eta eztabaidak ere hala isilarazten zituen, aitari nire ttuttuna emango balio bezala. Eta begiak... begi beltzaran haiek islatzen zuten bere arimaren purutasuna, ontasuna, haiek zeukaten ekaitzaren ondorengo eguzki izpien betiereko argitasuna. Ilea marroixka, luzea, mehea, bizkarraren erdia estaltzen ziona eta eguzkiak suspertuko balu bezala, udaberriaren etorrerarekin batera argitu egiten zitzaiona. Txoriek ere berriketari gogotsu ekiten zioten bere aurrean, ogi puskek baino bere presentziak erakarrita; horrela lortu zituen eguneroko ogi bezero fidel bezain alaiak. Inguruko etxeetakoek estimu handitan zuten, eta hasieran sorpresatzat genituen bisitak ohiko egin ziren, sarri, opil edo pastelen bat zekartelarik. Entzuten jakiteak, zein leunki eta goxoki hitz egiteko zeukan berezko dohai horrek lilura eta erosotasuna sortzen zituen, eta mireslerik sutsuena gure aita.

Harmonia hartan idatzi zuen amak bere lehen saiakera Genetika arloan eta denbora gutxian, ustekabean, egunkari nahiz aldizkari guztiak josi ziren bere izen eta idazkiz. Egongela laster bihurtu zitzaigun kamerek argiztaturiko elkarrizketa-gune. Auzokoen poza eta zorion-agurrak are

eta sentiberagoak ziren, sentiberegiak. Alderri guztietatik besarkadak. Musuak. Barreak. Egia eta faltsukeria elkarrekin nahasirik, egoera hauetan gertatzen den legez; deiak telefonora, eta hizketaldiak...bikainetan bikainenak. Han lortzen zuen bere berezko zirrarez eserlekuetako bakoitza eskuratzea, eszeptikoenak ere amore ematea, bere begi eta irribarreen ur gez eta gozoetan hondoratzea. Han txalo zaparradak ziren uholdeen sortzaile, olatuz olatu aretoz areto zeramatenak.

Biologian adituak ez ziren agure zein gazteek gogoz ordaintzen zuten sakeleko ogerleko bakoitza ama hitz egiten ikusteko, ama kontenplatzeko, eta begirada bakoitzarekin ezpain haietan musu bat itsasteko egarbera. Aulki honetantxe gogoratzen ditut une haiek, eta nik bezalako gogorapenak dauzka, buruan argi eta aratz, berrogeita hamar orain mende erdi nire aldamenean egondako entzule bakoitzak.

Ama gutxiago agertzen zen etxetik, eta amaren arrakastarekin batera aita ere aldatu egin zen, apurka-apurka baina etenik gabe. Barreak urriagotuz joan ziren, guztiz desagertu eta iragan urruneko oroitzapen bat balira bezala gogoratzen nituen aste gutxitara. Edozertarako gogoia eta interesa ere galdu zuen, eta bere biologiako ikerketa eta lanek ez zuten aurrera egiten. Adjektibo bat jarzekotan, etsipena. Amarengandik ez ezik, besteongandik ere isolatu zen eta bere etxeko bulegoan itzalpetzen zen, gure presentziak kalte egingo balio bezala. Orduan ere ez zuen eztabaidatzen, horretarako ere indarge, arbolen kimu berriak bezain ahul. Izaera hits hori asteen joanean markatuagoa egin zen, hasierako tristeziaren erroak iraganeko alaitasun-lurra are eta sendoago zulatuz.

Ama hasieran ez zen neurri handian kezkatu. Etxean emandako ordu bakanetan betiko poza eta izaera alai mantentzen zuen, eta hala, etxean eguna eta gaua batera bizi izan nituen, bateraezinak, ezinbestean. Gehiegizko ditxa iluntasun hauskaitz eta irmo batekin parez pare. Elkar ikustean, bazkarian zein solasaldi bakanetan, nabaria zen aitak gerora aitortuko zidana. Irribarre bakezale hura bakezaleegia zen, ezpainak bustitzen zituen listua distiratsuegia, sudurra tamaina egokiegikoa, azalaren zuritasuna irudikatu dudan soinekoa baino zuriagoa, gorputzaren forma bera, eskuak, bularrak zein hankak, ederkiegi diseinatuak, begien adierazkortasuna, brillua, kolorea eta forma ere xarmangarriegiak. Perfektuegia zen, politegia, puruegia. Jainkotiarregia.

Etsipena haserre xehe bilakatzen hasi zen, haserrea bere lana, biologo arrakastatsua izan beharko zukeen haren lana, bertan behera gelditzeko arrazoia infernuko begirada eta musu haiek ekarri baitzuten. Errementariaren porrek, ibaiari esker, behin eta berriz inbidiaren torlojua iltzatuko luketen konpasera, horrela handitzen sustraitzen zen bere amorrua. Niri hitz egitean, barnean egun luzeetan sututako odola ur hotzetan epeltzen egiten zituen ahalegin jasangaitzak.

Eta han nengoen ni, aitatzok noiz eztanda egin eta amorruaren berotasun eta indarrez gorituriko ehun bat labana noiz aireratuko itxaroten. Itxaropen gordina, deserosoa baina halabeharrezkoa. Lekuko bakarrak nire panpina leialak eta biok. Oraingo behintzat, amarekin egotea ekiditzen zuen indar osoz, hirugarren munduko katu go-setu batek saguarengana hurbildu eta bere sena kontrolatzeko izango zukeen zailtasun berberaz. Sagua bere horretan alai eta izukaitz.

Aurrean dudan marrazkia begiratu eta... nork esango lukeen. Baina aldats baten ostean jaitsiera bat dator beti, eguzki argitsuenaren ondoren gaurik ilunena, eta zorion-eta mirespen-aurpegiek bekaitza eta gaitza dute ezinbes-
tez kokotean. Urteak joan, urteak etorri, gure artxibategi pribatua den garunean dokumentu asko birziklatzen dira, baina zenbaitek, gainean hautsa izan arren, barrua garbi eta garden diraute, garden bezain beltz. Aurrera begiratu dut eta konturatu orduko eguzkia itzali da.

Neguko iluntze goibeletako bat zen, izar gabea. Hotz sakona kanpoan eta ohera joateko prest nengoen, pijama jantzita. Ama, hurrengo egunean eman behar zioten sari bat zela-eta, nigana hurbildu zen eta muxu eman zidan masailean. Bere berotasuna eman zidan azal eroailetik barrena, eta horrexek epeldu ninduen ehun maindire zeta-tsuk egingo luketen antzera, eta aterantz abiatu zen. Azkenengoz eman zuen buelta eta begietara begiratu zidan, eta hala erantzun nion nik, irribarre bat eskainirik. Leihora hurbildu eta kotxea urruntzen ikusi nuen, argi gorriak, ipurtargiak bihurtu ziren arte. Trena hartu eta Londresera joan beharra zuen.

Ohera sartu nintzen eta panpina hartu nuen eskuetan. Haizea zebilen baldar gure lorategiko sagarrondoei bul-tzaka, baina aterri zen. Hosten dantzei begira-begira be-giak itxi zitzaizkidan. Dexente beranduago, etxeko giltza aditu nuen sarrailan sartzen. Logelako atea ere irekitzen nabaritu nuen eta korridoreko argi xeheak aitaren irudia proiektatzen zuen, bere itzala hobeki esanda. Haizeak, haserratzean, leiho bitarteko zirrikitu bat gogoz zeharka-tzean sortzen duen abistuak belarria, etzuteko bezain gogor. Aitak ohetik altxatzeko eta janzteko esan zidan,

amak deitu ei zuen eta guretzat ere hotelean tokia zegoela. Irrikan jarri nituen prakak, eta baita jertsea ere. Alderantziz, gero konturatuko nintzen moduan.

Autoko atzeko eserlekuan etzan nintzen, eta konturatu barik loak hartu ninduen. Begiak ireki nituenerako zelai bat ikus nezakeen kotxetik, aurrez aurre, eta argi leun bat harago. Irten eta ezkerraldean itsaslabar bat zegoela ohartu nintzen. Itsasoa gaizto zegoen, eta olatuen orroa besterik ezin zitekeen entzun. Beste ezer ez zegoen. Animalirik ez. Haizea ere mantso.

Kotxetik irten eta zelaia zeharkatu nuen. Kobazuloa zen argizatutako toki hura, eta bertan, lurrian zerraldo, norbait. Ohikoa baino zuriago, koloregabe eta unibertsitateko neska haren soineko berberaz. Hurbildu egin nintzen eta hotz zegoen. Hotz, eta marmola bezain gogor. Hitz egin nion eta irribarretsu jarraitzen zuen. Negar egin nahi, baina begiak siku, korrika egin nahi, baina gelditu. Hari begira, eta haren begiak, berezko argiaren faltan, bizigabe, aurpegian itsatsitako bi kanika bezalakoak. Suaren argipean, ez zuen benetako eszena bat ematen inondik inora. Ahuleziatik indar printzaren bat aterata irten nintzen erdi korrika zelaira, eta haratago, urrunago, aita bilatu nahirik, beste norbait bilatu nahirik... hankek ezetz esan eta zekale artean erori nintzen arte.

Denbora batera, minutu batzuk zein ordubete, zutitu nintzen errenka. Ez nuen ezer gogoratzen, autoa hartu eta etxetik urrundu ginelako gogorapena nuen, lanbrotsu. Besterik ez. Ez zen etxerik ikusten inon, hurbilean baso soil batzuk besterik ez, historikgabeak. Nekez ikus zitekeen argi batek gidatu ninduen. Urrunetik beste soslai bat ikusi

nuen bertan argitasun bizian. Haragiaren usaina sartzen zitzaidan sakon, sudurretik. Hurbiltzean, kobazulo bat. Amaren irudia gogoratzen nuen han, bai.

Aitak begiratu zidan eta irri egin zuen. Aldamenean, putzu purpura bat. Odola. Amarik ez zegoen begi bistan. Lainoak ere arrakalatu ziren bat-batean, eta ilargi beteak argitu zuen inguru guztia, odolak tonalitate gorri bizia hartuz. Eta aitak sutsuki jaten zuen, bizkor, gogoz, norbaitek altxor preziatua kenduko ziolakoan. Amaitutakoan, pozez begiratzen zuen zoru odoltsua, amaren irribarrea imitatu nahirik. Biluztu eta suaren alboan zeukan soinekoa jantzi zuen ilargiaren argitan. Haren begiei so geratu nintzen eta airea faltan sentitu nuen. Izua, beldur gorria, eta kobazuloko zoko batean eseri nintzen zangoak elkarbaturik, eta burua bitartean. Eta isiltasun osoa.

Lirain eta panpox itxurak eginez hurbildu zitzaidan. Sua bortizki bizitu zen, eta kobazuloaren sabaia ere erre zuen. Argitasun itsugarria egin zen kobazuloaren jabe, udako egun argitsuenaren antzera, eguzkia laztantzeko distantziara izango banu bezala. Eta intentsitatea galdu zuen pixkanaka, aitaren atzean emakume baten figura utziz. Suzkoa, ukiezina. Ez zitzaion sentimendurik ikusten aurpegian, ez poza, ez tristura eta ezta haserrea ere. Bolada batean aita besarkatu zuen tinko eta trumoi erako oihuak entzun ziren haren ahotik, gauaren isiltasuna urratuz, mamu gorri hark ahoa estali eta parajeak berezkoa zuen isiltasuna berreskuratu zuen, zerbait lapurtu duenak hura bilatzen duen bezalaxe. Haren atzetik ni, itsaslabarrerantz. Haren ertzean amaitu zuen ibilbidea, niri noiz iritsiko zain-edo. Pauso batzutara gelditu nintzen, nekatuta guztiz, izerdi hotzean. Han begiratu zidan izaki jaioberri hark,

ilargiaren izpiek irudia zeharargi pasatzen zutela, eta irribarre hura egin zidan. Eta irribarre egin nion.

Aita ere lasaiago zegoen, bere patua ezagutu eta aldagaitz ikusten duen gizakiaren legez, etorkizuna segurutzat duenaren bakearen irudi. Egindakoaz damaturik, agian. Ez nekien, eta ezingo nuen inoiz jakin. Atxiloa askatu olatu zuriek, bits gazi hark, bustitzen zituen arroken gainean erori zen. Labarraren ertzeraino joan nintzen. Enbidia gorriak margotu zituen, eta hurrengo olatuak garbitu. Itsasoa ere tindu gorria hartu zuen, eta kaio batzuk bertaratu ziren, jaki gozoaren gainean orbita zirkularrak eginez.

Atzera begiratu nuen eta belar artean ikusi nuen dama biluztu bat, akitua, lehertua, begietan gorritasuna galdu eta marroi bihurtu ziren arte. Aurpegiera nasaia zuen eta ile zapa luze batek estaltzen zituen inguruko belarrak. Begiak itxi zituen eta besarkatu egin nuen. Epel zegoen. Bihotzaren taupadak egonkorrak ziren, metronomoaren erregulartasunaren antzera. Gau osoan ezer gertatu ez balitz bezala, han, ilargiaren argitasunpean.

Margotu dudan tela zatia egongelan zintzilikatuko dudalakoan nago, han jotzen baitu eguzkiak gogotsuen. Alboan dudan bizilagunak poztasun aurpegiz begiratzen du, albisteetako herioak eta maitemindutako bikoteak begiratzen dituen bezalaxe, ni begiratzen nauen moduan. Egun hartakoa ez dut gogoratu nahi, ez diot nire amari aitaren irudi hura aditzera eman nahi, unibertsitatean edo kale izkinan ontasun garbi eta bihotz xamur hark hunkitu zuten gizon harena. Orain amaren ile zuria daukat hatzamar artean, zaindu ninduen zaintzen. Ez dut sekula ahaztuko oparitua izan zaidan bigarren bizitza hau.

New York amestua

Lohitzune Ganboa Sosa
Dolores Ibaruri institutua
Abanto-Zierbena

I

New York amestua. Bufandak, txanoak eta beroki lodiak babesten ninduten negu hotzetik. Beti presaka, beti berandu. Baina horixe bera da hiriko erritmoa. Bi-hotz taupada arinak, pum , pum pum; jendea korrika, pum, pum pum; eskuko kafe beroaren kea atmosferara ihesean, pum, pum. Eta taxi baten esperoan nengoela, zu. Pum.

– Nora? –Inoiz entzundako zure ahots goxoenaz.

– Bigarren izarrean eskumara eta dena zuzen egunsentirantz! –esan nuen pozarren.

– Ongi da, aurrera orduan.

Lepora eraman nuen eskua, amaren titarea heldu, eta Sekula Betiko lurraldea izan nuen gogoan, eta han, zure begiak Peter. Atzeranzko ispilutik begiratu ninduzun, eta zure irribarre deabru horrek salatu zintuen.

– Ongi heldu Wendy –esan zenidan.

Eta orduan, orduan bakarrik egin zuen hegan kotxeak New Yorketik, errepidea zapalduko ez balu bezala, Sekula Betiko lurralderantz abiatuz.

Taxitik jaitsi eta agertu zinen bezain azkar egin zenuen alde nire bizitzatik. Eta patuari utzi genion gu berriz elkartzeko aukera. Patuak, baietza eman zigun, milaka biztanleen artean gure begiradak berriro gurutzaraziz.

Central Park, hori izan zen gure topagunea hilabetetan. Han elkar ikusi genuen bigarren aldiz eta ez genuen zer esan jakin. Baina, hain maite ditudan hitzak ez ziren beharrezkoak izan. Batera egin genuen bidea, belar ezin orlegi hartan eseri, eta zu, liburu baten irakurketari ekin zenion, begiradarekin orrialdeen gaintetik ni bilatzen ninduzun bitartean. Zure aurrean etzan nintzen, eta idazten hasi nintzen. Horrela igandero ordu berean, errutina horren menpe bizi izan ginen denbora batez. Eta hitzek, irribarreek, muxuek eta laztanek, leku hartu zuten gure artean, bere gunea eskatuz, lasaitasunez hasieran, azkenean, ezinbesteko bihurtu ziren arte.

Han aurkitu nuen nire New York amestua, Peter. Zure besoetan, Central Parken, hiriaren parentesi horretan, erlojuen orratzak gelditu daudenean. Eraikinen monotonia galtzen den muga berde hartan. Amorante guztiek zapaldu beharko luketen lurrean. Amildegiaeren ertzean, baina erortzeko beldurrik gabe.

II

Zu baino lehen, New York baino lehen, ama egon zen, eta hitzak motz gelditzen dira, hari buruz esan beharreko edo esan nahi nukeen guztia adierazteko. Ama izan zen

iragana, etorkizuna eraikitzeko aurre-pausua, zugana hel-
tzeko zubia.

Ama jostun izan nuen. Arropa guztiak egiten zizkidan,
eta nik denak janzten nituen. Behin marigorringo bat aurkitu
nuen lore artean, baina tamalez hil egin zitzaidan pare bat
egunetara, etxe izan zuen potean zuloak egin banituen arren.

Amak, orduan, marigorringo itzela josi zidan jertse batean
eta honela esan. «Laztana, gauzen iraupena ez da betierekoa,
elurra badoa, udako koloreak apaltzen dira, gure begiak itxi
... baina bihotzean sentitzen dugun guztia han jarraitzen du,
nonbait, jertsean jositako marigorringoa bezala».

Eta arropak josteaz gain, amak jendea laguntzen zuen
arimaren zauriak arintzen, josten nolabait. Azaldu zidanez,
arimako zauriak, barne-minak, nire marigorringoa beza-
lakoxeak dira, iraunkorrek eta ezaba ezinak. Baina hitz
goxoek leuntzen dituzte, eta denborak. Gure ama, goiz
joan zitzaigun, hain juxtu udako koloreak apaldu ziren
egun batean, eta opari, titare txikia utzi zidan. Mundua josi
nezan, esan zuen.

Urrun joatea, hori izan nuen helburu orduan. Oroit-
zapan berriak sortzeko leku bat, berriz hasteko txokoa.
Eta New Yorken aurkitu nuen, zure ondoan.

Idazle bihurtu nintzen, jostun nire erara. Errealitatea
barneratuz, arnastuz, sentimenduen bitartez, nire egia pla-
zaratuz. Hori guztia hitz bihurtzen da azkenean, eta gero
esaldi, hitzen arteko lotura horrek sortzen du oihala, amak
jositakoa bezala, maite ditugunak babesten dituen, eza-
gutu zintudan gauean bezalako negu hotzetatik.

Hori ei da titarearen lana. Nik, hitzekin errealitatea eta handik haranzkoa josten, esaldiak josten, eta istorioak, batez ere istorioak josten eman dut bizitza, jertseekin, ordea, inoiz ez naiz horren trebea izan.

Hala ere, letren mundu honetan erraza da galtzea. Kallean abesten duen norbaiten abestietan, liburu baten orrialdeen artean, belarrira xuxurlatutako hitzetan, amestean, amestean ere topa daitezke letrak.

Eta izenetan, zurea bezalako izenetan, Peter. Izenek, egunek bezala, kontu zoragarriak ezkututzen baitituzte. Titareak ere badu zeregina honetan, errealitatearen orratzak geldiarazten ditu, haren ziztada sakonak saihestuz edo behintzat, saiatuz.

III

– Geldi egon zaitez, arren –zu.

– Zertan zabilta? –ni.

– Geldi, eta ikusiko duzu. Ez zabaldu begiak. –Berriz zu, eta giltzen soinua.

– Non gaude?

Begiak zabaldu nituen. Gogoratzen? Nire urtebetetze eguna zen. Aurrean, 31 argazki zuri beltzean, horman itsatsirik. Eta guztietan, ni. Zu... gu.

– Argazki horien bitartez kontaktzen da gure istorioa. Ikusten duzu lehenengoa? Taxitik jaitsi zinenean atera nuen, hain urrun dagoen lehen egun hartan. Berriz ikusiko

ez zintudan beldur nintzen, eta... –muxu batekin isilarazi nituen zure berbak.

Eta argazki horietan guztietan zeuden begiek ikusi gintuzten arropak galtzen, astiro, gorputza eta arima biluztuz. Larrua jo genuen inoiz baino goxoago. Muxu artean desegiten, hasperen eginez, bata bestea sentituz, gorputzek ura isurtzen zuten bitartean. Zure eskuek nire gorputza zeharkatuz, nire ezpaineek zurea bezainbeste.

Noraezean, baina elkarrekin, bata besteari gogor eutsiz, galdu ez nahian... Hori ikusi zuten argazkietan zeuden begiek, nire begiek, zureek,... gureek.

– Non gaude? Ez diozu galderari erantzun –xuxurlatu nuen zure belarrira.

– Sekula betiko lurraldean laztana. Etxean –oihukatu zenion munduari.

Gure txoko hori izan nuen opari 31 urte bete nituen egunean. Eta inoiz uste baino gehiago maite zintudala antzeman nuen, min ematen zuen arte. Handik aurrera, irribarrez bete genuen gela bakoitza, kolorez, argiz. Eta urtero, argazki bat gehitu genion horma hari, zuri beltzean. 365 egunen bizipenen arteko oroitzapen bakar bat, urte bat.

IV

Elkarbizitza horretara moldatzea, ez zen zaila izan. Beti pentsatu izan nuen, errutina nazkagarria zela, nekagarria. Baina zurekin, edozein gauza zen berri eguzkia atera bezain laster, errepikapen hutsa besterik ez bazen ere.

Muxu batekin esnatzen ninduzun, baina zuk ez zene-
kien, iratzarrik nengoela jada, zure pausoak korridorean
zehar hurbilduz entzun besterik nahi ez nuen, loti ederra-
ren papera betez, muxu batekin esnatzen den printzesa
bezala sentitu. Taxi horia hartzen zenuen, eta leihotik
agurtzen zintudan, pijama jantzita nuela. Laneko irteeran
itxaroten ninduzun eta elkarrekin bazkaltzen genuen, non
eta Central Parken, aurreko gauean barre algara artean
prestatutako bazkaria. Jertseak egiten bezain trebea naiz
sukaldean, badakizu.

Baina esan dudanez, edozein gauza zen berri eguzkia
ateratzean. Begiak itxita, zure pausoak korridorean zehar,
zure muxua, taxiaren atea ixtean egiten zuen soinua, nire
irribarrea zu agurtuz, nire pijamako hari bakoitza berria
zen niretzat. Eta egunero esaten nion nire buruari «Gaur,
lanera etorriko zait bila». Aldatzen zena, hitzak ziren,
egunero ezberdinak, munduko edozein bazterri, gauzari,
ideiari, pertsonari ... buruzkoak izan zitekeen elkarri esan-
dakoak. Hala ere, badaude bi hitz, inoiz aldatu ez direnak.
Maite eta zaitut.

Asteburuetan, ordea, errutinarekin apurtzen genuen,
ametsen munduan ibiltzen ginen, eta hil aurreko asmo
guztiak bildu genituen zerrendari erreparatzen genion, zein
bihurtuko genuen errealitate erabakiz kafetxo bat hartzen
genuen bitartean.

– Hozkailuan itsatsiko dugu zerrenda, inoiz ahantz ez
dezagun –esan nizun– Eta orain, zeu zara nire hurrengo
proiektua! –korrika atera nintzen zure bila, barreka, loge-
letan zehar, gure munduko txoko txiki horretan.

V

Erosketak egiten ezagutu genuen Cindy, Guatemala-tik etorritako emakumea. Gure ama izateko adina zuen emakume hartan aurkitu genuen gure familia, bere hitz egiteko era lasai horrek liluratu gintuen. Cindy etxe azpiko supermerkatuan aritzen zen lanean, kutxa lanak egiten. Begiekin dena esaten duten pertsona horietariko bat zen. Barregura sortzen genion, esne mota aukeratzeko ematen genuen denboragatik.

Izan ere, Cindy izan zen nire haurdunaldiaren berri izan zuen lehenengoa. Baita kotxe istripua jasan ondoren, eta haurra galtzearen ondoren, malko gehien bota zituen ere.

Logela hasita geneukan jada, zenbait arropatxo erosita. Izenak pentsatzen ematen genituen gauak. «Elene neska bada, Eñaut mutila bada» esaten nizun lokartu aurretik. Baina batzuetan, errealitatearen ziztadak ezin dira titare batez geldiarazi. Eta bete betean jotzen gaituzte, gure bakea eta poza lurperatuz. Eraikitako ilusioak apurtuz. Gure «gu» horretan, norbait gehiagori lekua uzteko prest geunden.

Ez ziren hilabete errazak izan. Negar guztiek bete ziztuzten logelak, iluntasunak jan zuen argia, eta leihoetatik ez zen eguzki izpirik sartzen. Nire begiek poztasuna galdu zuten, eta zu Peter, edozer gauza egiteko prest zeuden nik bizitzeko gogoia berreskuratzeko, edozer. Baina ezin, eta aste luze haietan, bakarrik zeharkatu behar izan zenituen supermerkatuko korridoreak, eta ez zenuen esne mota hartzeko orduan, dudarik izan. Izan ere, begiratu ere ez zenituen egiten kutxak. Eta Cindy, gure Cindy, zure irriban-

rre bakar eta ahulera ohitu zen nolabait, gure isiltasunera. Gure iluntasunera.

Hala ere, amak esan zuen bezala, barne minak, zauriak, denborak leuntzen ditu, eta goiz batean berriro altxatu nintzen ohetik zure muxu batekin. Pausoz pauso, erritmoa berreskuratu genuen arte.

– Bihotz taupadek erritmoa markatzen diguten bitartean, gu geu izango gara –esan nizun New York arnastuz. Eta poliki, argia itzuli zen.

Eta hori izan da gure erritmoa, gurea, eta ez besteena. Ez da hiriko erritmoa izan, ez eta erritmo uniforme eta jarrai bat. Gure pausuen eta ekintza eta barre algara guztien erritmoa izan da. Gure bizitzaren erritmoa, laztana.

VI

Guzti hau oroitu dezaket, gaur bete dituzun hirurogeita hemeretzi urteek zure aurpegi goxoan eragindako zimur bakoitzean irakurriz, gure hormak betetzen dituzten argazkietan. Behin esan nizun bezala, hitzak, nonahi aurki daitezke.

Lo egin ezazu, Peter. New Yorkeko gau hotz honetan, ezin lasaiago nago zuri begira, azkenean gure Sekula Bertiko lurraldea aurkitu genuelako, hegan baino, taxi hori batean hona ekarri baninduzun ere.

Lo zauden bitartean, ametsetan nago ni, lepotik eskegita daukadan titare txikiari helduz. Bihotz taupadek erritmoa markatzen diguten bitartean, gu. Pum, pum, eta pum.

Mens sana in populo sano

Irati Oregi Belaustegi
Zumaia institutua
Zumaia

Treanean doa, bakarrik. Liburuak eramateko zorro handia darama hankartean, estu-estu helduta balantzarik egin ez dezan. Neguko egun euritsu guztietan bezala, hezeak daude kristalak. Leiho ondoan eserita, kirriketatik sartzen den haize meheak hezurak dardarka jartzen dizkio. Leunki, begiak itxi ditu bekokia kristal gainean jarriz, umeltasun hotza, tantaka, sudurretik behera doakiola sentituz. Apur bat ireki ditu betazalak, begi lehorrek sortarazten dioten mina boikoteatuz kanpoko ikusi nahian. Ezer handirik antzematea ez du lortu, euri tanta bustiek guztiz galarratzen diote paisaiaren ikuspegi argia.

Triki-traka, triki-traka... trenaren mugimendu erritmikoa. Bere aurpegiaren isla ikus dezake leihoan, ezin ihardets dezakeelarik begi bien aurrean duen neskaz tristura apur bat sentiaraztea. Soinean bere kolore berdineko blusa urdin argia daramala konturatu da. Ile nahasia duela, bilduta daraman kakotik ohi baino ile xerlo gehiago irteten zaizkiolarik, itxura etsia emanaz begirada zargalduko bisaiari.

Agonian, berak baino bizitza hobea duen galdetu dio islari, hala desiratuz. Desiratutakoa berak ere benetan sinesten ez duen arren. Goxo-goxo, bagoiaren dantza lokomotorikoarekin batera lokartuz joan da aulkian...

Izugarria zen Rosa, hitzak eduki ditzakeen esanahi orotan. Izterrak, eztarritik behera amaitzen zuten gantzen topagune zituen, hedatuak, zabalak, handiak. Ibiltzean, ipurdia alde batera eta bestera mugitzera behartzen zutelarik, aldakekin bat, arabiarren dantza exotiko bat egiten ariko balitz bezala. Pausu baldarra egiten zioten, motela; korrika hasi bezain pronto nekatu, eta gelditzeko beharra sentitzen zuelarik.

Medikuak behin baino gehiagotan esana zion kirola egin behar zuela. Gozokiez ez abusatzeko, eta arraina oliorik gabe frijitzeko; nahi bazuen zapore pixka bat emateko limoi apur bat erants ziezaiokeela. Baita entsaladari ere, ozpinaren ordeaz, eta 100g okel bakarrik jateko bazkaritan, pasatu gabe, gehiago ez zuela behar.

Garai batean egiten zuen. Auzoko kiroldegira joaten zen, bertako gimnasia. Korrika egiten zuen birak ematen zituen zinta baten gainean, aurrerantz. Beti aurrerantz. Ez zuen gehiegi atsegin ordea, gurpiletan harrapatuta dauden hamsterrak bezala sentitzen zen, lasterka baina mugitu gabe, aurrerantz-kieto. Gizadia ere gizakiari ikusezina egiten zitzaion bola batean sartua zegoen, eta halaxe harrapatuta zegoenez, bera ere gurpil barruan lasterka zen, inguruko guztiekin batera. Bola erraldoi batean korrika irten ezinik. Gizarte hartan ez zen bultzatzen bakoitzaren izaera, nortasuna lantzea. Gizakia itxura bereko plastikozko panpina izatea baizik. Beraz, inguruko begirada zorrotza ekidin nahian edo, bertara joaten jarraitzen zuen bere ustezko inertziak bultzatuta. Batere mugitu gabe lasterka ari zela konturatu barik hai-zeak begiak lehortzen zizkiola.

«Goiz ilunaren artetik, itsasoa entzun zezakeen urrutira. Olatu ahulak hondarraren gainera igotzen ziren, astiro, sentsualki. Amodioa egiten zuten presarik gabe, deskantsurik gabe.

Haserretzen zenean beldurra ematen zuen aintzira izugarri hark. Dantzan hasten zenean ez zion edonork jarraitzen bere tangoari. Gerritik ondo heldu, burua atzean zuela, munduaren bestalderaino eramaten zituen biraka bere hanka luze lirainekin berarekin sartzera ausartzen zirenak; erritmoari jarraitzeko aukerarik eman gabe.

Gau hartan ez zen tangorik, balts leuna baizik. Pozik zen, gustura. Bere soinekorik politenarekin maitalearengandik gertu-gertu hari zen dantzan. Intziri apasionatuak iristen ziren Rosaren belarrietara, sentsualak, orgasmikoak... kili-kiliak egiten zizkion gaueko dama ederrak areari, leun, eztiki, goxo...

Rosak askotan pentsatu ohi zuen bere maitalea noizbait iritsiko zela. Berak ere nahi zuen dantzatzen ikasi, lotsarik gabe, olatuen gisara. Berak ere maitatua zela sentitu nahi zuen, hainbestetan entzundako maitasuna zer zen jakin. Noizean behingo bihotzaren balada ahulak ziren bere errutina mikatzaren goxagarri, eta ez nahikoa. Balsean ikasi nahi zuen.»

Hiri handian bizi da, beretzako handiegian aukeran. Jende olatu izugarrian murgiltzen da egunero poliki-poliki, eta batzuetan zaila egiten zaio ur gainean burua mantentzea. Maite du New York, ez da ohitzen, ordea, eguneroko erritmo bizira. Izatez, inguruetako auzo txiki batekoa baita, baina lanaren ondorioz, bertan amaitu du bizitzen.

Apartamentu txikia du eta hileroko errenta zeozelan errentagarri baten truke bizi da lau pareta xumeen artean. Egunerokotasunak jaten du pixkanaka kontsumituz doakiolarik barrena. Lehen malkotan amaitzen zuen egunero, nazkatu da, ordea, negar egiteaz, lehorrak ditu jada begiak, bukatu zitzaizkion malkoak...

Pisua txukun mantentzen saiatzen da, azkenaldian, ordea, dena hankaz gora du. Katilu zikinak telebista aurreko mahai gainean, amaitu gabeko patata zorroak, buruaz beste egindako zigarro mendiak dituzten hautontziak... Bost urte daramatza pisuan bizitzen eta eskuetako hatzekin konta ditzake bertara ekarritako adiskideak. Azeituna pota erdi irekia du hozkailuko zaindari, jogurt gaingabetu zaporegabearekin batera. Etxeko armairuetan pare bat gauza «low fat» eta zereal integralak ditu, behin telebistako iragarki batean, bi asteren buruan neurri bat galduko zuela prometarazi zioten berberak. Ez diote graziarik egiten, esnetara bota eta gutxienez kaxa bukatzea ezarri du helburutzat.

«Komuneko zuloari begira jarri zen belauniko eta bertan sartu zuen sudurra ia ura ukitzeraino. Behatzak luzatu zituen ahorantz... eta kanpai hotsak entzun ziren etxe osoan zehar. Kanpai hots tristeak, kanpai hots etsiak, kanpai hots mingotsak... Burua jaso eta begiak igurtzi zituen eskumuturrak. Beherantz begiratu zuen, bere barnetik irten zena aurkituz parean, bota zuena. Duintasuna zen komun zuloan, duintasuna fragantzia eta guzti.»

Haize eta trumoiak laguntzaz, gogor jotzen du euriak leihoetan... Supituan esnatu da Rosa, leihorantz begiratu du zaratarekin asaldatuta. Ohartzerako, lehen aurkitu duen

isla berari begietara zuzenean so aurkitu da. Euri tantak irristatzen dira kristaletik behera. Oliba beltzak bezain ilunak diren zuloetatik malko bat irristatu zaio. Inor ez da ohartu, ordea, begiek lehor jarraitzen dute.

Gutunak zuri beltzean

Ainhoa Vidal Gonzalez
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Itsasertzean haizeak soinu desberdinarekin abesten zuen. Pausoak haren konpasaren erritmoan mugitzea ezinezkoa suertatzen zitzaidan. Oinak hamaika urte zaharagoak ziren, hamaika aldiz nekatuagoak eta hamaika bider torturatuak, erritmo hau azken aldiz dantzatu zutenetik. Azken finean, haizearen hainbeste doinu ikasiak zituzten, hainbeste dantza eta erritmo memorizatuak. Pastoralak ziren ene gustukoenak, ene sorlekuko pastoral ahantzezinak.

Oraingoan oinak, denborak mozorrotu gabeko estuario elaire hartako iratzeen gainetik, gorputzean kilimak egiten zizkidaten *Juncus Maritimus* delako horien artetik eta haritzen azpitik zebiltzan trakets.

Txikitan erreka albora hurbiltzen nintzen goizetan amak gosaria mahaian jarri aurretik. Eta orduak pasatzen nituen geldi-geldi, begietan eguzkia gordeta, urari begira. Begiratzen eta entzuten. Bitxia zen Elorraneko errekaen soinua. Harri batetik besterako saltoa ematea, handiago batetik hurrengora eta azkenean beste aldeko lur bustian oina sartzean lurraren kexua imitatzea. Txoriek, zuhaitzek egindako zuloa betetzen zuten goizeko txorrotxio kuttunekin. Nik, ahots fin deuseztatuarekin uretan uhinak pintatzen nituen. Harriek, bere aldetik, Haizmendi

magaletik emeki bajatutako ur hotza, bits zuri bilakatzen zuten, batetik bestera pasatzerakoan. Zuhaitzak, dantzari firurikatzen ziren bidaiari zebilen goiz haize hotzarekin sinkronian.

Udaberria zen, udaberri loretsua kostaldean. Zeruan ere pailazoen aurpegi koloreko hodei apurrak konta zitezkeen. Gainerakoa urdina, urdin bizi-bizia. Oraindik gaztea zen zerua, milioika urte or goian geldi egon arren, gaztea, azken mendeetan zaharkitzen hasia bazen ere. Guk, gizaki malapartatuok, gure buru handiekin, gure harririk distiratsu zatarrekin zer egin ez dakigunok; guk, gure jenialtasunak itota, bizitzen ere ez dakigunok, indarrez herdoildutako toki metaforikoa. Lea ibaiaren bestaldean, *No pasar* letra larriz idatzia soinean duen eskudela urak herdoiltzen duen legez. Hala ere, txoriak alai zebiltzan oraindik, doinu sendi harekin jostalari. Ezjakintasunagatik jolasean, alai, maitekor. Ezjakintasunagatik eta honen ondorioengatik. Txoriak erraz iraungiko ziren, lehenengo txoriak, aireko oxigenoa murriztuz joanen zelako.

Hogeita lau urte nituen, ikasketen ordean, zazpi urterekin lanean hasia nintzen, garai hartako mutil gehienak eta hainbat neska gazte bezala. Ez neukan mundua, Europa, oxigenoa, latina, William Shakespeare, matematika, dinosauroak, eta horrelako hitz handien berri. Eta ez nekien, txoriekin batera gu iraungiko ginela, oxigenorik gabe ez baitago maitasunik.

Ai maitasuna! Ez nekizkien hitz erraldoi honen definizio zientifikoak, ez definizio morfologikoak, ez sintetikoak. Baina bihotzari zegozkionak ondo nekizkien. *Aranea* zen nire bihotzari zegozkion maitasunaren definizio

bakarra. Ene motxilako Aranea pisutsua. Zortzi zuhaitz nituen gutxienez motxilan. Zuhaitz deuseztatu eta industrializatuak. Baina zutik zeuden bitartean, trinko euren herrian, euren basoan, ez zutela inoiz hainbeste maitasun hitz elkartuta usaindu, sentitu, dastatu edo entzun ziur nago.

Hareak pasabideak aurkitzen zituen nire zapatetan eginak nituen zirrikituetatik. Zubia ikusten zuten begiek. Bidaiaren azken lerroak faltatzen zitzaizkidan, abentura-renak, ordea, lehenengo esaldiak baino ez nituen oraindik.

Harkaitz handi baten gainean pausatu nuen ipurdia ogi puska bat ahoan sartzeko asmoz, hainbeste ahotan entzundako *aitita makurraren* gainean nengoela konturatu ere egin gabe.

Itsasoak deitu egiten zidan. Izerdi gordinak apaintzen zuen nire aurpegi nekatua. Haizeak bere aldetik, ez zuen asko laguntzen. Mendi tontorren baten ezkutatuta egonen zen arratsalde hartan. Motxilako paper solte artetik, geratzen zitzaidan ogi puska bakarra ahoan sartu bezain pronto emakume bat hurbildu zitzaidan. Gogoan dut lehen aldiz begiratu nionean ikusi nuena. Begiak ikusi nizkion. Begi zabal zabalak, itsasoaren parekoak. Begiradan ere zerbait arraroa zeukala gogoratzen dut, zerbait berezia.

«Aizu, nor zara zu?» galdetu zidan eta nire erantzunaren zain gelditu zen ahoko ogia sabeleratzen nuen bitartean. «Bernart nauk. Beatriz Sustaetaren semea. Heldu berri naiz Donibanetik.» «Ez da izango? Ni Katixa Goitia naiz, zure amaren laguna. Ba ahal daukazu gaua igarotzeko ostaturik?» Ez neukan ez, eta egia esan, ordura arte ez nintzen konturatu ere egin. Itsututa nengoen herri

arrantzale hartara heltzerekin, eta horrekin bakarrik. «Gera zaitez nahi baduzu gure etxean. Pozik hartuko zaitu familiak, eta Beatriz nola dagoen kontatuko didazu horrela, ados?» Pozik hartu ninduen, eta neuk ere hala egin nuen. Emakume jatorra zen, amaren lagun handia, gogoratzen dut. Harri historiko, mitiko edo magiko hura bere baitan utzi nuen San Nikolas irlari so.

Kontu kontari abiatu ginen etxera, herriko kontuak aipatu zizkidan, neuk neure kontuak berari, Aranea gora eta behera, eta heldu ginenerako *konpintxe* bihurtuta neukan andere gizajoa ene noraezeko maitasun mutu horretan.

Ipurtargiak ikusten ziren gauean. Kresalez jantzitako ipurtargiak kostaldean. Orain dela hamaika urte ezagutu nituen ipurtargi berberen alabak, edo ilobak, agian. Amaren txikitako istorioaz gogorarazten nauten izakitxoak. Gogoan dut, behinola, bi urte besterik ez nituela, ametsetan Mimi mamua agertu zitzaidanean, nola garbitu zituen amatxok ene malkoak. Nire ipurdi biluztua bere azal gaztearen gainean kokatu zuen emeki, eta txikitan amamak berak kontatutakoa aitortu zidan. Bazirela zelaietan animaliatxo batzuk ipurdian argia zutenak. Bazirela animalia batzuk zerutik eroriak. Ilargi amandreak negar egiten zuenean bere malkoak lurrera isuri eta ipurtargi bilakatzen zirela. Baina malko horiek, lurrean ere magikoak zirela. Gure masailetan behera tristuraz beteriko malko bat erortzen zen bakoitzean, Euskal Herriko –Euskal Herria baitzen mundua– ipurtargi bat itzali egiten zela, magia galtzen zuela, eta horregatik, zoriontsu izan behar garela, tristurak ezabatu behar ditugula poztasunezko borragomarekin, ipurtargi batek bere magia gal ez dezan.

Katixak bost alaba eta sei seme zituen. Bakarra gogoratzzen dut, Bitaliano. Lekeitiora bigarren aldi horretan heldu nintzenean bost urte zituen, gazteena bera zen. Harreman fidela eraiki nuen berarekin. Gau hartan, lehen gauean, afarian istorioak kontatzeko eskatu zidan. Nik pozik aitortu nizkien ene pasadizorik harrigarrienak ere, baita ordura arteko garrantzitsuena ere. *Azken eguna* deitu nion hura.

«... Eta azken muxu baten ostean, ipurtargi bat eman nion. Amaren istorioa kontatu, zoriontsu izateko agindu eta ipurtargia bere eskuetan utzirik joan egin nintzen.»

* * *

Han zegoen bera. Portuan eserita herriko beste emakumeekin solasean. Orain dela hamaika udaberri zeukan aurpegi berdinarekin, ile laburrago eta irribarre txikiagoarekin.

Portuaren beste aldera jo nuen, ez nekien zer esan, zer egin ezta ezkerreko edo eskuineko begiarekin begiratu ere. Bere eskuaren arnasa nirearenganaino heltzen zen, ileari zerion etxeko xaboi-usaiak sorginduta nengoen atzera begiratu zuenean. Gorriturik irribarre bat zuzendu nion. Hitzik ez zen ahotik irteten. Irribarre batekin erantzun zidan guretzako denbora geldituz. Olatuak dantzari zebiltzan, hodeiak goian ziharduten behekoiei so, portuan sareak jostalari eta kresala harrapaketan oraindik. Baina gu, Aranea eta biok, geldirik geunden, geldi-geldi portu zaratatsuan. «Hamaika. Hamaika urte zurekin ametsetan» aitortzeko mugitu ziren ene maitearen ezpain sikuak, kresalak apurtuak. «Etor zaitez nirekin maitasunaren basora»; «maite haut» aurrekoaren ostean sortutako isilunea apurtuz. «Zuhaitzek hosto ugari galdu dute harrezkero. Ezkondu

egin behar naiz marinel batekin» «maite duzu?» «maiteko dut egunen joanarekin» «hurrengo arte, orduan, laztana» agurtu eta behelaino artean galdu nintzen.

* * *

Txorien goizaldeko kantuekin ireki nituen begiak, argitasunarekin negar egiten zuten idazten hasi nintzenean. *XII. IPURTARGIA* itsu-itsuan idatzi nuen, eta *1932ko Maiatzaren 8a* ondoren. *Gogoan dut lehen eguna, gogoan azkena ere*. Horrela hasi nuen azken gutun hura. Hodeiak azkar zihozten zeruan, lasterketa unibertsalean. Goizeko eguzkiak hitzak argitzen zituen, eta gerizaren konplizitateaz besteak iluntzen. Goiz hartako usaiak ere akordatzen naiz, etxe zahar hartako lurrinaz, kresalarekin sinbiosian. Azken puntuak gehitu eta porturako bidea hartu nuen.

Itsasontzi ugari zegoen egun hartan portuan. Emakume ugari portuan eguzkiak azala iluntzen eta ilea argitzen zion bitartean. Begi tristeetatik poztasuna kanporatzen zuten batzuek. Artean, besteak geldi, burua sarean korapilatuta ziharduten.

Laster ikusi ninduen portuaren beste aldean. Itsasontzien arteko hutsune txiki baten artetik, keinu mutu batekin ohartarazi nuen nire intentzioez, eta bai, erraz ulertu ninduen, edo hala uste dut behintzat. Erraz konturatu zen moilako noraiaren zulo txoan utzi nion papertxoaz. Hori uste dut, batez ere, herriko plazan galdu orduko, begiratu eta norako hartarantz zihoalako.

Eguzkia itsasoan pulunpatzen denean itsasargian izango nauzu.

Eta hantxe nengoen ordu batzuk geroago, itsasargian itsasoari so, izarrak zenbatzen eta minutuak zatitzen. Nire aurrean pausatu zen kalatxoriarekin solasean nenbilen atzetik bere eskuaren berotasuna sentitu nuenean. Eta hantxe zegoen bera. Beti bezain ezti, beti bezain gozo. Bepuruak finduta zeuzkan ordurako. Bere bekain beltz, lodi eta ederrak. Txikitant, edo gaztetan esan beharko nuke agian, ez zitzaizkion batiere gustatzen. Herriko emakume gehienek fin finak zituzten, baina niretzat, bereak ziren politenak, esanguratsuenak.

Kontu kontari ibili ginen. Aldiro, itsasargia gure aldera biratzen zen gure begiek hamaika urtetan zehar gordetako dirdira guztia islatzen zutela saltzeko. Mutu gelditu ginen momentuaz baliatu nintzen gutunei, ipurtargiei, sarrera emateko. Orduak pasatu genituen gutunak irakurtzen. *XII. IPURTARGI*atik, *I. IPURTARGI*Araino. Araneak itsasoa zirudien, Elorranareko erreka agian, bere ur-jauzi, uharka eta zapaburuekin.

Muxu bat eman nion, beste bat ondoren. Berak, trukean, irribarreak eta hitzak oparitzen zizkidan.

Izar batetik bestera genbiltzan. Irrintzika eta dantzan. Akelarrean murgilduta, suaren menpe lixiba gainean geunden ametsetan. Artean, muxuak hegan zebiltzan inguruan, hitz magikoekin jolasean.

Tamalez, eguzkia zeruratu egin zen egunero legez. Eta guk, bi ipurtargiok, sasi desberdinak aukeratu behar genituen.

Goizean, Katixa, Bitaliano eta familia agurtu ostean, abenturari azken puntua jarri nion. Ameriketara zihoan

itsasontzi batera igo nintzen, barruan lehen baino malko gutxiagorekin, irribarre handi mingotsarekin eta motxilarik gabe.

Iputargiak, oraindik, gauean kanporatzen dira, jendea ametsetan dagoen bitartean, ametsak baitira zoriontasunaren ikur, ilusio.

Azken dantza hau

Leire Alonso Allue
Askatasuna institutua
Burlata

Lekunberrin jaio zen Mirari, amonaren harrizko etxe handian. Lekunberrin hasi zituen ikasketak, herriko eskolan. Amaitzera baina, Bartzelonara joan behar izan zuen. Txikitan herriko dantzarien ikuskizun guztietara joaten zen Mirari, amona Mirenek lagunduta. Herriko jaietako bigarren eguneko dantzaldia zen Mirariri gehien gustatzen zitzaiona. Mutilek egun hartan janzten zituzten traje dotoreenak, eta inoiz baino dantzari gehiago biltzen zen Lekunberriko plazan. Neskatila izateari utzi zionean ere, urtero joaten zen amona Mirenekin jaietako bigarren eguneko dantzaldira. Lehenengo urteetan, ohetik jaiki eta gosaldu egiten zuen dantzaldira joan aurretik, amonarekin. Gerora plazan elkartzen zen amonarekin, gau osoa taberna batetik bestera dantzan igaro ondoren.

Lagunak betiko leloarekin joaten zitzaizkion goiz haie-tan: *Joan hadi lotara, atsedanak on egingo din eta. Utziko al dun behingoz amona bake santuan?* Baina Mirarik bereari eusten zion. Izan ere, ikaragarri maite zuen dantza. Gainera, dantzaldi horiei begira, bost urte baino ez zituela hartu zuen dantzan ikasteko erabakia. Harrezkero, herriko beste neska-mutil batzuekin batera, astero joaten zen Mirari dantza eskoletara.

Denborak lagunak hitzak entzun izan balitu bezala, bakarrik azaldu zen amona Miren herriko festetako bigarren eguneko dantzaldian. Dantzaldia ikustera joan ez zen lehenengo urte hura Bartzelonan eman zuen Mirarik. Ez zekien ongi zer egin nahi zuen. Beno bai, egia esan oso argi zuen. Dantza egin nahi zuen, herriko festetako bigarren egunean ikusten zituen dantzari haiek bezala. Baina denek esaten zioten dantzak dantza, unibertsitateko ikasketak ere aurrera atera beharko zituela, aldi berean nahi izanez gero.

Ezerk erakartzen ez zuenez, ia zoriz aukeratu zituen ikasketak. *Ea ba... irakasle, irakasle izango naiz. Eta zer irakatsiko dudan... matematika ez, zenbaki gehiegi. Historia? Ez, ez dut lau mila urteko bizitzarik nahi. Filosofia... bai hitz polita! Jakintzarekiko maitasuna sortzen saiatuko naiz. Bai, filosofia ikasiko dut!*

Sokrates, Platon, Aristoteles... hamaika lagun zituen Mirarik inguruan. Hala ere, norbaiten falta sumatzen zuen. Laster konturatu zen zer zen eztarrian korapilatu zitzaiona. Bartzelonan zeraman hilabete osoan ez zuen dantzarik egin. Tira, pixka bat bai, etxean, gaueko hamabietan eta erratzarekin dantza egiteari dantza dei badakioke. Bere ez-tarriko korapiloa zerk aska zezakeen uste izan zuen gauean ez zuen begirik bildu. Biharamunean kontserbatoriora joan zen sarrera-probak noiz ziren galdetzera, eta handik hilabetera, gutuna bidali zion amona Mireni kontserbatorioan dantza-ikasketak hasi zituela esanez.

Nahi baino lehenago itzuli zen Mirari ikasturte hartan Lekunberrira. Ez, ez zuen dantzaldi gehiago ikusiko. Ezta festetako bigarren egunekorik ere. Baina dantzariak izan

ziren amona Miren lurperatu zuten egunean. Jantzi doto-reak soinean, Mirarik dantza egin zuen lehenengo aldia izan zen ordukoa.

Handik hiru urtera, irakasle lanetara itzuli zen Mirari Lekunberrira. Dantza taldea sortu zuen herrian. Goizetan filosofia irakasten zuen institutuan. Edo, berak esaten zidan moduan, ikasleek galderak aurki zitzaten saiatzen zen goizero, zortzietatik ordu biak arte. Pertsonengan jakinmina piztea gustatzen zaiola esan izan dit inoiz. Hala ere, berak dantza besterik ez zuen egin nahi izaten garai hartan, orain bezala.

Harrigarriak dira Mirarik kontatzen dizkidanak. Ustedut gaztetako egun bakoitza gogoratzeko gai dela; bideozinta batean grabatuta duen pelikula balitz bezala, botoia sakatu eta segundo bakoitza ikus dezakeela oraindik ere. Atzo zer afaldu zuen galdetzen diodanean, ordea, beti erantzuten dit atzo ez ziotela afaririk eman, gogoratuko zela bestela afariaz. Nik argi daukat; atzo zer afaldu zuen galdetzen jarraituko dut egunero. Ea horrela hogeita batgarren mendean bizi dela ahazten ez duen.

Gustatzen zait tarteka tarte bat hartu eta Mirariren gelan sartzea. Mirariren gela beste guztiak bezalakoa da, karratua eta zuria, eta leihoak beste guztiak bezain ikuspegi polita gordetzen du hiriko pareta grisetan. Baina Mirariren gelak baditu besteek ez dituzten bi berezitasun. Ateko zenbakia da bat. 612 zenbakia dago Mirariren atean pintatuta. Nire urtebetetze eguna da, ekainaren 12a. Bai, Mirari opari handia da niretzat. Gelak duen beste berezitasuna hitz multzo bat da. Mirarik beti izaten du kontatzeko zerbait eta aditzeko asko. Besteek kontatutakoarekin

bizitzaren marrazkia egiten ari dela esaten du, horregatik gustatzen zaiola ni bere gelara solasera joatea.

Lehenengoz ume bati odola atera berri niola esan nio-
nean irribarre egin zuen Mirarik. Izututa nengoela esan
zidan, eta larritasunak masailak gorritu zizkidala. Uste dut
areago gorritu zitzaizkidala bere hitzek eragindako lotsaren
ondorioz. Lehenengo klase egunean urduri zegoela kontatu
zidan. Hogeita bost ikasle zituen gela berean. Ez zekien
ezer irakasteko gai izango ote zen, jakin-minik piztuko ote
zuen. Galderak sortu nahi zituenez, galderak egiten hasi
zen. Handik bi hilabetera ikasle guztiek egiten zituzten gal-
derak. Beharbada bi hilabeteren buruan lortuko dut nik ere
umeek odol tanta baino malko gutxiago isurtzea.

Erizain izatea zer den galdetu zidan duela lau egun.
Isilik geratu nintzen, mutu. Egia esan ez dakit zer den
erizain izatea. Ez dakit zer naizen. Irakasle bat filosofoak
sortu nahi dituen norbait dela esan zidan. Ez nuen ulertu.
Handitan denek izan behar al zuten bera bezalakoa? Ezetz,
ez zela hori. Jakintzaren maitaleak sortzen saiatu zela bera.
Jakin-mina piztu eta erantzunak aurkitzen lagundu. Hori
dela irakasle bat lortzen saiatu behar dena.

Goiz agertu nintzen egun hartan ospitalean. Zuzenean
joan nintzen Mirariren gelara. Bizkarzorroari begira ge-
ratu zen. Igerian aritu nintzela esan nion, txikitatik nuela
gogoko. Leihotik begira jarri zen, ameslari. Dantzaz hasi
zitzaidan. Dantza egin nahi zuela esan zidan, herriko
plazan, amona Mirenek ikusteko. Amonak utzi zuenetik,
urtero joan da festetako bigarren eguneko dantzaldira.
Hogeita bost aldiz ikustera eta hogeita lautan dantzara. Hil
baino lehen berrogeita hamargarrenez joan nahi duela esan

zidan. Ez, Mirarik ez dio beldurrik hiltzeari. Bizitzaren filosofia hiztegian aditz hori ere badagoela esaten du, eta ez diogula beldurrik izan behar. Ez zazpi hamarkada ia osorik bizi eta gero.

Arratsalde hartan ez nintzen beste erizainekin kafea hartzera joan. 40 zenbakiko dantzarako zapatak eroztera joan nintzen. Mirarik erabiltzen zituenak 38koak ziren, baina oinak hanpatuta ditu eta handi erosi nizekion bada ezpada ere. Oparia eraman nionean irribarre egin zidan. Zaharrek ez dakitela zapatak urratzen esan zuen, eta ez xahutzeko dirurik horretan. Hala ere, badakit ilusioz hartu zuela oparia. Atzo zazpi hamarkada bete zituen, eta merezi zituen zapata berriak bizitza marrazten jarraitzeko.

Gaur pozik joan naiz ospitalera. Analisi batzuen paperak bete eta 612 gelara hurbildu naiz. Mirarirekin hitz egin nahi nuen. Berak egindako galderari zer erantzun banekiela esan behar nion. Atea ireki eta leihoaz bestaldeko pareta grisak ikusi ditut. Ez zegoen inor. Atera egin naiz zenbakia begiratzera, beste gelaren batean ote nengoen edo. Ez, ez naiz atez nahastu. Beti bezain distiratsu zegoen zenbakia atearen erdian.

Roberto lankideari galdetu diot Mirariren gela zergatik zegoen hutsik. Esertzeko esan dit. Urduritu egin naiz.

– Mirari Lekunberrira joan da. Hau utzi du zuretzat.
–Kartazala eman dit.

Maddi, eskerrik asko azkenaldian ni zaintzen eman duzun denbora eta indarragatik. Zurekin solasean gertatzea gustatuko litzaidake. Ikaragarri gozatu dut zure adi-

tzeko modu eta ikasteko ilusioarekin. Lagun ona izan zara emakume zahar honentzat. Baina festetako bigarren eguna da, eta joan beharra daukat. Berrogeita hamargarren dantzaldira noa zapatak oinetan. Badakit ulertuko duzula.

Bigarrenez irakurri nahi izan dut eskutitza, baina hitzak malkoek eramane dituzte. Mirari Lekunberrira eramane duen mutilak deitu du gero. Mirarik ez du berrogeita hamakargarren dantzaldia ikusiko, baina zapatak astinduz ezagutu du zerrenda filosofikoko azken aditza.

PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Etxera itzulera

Izar Hernando Ibero
Zurriola ikastola
Donostia

Treanean zaude, Donostiara iristen. Gorputzean sentsazio arraroa daukazu; oraindik belarrian burrunbaka daukazu jaso duzun telefono deia:

– Zu al zara Ana, Ana Etxeberria Zabala? Mari Jose Zabalaren alaba?

– Bai, neu naiz.

– Begira, Mari Jose... zera, hilik aurkitu dute gaur goizean. Bihotzekoa. Herentziaren kontua dela eta deitzen dizut, baina zure denbora hartu. Hobeto datorkizunean dei iezadazu.

Kolpe bat, pistola baten balaren zarata, eta era berean isiltasun lazgarria sentitu dituzu barnean. Aspaldian ahaztuta zenuen pertsona etorri zaizu burura: ama. Ikusi zenuen azken aldia urrutiko lehengusuren baten ezkontzan izango zen; baina kontua da urtetan urrun izan duzun presentziaren falta inoiz ez duzula sumatu, inoiz ezagutu izan ez bazenu bezala, eta aldi berean beti zure barnean egon balitz bezala, zainetako odola eta biriketako arnasa bezain zeurea balitz bezala.

Bartzelonan bizi izan zara 5 urte zenituenetik. Aita joan zenean amak ezin zuela gehiago esan zion haren amari, lur jota zegoela, denbora behar zuela aurrera atera ahal izateko, eta eramateko bi haurrak eurekin Donostiatik Bartzelonara, denboraldi baterako bederen, hiri handiko mugimenduak on egingo ziela eta. Zure anaia, jada adin nagusia zena, ez zen zuekin joan; lagunak eta tailerreko lana ez zituela utzi nahi, eta pisutxo bat erosi zuen amari traba ez egiteko. Egia esan, ez duzu zuk nahi bestetan anaiarekin egoteko aukerarik izan. Ama errekuperatu zen denborarekin, lan eta bizimodu berriari ekin zion, eta pixkanaka harekin zenuen kontaktua galtzen joan zen. Tarteka egiten zenituzten bazkariak, joaten zineten elkarrekin oporretan, baina banandu zinetenetik ama izateari utzi zion zuretzat, ama paperari uko egin izan balio bezala, eta harekin zenuen harremana izeba batekin izan zenezakeena bilakatu zen. Urteak igaro dira eta bizitza eroso daukazu; ikasketak amaituta eta lan ona duzu, ondo zainduta etxetxo hiriaren erdialdean, lagunak eta mutil-laguna gertu, eta esaterik bada, aiton-amonen herentzia polita. Bai, edozein gaztek nahiko lukeen bizimodua daukazu; ez duzu familiarik, baina guraso papera hartu zuten eta asko maite izan zenituen aiton-amonak izan dituzu.

«Donostia» esan duen emakume ahots batek atera zaitu zure pentsamenduetatik, eta trena utzi behar duzula jakinarazi dizu.

Esku batean poltsa eta bestean maleta hartu dituzu. Maletan hiru-lau egun pasatzeko beharrezko diren gauzak dituzu, ez baitakizu zer egingo duzun. Norteko estaziotik atera bezain laster, 5 urtean zehar bizi izan zinen etxerantz zuzendu zara, amak ez baitzizun inoiz etxez aldatu zenik esan. Auzoan barneratu zara, txikitako hainbat oroitzapen,

oihu, usain, lagun, joko etorri zaizkizu burura. Jendeak hiria asko aldatu dela esaten du beti, etxe zaharrak bota eta berriak eraikitzen dituztela, baina zuri guztia berbera dela iruditu zaizu. Betiko harategia eta okindegia, betiko giroa eta betiko jendea; ez dira berdinak joan zirenean eta orain jolasean ari diren haurrak, ez eta orduko eta oraingo agureak, baina betiko jendea da.

Eskua poltsan sartu duzu, eta giltzetako bat atera duzu bertatik. Bil giltza eta izar bat ditu zintzilik, izar urdin bat. Irudi bat etorri zaizu burura: aitona maleta pila bat auto zahar batean sartzen eta ama, betiko mantal zuria jantzita, eta betiko ezpain gorri-gorriekin. Zu besarkatzen ari da, eta prestatzen zuen masusta mermelada usaina etorri zaizu burura; zuk bost urte dituzu. Amak, erdi negarrez, muxu ematen dizu, eta lasai joateko esaten dizu, beldurrik ez izateko, laster dena lehen bezala izango dela. Orain, urteak igaro ondoren, badakizu ezer ezin zela lehen bezalakoa izan. Amak amona eta aitona agurtzen ditu, eta autoan sartzeko eskatzen die; bitartean zure parean makurtzen da, eta mantal zuritik bi giltza eta izar urdin bat zintzilik dituen giltzetakoa ateratzen du, eta eskuan uzten dizu:

– Tori, zuretzat, maitia. Etxeko giltzak dira, badakizu orain Bartzelonara joan arren, hau beti zure etxea izango dela, eta beti, nahi duzun guztietan etor zaitezkeela, bisitan bederen. Orain, zoaz auto barrura, polita, ez baitut gaua iristean oraindik errepidean bueltaka ibiltzerik nahi. Emadazu muxu bat, polita.

Gogoratzen jarraitu duzu, eta hurrengo aldiz ama ikusi zenuen aldia hiru astera izan zela akordatu zara, eta hurrena bi hilabetera.

Ezkaratzera iritsi zara, 12 zenbakia. Atea ireki duzu, eta sorpresa hartu duzu eskailera zaharrak espero zenituenean igogailu bat ikusi duzunean. Bertan sartu zara; eta zera pasa zaizu burutik: ziur amaren ideia izan zela igogailua jartzearena; beti kexatzen zen egunen batean eskailerak hautsiko zirela eta, edo hauek igotzean belaunetan sentitzen zuen minaz; beti zeuzkan belaunak minduta, inguruko inor ohartzen ez zen arren, oso ederra baitzen ama, erakargarria, asko zaintzen zuen bere irudia. Ezpainak beti gorri eta mardul, eta ile motz iluna, itxura dibertigarri eta gaztea ematen ziotenak. Bosgarren solairuan gelditu da igogailua, zeuk eskatu bezala. Bi ate daude bertan. Ezkerrekoa al zen? Amari bidaltzen zenizkion gutunetako azal bat etorri zaizu burura. Bai, bosgarren ezkerrekoa. Giltza atean sartu eta ireki egin duzu atea; betiko kirrika desatsegina egiten jarraitzen du. Eta orduan bai, hanka etxe barruan jarri duzun momentuan, pareta zuria ikusi duzunean, mahai gainean lanparatxo bat ikusi duzunean, janari eta liburu zahar usaina etorri zaizunean, eztanda bat sentitu duzu barnean, hainbeste urtetan bisitatu ez duzun zure etxean sartu zarenean. Denak utzi zenuen bezala jarraitzen du. Egurrezko besaulki gainean, botata, amaren gabardina berde zaharrak bertan jarraitzen du, Donostia utzi zenuen egunean bezalaxe. Maleta eta poltsa sarreran utzi, eta pasilloan barneratu zara, bertako koadroak eta argazkiak ikustera. Guztiak ezagutzen dituzu, ez da bakar bat ere lekuz aldatua izan. Hondartzan atera zenuten argazkiaren parean gelditu zara, eta eskuetan hartu duzu.

Nabaria da argazkiak urteak dituela, kolore horixka hartzen hasia baita jada. Eta bat-batean, ura sentitu duzu zure inguruan, eguzkia zure gorputza laztantzen, algara eta oihu alaiak entzun dituzu. Jolasean ari zara, eskuan

baloï urdin bat duzula. Zure oinak begiratu dituzu; biluzik daude, saltoka, korrika, hondar leuna eta ur gazia azpian dutela. Soinean duzun bainujantzi marradunari egin diozu so, oso gustuko duzu. Eta zure tripatxoari begira zaudela, esku batzuk ikusi dituzu zu inguratzen. Buelta eman, eta zu baino zaharragoa eta altuagoa den mutil gazte bat ikusi duzu, bainujantzi berde bat jantzita.

– Aizu, baloia pasa egin behar da! –esan du algara artean; eskutik heldu dizu– Ea, goazen bainu bat hartzera, laster bazkaltzera joan behar dugu eta.

Itsasoan sartu zara, eskutik heldu dizun gaztearen atzetik. Uretan barneratu zarete lurra ukitzera iristen ez zaren arte, eta zeure burua larri ikusten hasi zara. Orduan, mutilak besotan hartu zaitu.

– Igerian ez al dakizu oraïndik? Neuk irakatsi beharko dizut.

Babesturik sentitu duzu zeure burua, gazte haren besotan. Hondartza aldera begiratu eta bikote bat ikusi duzu, toalla handi baten gainean eserita. Bikini gorri bat jantzita daukan emakumeak eskuarekin agurtzen zaituzte, eta gizonak zaku batetik kamara handi bat atera, eta argazki bat atera dizue.

Argazkia zegoen lekuan utzi duzu, baina etxera zozenean zurekin eramango duzula erabaki duzu, benetan polita dela iruditu zaizu. Pasilloan aurrera jarraitu duzu. Eskuinean daukazu atea ireki eta gela batean sartu zara.

Arrosa koloreko paretak ikusi dituzu aurrena, eta jarraian ohetxo txiki bat. Nabaria da aspaldian ez dela

erabilia izan, inguruan eta ganean kartoizko kaxa batzuk baitaude. Mahai bat ere badago, aulkitxo bat parean daukala; aulki ganean liburu eta traste zahar asko daude. Gela hark logela funtzioa aspaldi galdu zuela pentsatu duzu. Aulki ganean ipuin bat ikusi duzu, bereziki deigarria egin zaizuna; azal koloretsua eta bizia dauka, eta ezaguna egin zaizu. Gainontzeko traste eta liburuetatik aldendu duzu, ondoren mahai ganean uzteko; ireki egin duzu. Eta aldi berean, neskato txiki bat sartu da gelan korrika, kamisoi zuri bat jantzita. Zure albotik pasa da, mahai gaineko liburua hartu du, eta ohetxora egin du salto. Ohe gaineko eta inguruko kaxak desagertu egin dira, aulkitxo gaineko traste guztiekin batera, eta modu miragarri batean, logela haur kolonia usain leun batez bete da. Emakume eder bat sartu da, mantala soinean eta ezpainak gorri-gorri dituela.

– Zenbat aldiz esan behar dizut etxean korrika ez ibiltzeko? Ea polita, sartu ohean –esan du emakumeak neskatuari hurbiltzen zaion bitartean. Umea estali du mantekin.

– Ama, konta iezadazu ipuin bat!

– Ez egin oihu! Badakizu ze berandu den? Bihar eskolara joan behar duzu –esan dio emakumeak. Haserretzeko gogorik ez duela nabari den arren.– Zein ipuin nahi duzu kontatzea? –neskatoak eskuan daukan ipuina magalean jarri dio– Ipuin hau? Atzo irakurri nizun eta! Ez duzu aldatu nahi?

– Ez amatxo, hau asko gustatzen zait!

– Ea ba.

Emakumea irakurtzen hasi orduko, neskatoa lo gelditu da. Emakumeak aurpegia tapatu du une batez, nekatu keina eginez; muxu eman dio haurrari bekokian, eta argiak itzali ditu.

– Amets gozoak izan, polita.

Ipuina aulki gaineko trasteen gainean utzi duzu, eta gelatik atera zara. Pasilloan aurrera jarraitu duzu, ia bukararaino iritsiz. Amaieran dagoen atea ireki duzu. Sukalde batekin egin duzu topo. Parez pare mahai handi bat dago, inguruan lau aulki dituelarik. Horman argazki bat ikusi duzu. Argazkian irribarrez ari den neskatoa bat dago eta hortz bat falta duela ikus daiteke; neskatoa zakur bat besarkatzen ari da.

Bero itogarria egiten du, leihoa irekita dagoen arren. Irratiko esatariak dio: «Son las cuatro y media de la tarde. Les recomendamos que se hidraten con frecuencia, pues hace un calor ahogante, y seguirá así durante la tarde». Aulkian egunkaria irakurtzen ari den gizonak eta platerak garbitzen ari den emakumeak ate aldera begiratu dute ireki denean; neska txiki bat sartu da bertatik, galtza motzak eta barruko kamiseta tirantedun zuria soinean daramatzala, zein baino zein zikinagoak.

– Baina zer egin duzu hain zikin egoteko?

– Ezer ez aita, kalean jolasean aritu naiz.

– Zer gertatu zaizu ahoan?

– Erori egin naiz eta hortza jausi zait.

– Nola gertatu zaizu? Ondo zaude?

– Bai, amatxo. Kanean zakur batekin topo egin dut, eta bakarrik zegoenez, berarekin jolasean hasi naiz. Erori egin naiz eta izkina bat jo dut; baina ez dit minik egin, kolokan neukan. Zakurra gurekin bizitzera ekartzea erabaki dut, oso bakarrik zegoen. Zatoz Putxi!

– Nola?

– Putxi!

– Ez, hori ez! zakur bat etxera ekartzea erabaki duzula? Neska honek egingo ez duenik...! Akatu egingo nau! Ez daukagu zakur batentzako adina lekurik, eta etxea ilez beteta utziko liguke! Erotu zara, ala? Atera ezazu zakur hori nire begi bistatik! –Emakumea nerbioak jota dago. Atetik zakur bat sartu da gelan, isatsa jostari mugitzen duen bitartean, neskatoaren hanketara joan da.

– Ez, ama! Putxi gurekin geldituko da! Asko maite nau! Gainera, non egingo du lo gauean? Aita, utzidazu zakurra edukitzen!

– Ez dut uste zakur honek enbarazurik egingo ligukeenik, zu arduratzen bazara, jakina. Jaten eman, kalera atera... ez da lan erraza zakur bat zaintzea!

– Aitatxo, nik zainduko dut Putxi! –Gizonak jostari begiratu du emakumea, eta honek azkenean, buruarekin baietz egiten du.

– Ongi da! Baina ni ez naiz ez zakurraren kakez, ez jaten emateaz arduratuko; jakin dezazuen esaten dizuet! Bioi!

– Mila esker, amatxo! –neskak gurasoak besarkatzen ditu– Ni arduratuko naiz guztiaz. Aitaxo, atera argazki bat Putxi eta niri! –Gizonak kamera hartu eta argazki bat ateratzen die neskatoari eta txakurrari.

Argazkiak oroitzapen dibertigarri eta alaiak ekartzen dizkizu. Leihora hurbiltzen zaren bitartean, gizon batek atetik hitz egin dizu:

– Kaixo, Ana!

– Kaixo! Ez zaitut sartzean entzun; jakin duzu amarena?

– Bai, jakin dut –Mutila zuregana urreratzen ari da. Segundo batzuk behar izan dituzu zure anaia, hainbeste behar izan duzun eta ondoan izan ez duzun anaia dela konturatzeko. Mutil altua da, erakargarria; bizar soilak eta begi argiek erakargarri egiten dute.

– Zera, nik... ez dakit zer esan. Ez nuen espero.

– Ez, nik ere ez. –Zure parean jarri da. Barnea aztoratuta daukazu; parean daukazun mutila ukitu nahi duzu, besarkatu, aspaldian galdua zeneukaten lotura berreskuratu. Betiko usaina izaten jarraitzen du, hainbeste gustatzen ziztaizun tabako eta gasolina usaina.

– Joan egin da.

– Bai, joan egin da

Mutilak besarkatu egin zaitu. Eskerrak eman nahi dizkiozu, ez dakizu zergatik, baina harekin zorretan egon

zarelako sentsazioa izan duzu txikitatik; bizitza zer moduz dihoakion galdetu nahi diozu. Maite duzula esan nahi diozu, haren falta sumatu duzula. Baina besarkatuta jarraitzea erabaki duzu.

Txaro

Garazi Mugarza Markina
Berriz institutua
Berriz

Ez dago bidaia luze honetan entretenitu nazakeen ezer. Pentsatu egiten dut, begiratu eta irudi horiek gainetik koloreztatu, eta berriz, eta berriz... Leihotik kanpoko etxe ingurukoa izango balitz bezala ezagutzen dut jada eta, paisaia honek ez dit inolako ikusminik pizten. Irratiaren hitz jarioak ere nazkatuta nauka, munduko arazo guztien berri ematen digu, emozioz beterik eta botoi hori ez bada, ez dago isilduko duen inor. Gustatuko litzaidake, ume baten begietan bizitzea, begietan eta pentsamenduetan. Bidaia luze bakoitzean, asmakizunetara jolasten baitute, *ikusten dut, ikusten dut...* Eta joko hori oso polita iruditzen zait, berezia, umeak, gu ikusteko gai ez garen gauzak ikusten dituztelako, igarkizun sinpleetatik hasita korapilo askaezinetan murgilduta amaitzen dutelako. Ametsak eta desioak kolore biziko klarionaz margozten dituzte, ideia eta pentsamendu ulergaitz horiek buruan dituztela. Gai dira inoren lumak jantzita daramatzen hori ezagutzeko, aurpegi bietako zimurrak nabaritzeko eta irakasten zaien arte ez dakite gezurrik esaten. Umeak dira, umeak. Era batera esateko, hesi eta horma sendoetatik haratago dagoena ikusi eta azaltzeko gai diren bakarrak dira. Kandelaren aurrean guztiei zorionak behin eta berriz kantatzeko prest daude beti, gogoz hasi eta gogo berdintsuekin bukatzen dute. Eta haurrak dira, eskuen atzean ezkutatzeko gai

direnak, eta eskuak paretik kentzen dituzten arte inork ez ditu ikusten.

Beti bezala, furgonetaren gidariak, noizbehinka nola goazen galdetzen digu, eta komunera joateko beharrik edo zerbait hartzeko gogorik ote dugun, eta astebururo bezala, taberna horren parean aparkatzen du ibilgailua.

Nik betikoa eskatzen dut, kafesne bat kroasan karraskatsu baten laguntzaz. Zortzirok mahai inguruan jarri eta kontu kontari aritzen gara ordubetez. Atsedendaldi hau primeran etortzen zaigu guztioi, bidaian zehar zikindu gaituzten pentsamenduak uxatzen ditugulako. Hutsik geratzen naiz, eta une horretan sentitzen dudan lasaitasuna berezia izaten da, itoazten nauten sokak moztea lortzen dudalako agian. Komunera osteratzen bat egin eta denok sartzen gara berriz furgonetan. Oraingoan, bigarren gidariak gidatzen du, bidaiaren luzera dela eta, txandaka gidatzen baitute. Mutil gazte bat da eta segundu batzuen inguruan sekulako abiadura hartzen du, eserlekuan itsatsita geratzeko modukoa. Esan ohi diot, askotan hobe dela astiro joan eta gauzak ongi egitea, baina honek, nire hitzak, eskuineko belarritik sartu eta ezkerrekotik ateratzen ditu. Ausarta dirudiela dio jende askok, beldurrik ez duelako, baina zein da ausarta, beldurrik ez duena? Edo bere beldurrei aurre egitea lortu duena?

Bidaiaren bigarren zatian goaz gutxi gora behera. Zazpi ordu eta hogeita hamalau minutu daramatzagu jada geldialdia kontuan hartuta. Zeinen mantso ihes egiten duen denborak batzuetan! Zientzialariek nahi dutena esango dute, baina iruditzen zait denboraren abiadura beti ez dela bera. Asperturik eta nekaturik gaudenean, oinak arrastaka

eramaten ditugu, eta denborak ere gauza bera egiten due-lakoan nago, segunduak eta minutuak arrastaka eraman eta orduak tiraka. Denbora astiroitzen bada, ni ere mantsotu egiten naiz, eta buruari gauza asko pentsarazten dizkiot, gauza asko ikasarazi. Eta horrela, ikasi dut, bizitzan, ez gaituztela beti seinaleek gidatzen.

Furgoneta honetan lasai joaten naiz beti, badakidalako hara heldu arte ez daukadala ezer egiteko premiarik. Kanpora begiratu, hitz batzuk trukatu eta itxaron. Eta, gaurkoa bezalako egunetan, furgoneta hau da karroza bihurtu den nire kalabaza. Gurdi honetan egiten dut astebururoko bidaia, eta itxaropena oparitzen didaten hitz eta besarkaden bila joaten naiz astebururo. Urrun dauden arren, merezi izaten du.

Hara, igaro berri den seinale horretan jartzen zuenez, «Centro Penitenciario de Alicante»tik 204 kilometrora gaude, gutxi gora behera bi ordu eta erdira.

Urduritasunak eta beldurrak esku banatetik heldu nautela sentitu dut orduan, eta nire senarra metro batzuetara dudala ikusi arte, badakit ez nautela askatuko. Batzuetan, ama banindute bezala estutzen baitidate eskua.

Zabaldutako autoko atea eta kanpora atera naiz. Ez dut Euskal Herriko haizearen freskotasunik nabaritu. Beroa, izerdia, hego haizea eta eguzkia gu erre nahian.

Hemengo zerua garbi dago, nire barrua ez bezala. Beroak beldurtzen bainau, astebururo–astebururo, galduta sentiarazten nau, zahartuta zeharo. Iluntzeko zazpietan dut txanda, eta oraindik eguerdiko ordu bata da. Josuren gura-

soek, Joxek eta Isabelek, ordu bat eta erdietan dute txanda, eta bitartean, besteok gertuko jatetxe batera hurbildu gara bazkaltzera.

Hemen ere bero egiten du, baina zorionez, aire girotua dute. Menu bat jan dugu hamaika euroan eta bazkaloanean, kafea hartu dut izotzarekin. Hirurak inguruan agertu dira jatetxera Joxe eta Isabel ere bazkaltzera. Dena ondo joan dela diote, badakigula, larunbateroko gorabehera txikiekin, baina gainerakoa ondo. Semea mehe ikusi omen dute eta mesedez ematen diotena jateko eskatu dio amak. Kezkaturik bizi gara jatekoaz, nire ustez gehiegi kezkatzen gara. Beti dago kexaren bat, gehiegi jaten bada, gehiegi jaten delako eta loditu egingo garelako, eta gutxiegi jaten bada, gutxiegi delako. Zenbat nahaste sortzen digun buruan telebistak! Promozioa egiteko orduan, beldurra sartzan digute eta beldur horrek garamatza gero ondorioetara.

Ibilalditxo bat egin dugu hondartza ingurura. Jende asko dabil hondartzan eta txiringitoetan. Berehala sumatu dut diruaren usaina. Ospe handiko ingurua da hau, jende asko inguratzen da hona, nire adinekoak ere bai, emakumeak batez ere, bidaiariak, dotoreak, etxean gelditzen ez diren horietakoak. Gaztetan, lagunartean, beti esaten genuen, bidaiariak izango ginela, denok batera joango ginela ur epeleko hondartzetara. Nahiko bidaiari naiz jada, hemeretzi urte dira hona joan etorriak egiten hasi nintzenetik. Alicantek ez dauka aparteko dotoreziarik nire gusturako eta bakardadea eta isiltasunez apaindutako la-saitasuna etxeko armairuan ezkutaturik dituztela uste dut. Hemen ez dago negu hotzik, elurrik, ez dago udaberririk, eta udazkenik ere.

Gozoki mota pila bat dituzten postu baten gelditu naiz orduan, eta aspaldi probatu gabe nituen karameluak ikusi ditut. Ilobei eramango dizkiet banaka batzuk, eta esango diet, zeinek duten zapore berezia niretzat eta zenbat gustatzen zitzaizkidan niri duela urte asko. Beraiek ere atsegin dituzte karameluak, bizi dituzten garraztasun tanta horiek goxatzen laguntzen dietelako.

Zoragarriak dira, gure etxea gozatzen duten karameluak. Laida eta Peru dira. Peruk lau urte ditu eta Laidak bederlatzi. Amaren laztanak dituzte, aitaren jolasak, amona bakarraren magala eta urruneko aitonaren itzala eta gutunak. Beraiek diotenez, aitona, itxuraz, mamu baten antzekoa da. Ezagutzen ez dutenez, izara batek estalitako itzal bat izango balitz bezala sentitzen dute bere gutunetan, baina mamu hori berezia da, mamu horrek ez baititu beldurtzen. Antzinako istorioak, ipuinak eta kondairak kontatzen dizkie aitonak gutunetan, eta uste dut, horregatik ikusten dutela hain berezi, hain mamu.

Beren aitonari modu horretan ikusten dutela kontatzen diodanean, barrez lehertzen da Isidro, dirudienez, grazia egiten dio horrek, berak eta kideek gorroto duten polizia gogaikarriari mamu deitzen diote eta. Gutxien espero denean, izkina guztietan agertzen delako. Askotan eramaten dizkiot iloben argazkiak, urtetik urtera asko aldatzen baitira eta berak askotan esaten dien legez, txokolatezko tartek baino itxura hobea dute hilabetetik hilabetera. Askotan eskatzen dit Isidrok txokolatea, almendradun txokolatea. Esaten dit, egunen batean, etxera itzultzen denean, tarta oso bat jango duela berak bakarrik, urteetako tristura gaintetik kentzeko, eta berak hain gustuko duen txokolatezko tarta hori mokaduz-mokadu gozatuko duela.

Bostak eta laurden dira oraindik, sargori egiten du hemen, eta hondartza bertan dagoenez, oinak bustitzea bururatu zait. Sandaliak kendu eta korrika abiatu naiz urertzera, hondarrak erre egiten baitzuen. Oinak uretan sartu ditut txipristinka hasi naiz, dantzari, urak hankak mugituko balizkit bezala. Aske sentitzen naiz, ezereen ardurarik gabe, ez dakit zein egunetan bizi garen eta hemen nabil, gelditzen ez den zabuan eserita, behatz puntekin ura laztantzen, irribarrez. Berrogeita hamazazpi urte ditudan arren, bost urteko neskatoa naiz une batez. Ama zenak askotan esan zidanez, gauzek bere momentua dute, ez bere adina. Eta orain uste dut benetan arrazoi zuela.

Zazpiak ziztu batean datozela esan dit gidariak, eta bat-batean itzartu naiz ametsetik. Oinak sikatu arte itxaron dut eserita pixka batean, bertako jendearen azal kolore desberdinei begira jardun dut, eta ikusi dut, kolore politak direla guztiak, nahiz ilunak edo argiakoak izan. Begirada kendu eta sandaliak janzten jarri dut arreta, lehenik lotura guztiak askatu behar ditut eta gero berriz lotu, lehen askatu gabe kendu eta korrika abiatu naizelako.

Seiak eta laurdenetan sartu naiz kartzelako sarrerara. Bertan egon diren begi gehienek begiratu naute eta nik, eurak begiratu gabe leihatilarantz jo dut zuzenean. Nire izena eman, Isidro Gerrikabeitia Etxegoien bisitatzera natorrela esan, paper guztiak erakutsi eta ondoren metal detektatzailetik igaro naiz. Ez da txistu hotsik entzun, ohitua nago jada, eta badakit soinean daramadan zer kendu behar duan eta zer ez erantzi. Itxaron gelara pasa naiz orduan.

Hemendik ikusten dira ikustekoak. Ijitoak. Eserita eta seme alabei begira. Umeen portaera negargarria ez

niokeen nik behintzat nire alabari onartuko. Poliziari praketatik tiratu eta korrika dabilta hara eta hona sekulako zalaparta ateratzen. Dena dela, inork ez du txintik esaten. Hori da hori panorama! Zirkoa dirudi honek, eta pailazo barregarriak, beraiek.

Batzuei zapatak kendu arazten dizkiote metal detektagailutik igartzeko. Eta ortozik ez igartzeko, plastikozko galtzerdi batzuk ematen dituzte. Ez daukate lotsarik, ez dute plastikozko galtzerdi batzuk atzerritarrei emateko atzamarra ere mugitzen. Pertsona guztiok berdinak garela diote legearen aurrean, baina bi begi eta pentsamendu zorrotz baten aurrean izen eta maila desberdinetakoak garela zenbat nabaritzen den!

Emakume bati begira nago. Eserita dago, buru makur, zorua begirada bakar batez zulatu nahian balebil bezala, bi urte inguruko alabatxo magalean duela. Zaldiko-maldiko batean kulunka dabilela dirudi, aurrera, atzera, aurrera, atzera...Mototsean bilduriko ile beltza du neskatoak eskuetan, zintzilik eusten duen soka bakarra izango balitz bezala, eta bitartean doinu goxo bat abesten ari zaio neskatoari; *hegoak ebaki banizkio, neria izango zen, ez zuen alde egingo, baina horrela, ez zen gehiago txoria izango, eta nik, txoria nuen maite...*

Bere masailez ferekatzen du alabarena, igurtzi leunak emanaz. Emakume horrentzat, izar guztiek distira egin dezaten gustatuko litzaidake, begirada estali horretan igartzen baitzaio alabari begira eta alabarentzat bizi dela. Xamurtasun hori sekula sentitu gabe nengoen, eta orain ezin diot begiratzeari utzi, sentsazio gozoegiak sentiarazten baitizkit. Gure Irati txikia zenean, Isidrok eta biok ematen genizkion

laztanak etorri zaizkit gogora, garai zoriontsuak ziren haiek. Irati neskato alaia zen eta egoskorra, aita bezalakoa. Kokotsa, ezpainak eta ile kizkur hori ere aitarenak ditu. Baina hori bai, nire begiak eta eskuak. Iratik hogeitaz bete eta astebetara sartu zuten Isidro espetxean, eta orain hogeitaz hemeretzi ditu. Esan genezake hemeretzi urtean aita dragoi batek babesten duen dorre altu batean gordetzeko lapurtu diotela. Eta guztiok dakigu, ez dagoela printze edo kasu honetan printzesarik, Isidro salbatzeko gai izango denik. Gogoratzeari utzi diot, iraganak harrapa ez nadin.

Gure txanda. Pausua azkartzen ari naizela konturatu ere egin gabe iritsi naiz geletara. Gela haietako batean egongo da. Trostan dabilen zaldi baten pausu sakonak entzun ditut nire taupadak izango balira bezala, urduritasuna eta beldurra nahasturik amonaren etxera doan txanogorritxu honen otzaran.

Besoak zabal-zabal dituela aurkitu dut Isidro. Bere lepo zabalaren gainera jaurti ditut eskuak eta besarkada estu bat eman diogu elkarri. Ondo dabilela esan dit segidan, eta nik sinistea nahi izan du. Esan diot ni ere primeran nabilela, eta alaba eta ilobak ere bai. Betiko txokoa, mahai bat eta aulki batzuk. Ez da une honetan paisai modura edukitzea gustatuko litzaidakeena, baina Isidrok nire inguruari argitasuna oparitzen dio berarekin nagoen bakoitzean. Gaur begirada tristea du, baina momentuz ez diot ezer galdetu nahi.

Iruditzen zait ilea luzeegi duela, eta esan diot, txan-txa modura, pare bat aste barru, mozturik ez badu, txakur ile-luze baten antza izango duela. Zuritzen doa, nire senarraren ilea zuritzen doa. Ilea zuritzen, eta adina gehi-

tzen. Batera zahartu eta hilko ginela esan genion gaztetan elkarri, baina denbora aurrera doa, eta zahartzaroko une batzuk nire ametsetan soilik bete ditugu. Ez zaio irribarre triste bat atera, eta hori, bere kasuan harritzekoa da. Ea zerbait gertatzen zaion galdetu diot. Isilik geratu da eta opariari papera kentzean egoten den isiltasunaren antzekoa sortu da. Denak paperaren azpian egongo ote denaren zain. Badaezpada, berriz galdetu diot. Lepoa eman eta aldaka erakutsi dit disimulu guztiz.

Ez zuen erakusterik nahi, baina konturatu da jakin egin behar nuela. Ubeldura. Izoztuta banengo bezala nago. Geldik. Eta oraingoan isilik geratu dena neu naiz. Ubel horretan galdu izan banintz bezala sentitzen naiz eta kontzientzia galtzeaz aparte, bost zentzumenak ere kolpe batez galdu izan banitu bezala. Ez nuen sentitzen, ez nuen neure zama jasaten. Biratu eta esan dit inori ezer ez esateko, ez duela inor kezkatu nahi eta ez dela hainbesterako. Erotuko zait Isidro, hemen erotuko zait.

«Cinco minutos!». Bost minutu. Azken bost minutu hauek ez zaizkit gustatzen. Azken bost minutuek agurtzeko unea dela esan nahi dute, eta nik ez dut inor agurtu nahi. Eserlekuak utzi eta elkarren besoetara jo dugu biok. Bere besarkadek jaten ematen didate, artzainak ardiei bezala. Maite nauela eta maite dituela xuxurlatu dit belarrira. Ez gaituela ahaztu, ez gaituela ahaztuko eta oheratzean, pentsatzeko, berriz egunsentia helduko dela, eta egunetik egunera gutxiago geratuko dela bera etxeko atarian ikus-teko. Ez duela bakarrik egoten jarraitzeko asmorik esan dit ahots sendoz. Bakarrik dagoela ulertu diot. Oraingoan tristurak busti dizkit begiak, eta malkoei masailean behera erortzen utzi diet. Hori bai benetako bakardadea, jendez

inguratuta egon eta bakarrik sentitze hori. Maite dudala esan diot nik ere, eta musu bat eman diot ezpainetan. Musu batzuk ezpainekin ematen dira, beste batzuk sudurrarekin, eta bakoitza sentimendu propio batez ematen denaren sentsazioa daukat.

Bere esku zakarrarekin ez dio utzi malkoari masailuzurrera heltzen. Eta berriz batu gara, bere besoek batu naute, eta aurpegiarekin nire ile zuria urratuz, beste musu bat eman dit buruan. Ez dakit zenbat denbora egon garen horrela, baina segituan ateratzeko eskatu didate. Irten naiz, eta berak barruan jarraitzen du. «Gogor eutsi!» oihukatu diot, eta berak, «Maite zaituztet!». Oihu horrek aste osoko beharraren iltzea atera dit. Maite zaitugu guk ere Isidro.

Eta han utzi dut, etxekoon oroitzapenen konpainian. Hitzek ez dute eztarria uzterik nahi izan, eta han geratu dira, lepoa estutuz, azkenean, hasperen bat botatzen utzi didate behintzat. Gauza gehiegi geratu dira esan gabe. Ez nago batere lasai, ubeldura hori ez zen lehena izango, baina ezta azkena ere. Minez hunkiarazten nauen zerbait da, arrotza, ezezaguna, arnasa hartzea korapilatsua bilakatu arte bularra espetxerazten didan zerbait. Arduratuta nago, kezkaz beterik daukat burua; zergatik, noiz, zerekin, non, nola, nork... Senarra espetxean sartu zuten garai hartan sentitzen nuena beldurra zen, gertaera hark sekulako erabatekotasunarekin burrunbatzen zuen nire burmuina babesten duten hormetan, baina orain atsekabea da, egonezina, kezka.

Fio naiz Isidroz, baina tristura hori ez da betidanik ezagutu izan diodana. Tristura horrek minaren pusketa bat probatu duela uste dut. Minez dago eta etxekoon falta na-

barmena duela igartzen zaio. Gogor eusteko oihukatu diot lehen, eta badaki zer esan nahi nion. Etsipenak ez daukala soluziorik, baina tristurak baietz, eta eusteko, eusteko behar den bazterrari.

Guk berak eginiko ispilu horretatik ikusten dugula eta bertatik bidaliko dizkiogula falta diren indar guztiak.

Ispiluak gezurrak esaten dizkigula dio jende askok, ispiluan denbora larregi pasatuz gero, azkenean, ispiluak esandako gezur guztiak irensten ditugula. Baina nire iritziz, ispiluak ez du gezurrik esaten, dena den bezalakoa islatzen du, eta gezurra, esatekotan, geuk esaten diogu berari. Isidrok gezurrak esan dizkit, ez dela hainbesterako, pasako dela. Eta gezurrik handiena, ongi dagoela. Ispilu horretan urte hauetako zenbat gezur dauden pilaturik. Horregatik ez da inor bere aurrean apaintzen.

Bederatziak laurden gutxiagotan sartu gara denok berriez furgonetan. Nekeak zorabiatuak gaude guztiok gidaria izan ezik, inguraturik bageunde bezala. Esan digute, goizaldeko laurak aldera geldialdi bat egingo dugula betiko jatetxean, termoan kafesne beroa dutela eta horixe hartuko dugula.

Komun publikoetara joateko aprobetxatuko dugula tartea eta bide batez gidaria aldatuko dela. Hori esan eta mar txan jarri da furgoneta. Isidroren ubelduran daukat burua oraindik, zer animala klase da hain basatia?

Isabelek iratzarri nau. Geldialdia egiteko ordua dela esanez. Furgonetatik jaitsi, aharrausiekin batera luzatu eta kapotera joan naiz. Han, plastikozko edalontzietan

hartu dugu kafesnea, bero-bero dago. Eta ordu laurdena, komunera joan ostean, berriz ibilgailuan eserita gaude guztiok.

Ezin dut lorik hartu, pentsamendu gordin batek ez dit begiak ixten uzten. Ez dut esaldi hura baztertzeko indarririk. «Eta oheratzen zaretenean, pentsa ezazue, berriz egunsentia etorriko dela, eta egunetik egunera gutxiago geratuko dela ni etxeko atarira irribarrez agertzeko.»

Badakit hori ere ez dela egia, badakit esaldi hori ez dela sekula beteko. Berak larunbatero berdina esaten didan arren, errepikatzeak ez du beti laguntzen. Eta badakit berak ere badakiela hori. Badakit ez dela itzuliko, Isidrok eta bere antzeko egoeran aurkitzen diren askok irabazteari utzi baitiote, baina boterea mendean dutenek beti irabazten dute. Eta bizitza honetan irabazteari uzten badiozu ez dizute barkatzen, eta beti irabazten baduzu, ordea, gorrotatu egiten zaituzte. Gorrotoak indar handia duen arren, botereak ez dio sekula irabazten utziko. Borroka eta garrasia ez direlako beti bidea, aurkari biek galtzen dute. Indarra ez da ahotik galdu behar. Horregatik boteredunak ez dira borrokatzen. Zentzu bakoien bueltan jirabiraka ibiltzen dira, zerbaitetan, eta azkenean ez dute ezer esaten. Baina beraiek nahi dutena, aurkarietara begietan sua piztea da, eta horrela, garailearen txapela lortzen dute beti. Beraien hankekin aurkaria zapaltzea.

Hitzen eta arrazoen indarrak, gogoak eta itxaropenak beti irabazten ez duten arren, ez daukate zertan beti galdu. Horiekin ere garaile izatea lor dezakegu. Etorkizun hurbil batean agian, baina auskalo non egongo garen bihar. Beharbada erabakiren bat ahulduz joan daiteke eta maite

dugun hori sorpresa bat bezala ager daiteke etxeko atarian, edo iraganak bere atzaparrekin harrapa gaitzake.

Ume nintzenean, aitak askotan esan zidanez, hobe da itxaropena galtzea, belauniko bizitzea baino. Alde bate-tik arrazoia du, baina beste aldetik, neure buruak duen itxaropena naiz. Eta ez naiz belauniko bizi. Euskal Herritik Alicanteko espetxeraino larunbatero joatea belauniko bizi-tzea ez baldin bada behintzat. Aibala! Ez dut nire izenik eman. Nire izena Esperanza da, baina Txaro deitzen di-date.

Idazmakina baten azken tangoa

Adriana Unanue Mañoso
Egape ikatola
Urnieta

Arraroa egingo litzaioke denbora honetan guztian iraun duen «eginbehar» bati uko egitea.

Erokeria litzateke, besterik gabe, biok ezagutzen duzuen errutina hori apurtzea. Ezin izango luke azken urteetan bizia eman dion protagonista zokoratu, behingoagatik bada ere idazmakina alde batera utziaz, zurekin, oraindik ere berea duen emaztearekin arratsa igarotzeko. Beraz, gaur horretarako egun aproposa ez duela onartu ostean betikoari ekin dio. Izan ere, zoroen kontua da bat-batean bururatu zaion hau. Ero halakoa.

Duen ile marroixka urdintzen hasi zaion arren, oraindik ere hasieran bezala egiten diote distira begi berdeek parean duzun gizonari. Zeure gizonari. Egunen zama uxatu ezinik iritsi zaio honi ere adinaren patua, eta jada ahaztuak ditu elkarrekin igarotako uneak. Lakuko etxeari so zegoen basoan murgildurik trukaturako hitz goxoak. Bai eta zure musuei arroz-esne zaporea hartzen ziela xuxurlatzen zizkizun momentuak, kanela puntu bat ezkutuaren zeramatenak. Horiek ziren okurrentziak, garai haietan zeure maite Thomek zituenak. Gehiegitxo dira orde laurogei urte, hori dena oroimenean ezkutaturik mantentzeko.

Azkenik, hartu duen erabakia aurrera eraman nahian zanpatu du gelako argiaren botoia. Betiko moduan. Ezker eskuaz. Jarraian, uso mezulari bat balitz bezala sartu da gelan, inertziaz. Haizearen bultzada hutsez hegatzan den uso mezularia balitz. Larrialdi mezu bat daraman uso zalantzatia.

Begiak ixtearekin bat zabaldu du leioa irudimenaz baliaturik. Ondotxo ezagutzen duzu zeinen imajinazio-itsasoa gordetzen duen. Kanela puntu bat ezkutuan zeramaten arrozene-zaporeko musuak...Ero halakoa.

Ostera, hego zaharkituak zabalduaz eta irribarrea aurpegian margoturik, bertatik jaurti du bere gorpua. Baina paradisu honek ez dio asko iraun. Kanpoko trumoi-hotz batek bueltatu du gizona une honetantxe diharduen gelara.

Maiatzeko egun hartan nobela idazten hastearekin bat jantzi zen koarto zuria atmosfera neutroaz, gaur arte bere eleberria burutzen hainbeste lagundu dion atmosfera misteriotsuaz.

Bada mende erdi baino apur bat gutxiago hori jazo zenetik. Ezkontza-eguneko hamabosgarren urteurrenean oparitu zenion idazmakinarekin jolas ezkutuetan hasi zenetik. Inoiz izan ez duen errebelatu gabeko maitalearekin zuen harreman ezkutua balitz.

Gogoratzen al duzu idazle izateko ideia proposatu zizun gaua?

Nola ez. Zineman egona zen anaiarekin. Detektibe film bat ikusten edo.

Ezuste aurpegiarekin «hi burutik hago, motel!» erantzun eta barre burlatiaz jarraitu zenion patatak zuritzeari.

Hi burutik hago, motel...

Besterik gabe pareta birjinek babesten duten giroa erdi-bitu ondoren, argiaren botoia zanpatu duen esku berberarekin atzeratu du agureak kirrinkaz erantzun dion aulkia.

Murgildu da berriro ere bere rolean Thomas, eta pare bat orri mutu hartu ostean otso goseti bat lez asetu du idazmakina kuttuna. Ekin dio jarraian euren aurpegia zirikatzeari. Baina badaki eta ondo jakin gainera, hau izango dela egingo duen azkena. Honi bizia luzatzea azken urteetako helburu bakarra izan duen arren, eleberrria hiltzear dagoela adierazi dio erresuminez kontzientziak.

Bai zuk eta bai berak. Biok dakizue hau izango dela detektibe alu horrekin igaroko duen azken ordua.

Eta inoiz aitortu ez diozun arren, gustura azalduko zenioke gizonari ez dela samina bakarrik denbora honetan guztian akonpainatu zaituzten pertsonaia akabatu beharrak sortzen dizuna.

Esango zenioke miramendu gutxirekin zelan sentitzen zaren, behin batean zeuen arteko harremana zapuztea lortu zuen detektibearen heriotzagatik.

Dolumin eta goraintziak bere familia irudimenezkoari. Lagun eta ingurukoei.

Baina ezagutu zineten arrats hartatik honaino egin duzunez, irribarre batekin erantzutera mugatzen zara. Bai ene Thom, zuk esan bezala...

Eta utzi duzu gizona ere, penak bere modu bitxiaz koartoaren hutsean azaltzen. Pagoak neguan burusoiltzen diren pareko, bere samina biluzten.

Hau da hau kasualitatea. Hori diozun heinean pausatzen duzu arreta zeuk ere berak hainbestetan amestu duen leihora. Gelan bezalaxe kanpoan ere negua da.

Hasi da adinekoa azkenekoz idazmakinarekin dantzan. Maitaleek elkarrekin dantzatuko duten azken tangoa:

«Pierre detektibeak kale egin zuen. Ulertezina bazen ere, porrot. Inspekzio lanetan murgildu zenetik zuen kasu hau aztertzeke gura, eta baziren jada pare bat hilabete azkenik hiltzaile saileko hilketaren kasua berak eramatea lortu zuela. Sherlock Holmes berberak inoiz biluztu ezin izan zuen misterioa berak argitzea, benetan ideia dirdiratsua. Argi gehiegikoa aukeran. Izatez, huts egin baitzuen. Eta urtarrila zein otsaila Dubois doktore maltzuraren susmotan igaro ondoren ohartu zen hura ez zela hasieratik uste izan zuen bezala, hilketaren buru. Baina zerk aldarazi zuen detektibea susmoz?

Detaille tuntun bat, soilik zigarro arrasto bat.

Erakin zaharreko eskailerak azkar batean igo ondoren, sartu zen James hildako bankariaren bulegoan, bertan Dubois aurkituko zuelakoan. Eskua sutan ere jarriko lukeen hura frogatzeko. Baina baita erre ere. Haritzezko altzariz josirik zegoen langela hartan ez zen ez doktorerik

ez Jesukristorik... Zigarro kondar bakun bat besterik ez, oraindik ere itzaltzekotan. Putza. Horrek planak aldatzen zituen. Doktoreak birika ezkerra galdua zuen, laurogeita hiruko abenduan Marcel's lantegiak sute baten erruaz eztanda egin zuenean. Garai haietan doktorea txokolate-gile moduan zebilen enpresa hartan. Aita laguntzen zuen nerabe koxkorra.

Orduz geroztik arnas arazoak izan zituen, laburbilduz, zigarroekin lardaskan aritzea ez zen ez bere espezialitate nahiz plazeretako bat. Hortaz amorante ezberdin bat izan beharko luke aurrean zuen tabako hoditxoak. Baina, nolatan? Doktorea hildakoaren bulegotik pasata ez bazen...

Zer zen hori?, Karmin arrasto bat zigarro ertzean?. Gizonak emakume bakar batekin identifikatuko luke gorri sentsual hura. Chanel edo Dior ezpainetakoa, ziurrenik.

Eta une hartan ulertu zuen dena, era berean ulertzeari uzten zion heinean. Ez zen ez azken egunetakoa egindako hutsa. Hilabeteak zeraman bide okerretik. Betaurrekoen parean izan zuen une oro Antoine bankari aberatsaren emazte Aurelie, eta berarekin elkarbanatu kasuan egiten zituen aurrerakuntza guztiak. Laudoriotan ere aritu ziren elkarri aldi pare batean edo.

Nolatan ez zen lehenago ohartu? Pierrek bakarrik zekien poliziek hilketa jazo zen despatxua aztertu ostean irekiko zen data. Berak eta hildakoaren mediku birika bakarrekoak. Eta besterik gabe komentatu zion pasa den egunean defuntuaren emazteari. Bai data eta bere plana, alegia, doktorea senar ohiaren objektu baliotsuak lapur-

tzen harrapatzearen asmo hura. Akats bikoitza. Bere betaurrekoetako kristal lodien graduazioaren modukoa. Putza.

Eta orain jada beranduegi zen ezertarako. Izanez, emaztea pasata baitzen bulegotik ordurako. Objektu balio-tsua poltsikoratuak zituen, eta zergatik ez, bide batez barre apur bat egina zuen detektibearen kontu. Amaitua zen dena beraz.

Pierre Chavanel, 101. Kasua: porrot.

Ez zen ezertarako gai. Ez zuen bankari baten emazte zikinaren iruzurra antzemateko adina bizitasun izan. Eta hain zen ona gure inspektorea non ezin errua onartu, ezin bere akatsa azeptatu. Ezin, «Mea culpa»rik irentsi...

Besterik gabe, oraindik mahai gainean poltsa batean babesturik ziharduen pistola hartu, eta txoririk gabeko gau hartan arima bat gehiago joan zen hegaldatzera.

Au revoir...»

Eta hauxe izan da dena. Hemen duzu, hainbeste denbora eman eta kendu dizuen detektibearen destino krudela.

Ze pena, pentsatzen duzu zeuk, Claris. Benetan lastimatzen zara Pierreri kasua honela irten izanagatik. Uste duzu, senarrak inoiz sortu ez zuen Sherlock Holmesek, argituko lukeela zailtasunik gabe misterioa. Baina honek ez ordea. Pierre traketsegia dela deritzozu, zer edo zer burutzeko. Baldarregia hiltzaile ziztrin bat topatzeko. Kasuarregia, Thomas eta zure artekoarekin amaitzeko.

Baina zer uste ote du Thomasek, ene Claris?

Teklatuan puntua zapaldu eta esaldiari amaiera jartzeaz bat, eleberritari amaiera jartzeaz bat jarri dio amaiera barruan bizirik ziharduen zerbaiti. Tiro horrek, ziur, Pierreri bezain min handia eragin dio gizonari.

Eta zuk ondotxo espero zenuen hau, urte guzti hauetan jakin izan duzu lehenago edo beranduago helduko zela amaieraren amaiera. Eta azkenik hemen da.

Bera ordea, lanpetuegi aurkitu da zuk akatsez oparitutako idazmakina baten bizioetan, hain itxarotekoa zenuen amaiera luzatzen. Berari ere bizia luzatuko balio. Eta ez da, nolabait esateko, detektibea ez zen inortaz kezkatu.

Arratsalde hasieran egin duen moduan zuzendu du burua ametsetako leihora, eta... zer nolakoa den bizitza. Bere lau nobeletako azkenean bezalaxe, kanpoan ere negua da. Urte mozkor hauetan bion artean izan duzuen negu hotza bezalaxe.

Makurtu du burua, berriro ere idazmakinara. Baztertu du alde batera tintaz zikindutako orri mordoa eta sartu du birjin bat. Oraingo honetan, bakar bat besterik ez.

Ez da ez tiro bat bihotz barnean sentitu duena Pierrek abandonatu duenean. Zuk oraindik zertan dabilen ulertzen ez duzun arren, «au revoir» horren gainetik daude bere asmoak.

Eta hasi dira bere hatz zimurrak berriro ere ajaturiko teklen gainean tango biziaz.

Vendredi le 13 décembre, 1971. Moulins, France.

Ene maite Claris:

Voulez-vous danser avec moi?

*Oraindik ere arroz-esnea gustuko duen laurogei urteko
gizon zahar honekin?*

Je t'aime, fleur de mon hiver»

Thomas Batignol.

Eta zuk, Claris, dantzatu nahi zeure senarrarekin?

Hurbildu zara bere bizkar atzera, eta eskuekin laztantzen duzun heinean, duela puska bat bezalaxe pausatzen duzu berriro arreta berak hainbeste amesturiko leihoan. Hau da hau kasualitatea. Gelan bezalaxe kanpoan ere negua itzaltzen ari da.

Blas

Maialen Akizu Bidegain
J.M. Iparragirre institutua
Urretxu

– Gora, Blas. Altxa zaitez, eguna argitu du eta. –Be-
giak ireki eta neska gazte bat dut parean. Amatxo. Neska
eder askoa da, ilea bilduta darama eta bata zuri bat du
jantzita soinean. Azal leun-leuna du eta irribarre zabala.
Ohetik jaikitzen lagundu dit, baita etxeko zapatilak ekarri
ere, eta besotik helduta eraman nau pasilloan aurrera. Ez
dut gogoan besteetan horren jator egon denik, baina ho-
rrelakoetan isilik egon eta eskertzea izaten da onena, ama
haserretzen denean ez baitu horrelako azal leunik izaten,
ez eta irribarre zabalik ere. Nik ama hau nahiago dut.

Sukaldera eraman nau. Aulki batean jesarri, eta gosaria
ekarriko zidala agindu dit. Ingurura begiratzen hasi naiz.
Beste hamar bat mahai daude, hainbat aulkirekin, denak
zuri-zuriak. Harritzekoa. Gure etxean zaila baita hainbeste
lagunen artean zerbait horren garbi izatea. «Gaur, Luisek
majo egin du lan! Nabari da bai Gabonak ate joka ditu-
gula, honek ere paga estraren bat nahiko du. Ez da ez gaur
jaiotakoa.

Luis gure etxeko morroia da. Tipo mardula, batzuetan
astakiloa, baina inoiz ikusi dudan gizon indartsuena da.
Estanis nire anaia eta biok esku bakarrarekin altxatzen gin-
tuen. Gu maiz aritzen ginen bere kontra pultsuak egiten,

beti galtzen genuen arren. «Hik ezkerreko behatz txikia-
rekin eta gu biok eskuineko eskuarekin, ados? Oraingoan
jai daukak gurekin, Luis!». Indartsu hasten ginen anaia eta
biok, baina bestea ez zen mugitu ere egiten. Hantxe *kieto*,
bere begi eroriekin begira-begira genuela. Zirenak eta ez
zirenak egin ditugu Luisi irabazi ahal izateko, baina ez
dugu inoiz bera izerditzetik lortu. Lagunek behin eta ber-
rrez aipatzen dituzte *Urtainen* azkeneko balentriak, baina
ni ez ninduten batere aztoratzen horiek:

– Horrek eitten dittunak ez dittuk ezer gure Luisek
ein ditzazkenan alden. –Lagunak askotan haserretu egiten
dira. Harroputz bat naizela esan, eta joan egiten dira. Ni
ere ez naiz euren atzetik joaten. Bai zera!. Horixe behar
genuen!. Besteei begira egonez gero ez dela inora joaten
esaten dit amak, eta arrazoi osoa du.

– Gosaria hementxe. –Ama etorri da berriz eskuan ban-
deja bat duela, gainean katilukada bat esne, eta txokola-
tezko lau bat galleta. –Nahi badituzu tostadak ere badaude.
Baina aurretik –eskua poltsikoan sartu du eta gozoki pilo
bat atera du. –Lehenengo hau hartu behar duzu. Ea ireki
ahoa, hemen duzu ur pixka bat laguntzeko.

Ikaragarri gustatzen zitzaizkidan litxarrerriak. Bi aldiz
pentsatu gabe, lehenengo agindutakoa ahoan sartu nuen
esan bezala, baina ez nuen ulertzen zergatik eskaini zidan
ura basoan. Noiztik hartzen dira gozokiak urarekin lagun-
duta? Euren zapore gozo dena galtzen dute eta. Arraro xa-
marra zen amak horrela eskaintzea gozokiak. Zeini eta niri?

Urtero izeba Prantxikak Paristik ekartzen zigun ka-
ramelu kaxa bat. Gure izeba serora moduan aritzen zen

bertako eliza batean eta Gabonetan soilik ikusten genuen. Karameluak opari gisa ekartzen zizkigun eta gure etxean kolorezko pote batean sartzen genituen. Oso okasio berezietan ematen zigun amak bat edo beste. Nota garaian batzuei, Mariari batez ere. Sekulako notak ekartzen zituen etxera etxeko txikienak, eta sari gisa beti karameluren bat ematen zion amak. Nik, ordea, banekien ez nuela ikaske-tengatik saririk eskuratuko, baina nola geratu ba gozokirik gabe! Egun batean potea lapurtzea otu zitzaidan.

Udazkeneko egun eguzkitsu bat zen eta mendi aldera joan nintzen pote preziatua besapean nuela. Bertan etzan, eta astiro-astiro jaten hasi nintzen. Lehenengo bat, ondoren beste bat, beste bat... hura plazerra! Konturatzera potea hutsik zegoen, nire inguruan paper koloretsuak bakarrik zeuden. Begiak itxi nituen, eskuak sabelean jarritz, nuen betekada pasatzeko asmotan. Bat-batean amaren aurpegi haserretua etorri zitzaidan, eta anai-arreben mehatxuak pote preziatua hutsik aurkitzean. «Ustel halakoa! Astebeten ximaurre bakarrik jatea mezi dek!», «Nik tripea ireki ta kamelu danak ateako nizkikek banan-banan!». Dardara batek mugiarazi zidan bat-batean gorputz osoa eta zer edo zer egin behar nuela pentsatu nuen. Hurritz bat ikusi nuen parean, hurrez betea, garaia baitzen, eta ideia zoragarri bat otu zitzaidan orduan. Kostata goraino igo, hur dezente sartu poltsikoan, eta hortzen laguntzarekin oso-osorik zuritu nituen. Ondoren pazientziarekin koloretako papertxoetan txukun-txukun bildu, eta pozik abiatu nintzen baserrira. Igande bat zela uste dut berriz ere potea ireki genuen eguna. Amaren Tolosako lehengusina genuen gonbidatu gisa gurean, eta kafea hartzerakoan, amak platertxo batera pasta batzuk eta gozokiak atera zituen.

– Hara zeinen paper polita duten gozoki hauek –esan zuen amaren lehengusinak, bat hartu eta papera kenduz.

– Bai, Paristik ekartzen zizkigun urtero ahizpak, oso onak izaten ditun –erantzun zion amak, berak ere bat hartuz. Baina ahoan sartu ahala aurpegi arraroak jarri zituzten biek ere.

– *Frantsesito* hauek tontoak ditun! Izugarrizko lana hartzen dituen hauek egiteko eta guk, eskura zeuzkanagu basoan pixka bat ibiliz gero. Hurren antzekoak ditun eta.

– Bai, bai. Eurek ez dituen halakorik izango eta badakin, zer edo zer asmatu behar saltzeko. Hala ere, badituen gozo gustu bat –gehitu zion amak ingurura begirada zital bat eginez.

– Niri izugarri gustatzen zaizkidan hurrak. Intxaurrak baino nahiago ditinat. Gainera bitamina asko omen dituen. –Gonbidatuak gustura jan zituen beste hiruzpalau «*frantses gozoki*» eta han aritu ziren elikagaien garrantziaz berriketan.

Duela gutxiko oroitzapen haiek gogoan nituen bitartean, ahoan nerabilen gosariarekin batera erretiluan ekarritako karamelua, gora eta behera, baina ez nion gusturik hartzen.

– Ama, honek ez du batere gusturik.

– Horrela ez, Blas. Irentsi egin behar duzu, edan ezazu ur pixka bat. –Bi aldiz pentsatu gabe amak esandakoa egin dut, baita beste lauzpabostekin ere. Baina egia esateko ez zeuden batere onak. Nik uste pasatuta zeudela eta horre-

gatik eman dizkidala niri. Baina beno, ondorengo gosaria itzela izan da.

Gailetak? Noiz ikusi dira etxe batean gailetak? Irargarkiak ikusiak nituen baina inoiz ez nuen horrelakorik jan. Aurreko eguneko ogi zaharra. Hori izaten zen gure eguneroko gosaria. Gustura gainera ogia sobratuz gero. Ez dakit, ez diot batere usain onik hartzen honi denari. Ez du ba etxetik joatea nahiko eta horregatik ari zait gozo-gozo hartzen? Gure etxean asko gara baina hamabost urterekin, nora joango naiz ba?

Apurrik ere ez dut utzi mahai gainean. Dena jan dut oso-osorik. Ez zegoen txarra. Hala ere, esnea ez zegoen bestetan bezalakoa. Hau ez zen gure behi Felisaren esnea. Antoniok, anaietan zaharrenak, behia jecten zuenean denoi deitzen zigun. Korrika joaten ginen ukuilura eta baldetik katilu batekin hartzen genuen esne jetzi berria. Epel-epela, jetzi berriaren gustu horrekin, goialdean aparra zuela... hori bai esnea!

– Joango al gara paseo bat ematera? –proposatu dit amak.

Zer erantzun ez nekiela gelditu naiz. Paseatzera? Belar txarrak biltzetik edo behiak larrera eramatetik alde handia zegoen paseatzera. Bere bi begiei begira so jarri naiz. Begi urdinak ziren, udako zerua bezain urdinak, eta udako zeruak transmititzen zuen lasaitasuna zuten hauek ere. Amatxo? Ama alargun gelditu zen nik zazpi urte nituela eta lan handia egin beharra izan du familia aurrera ateratzeko. Behin begiratu nion begietara eta begi beltz-beltzak zituela ohartu nintzen, inguruan zimurrez inguratuak. Zimur bat pena

bakoitzagatik. Mesfidati aurpegiarekin begiratzen nion, baina, bera ez zegoen nire erantzunaren zain, aulkitik altxatzen lagundu, eta berriz ere besoa eskaini zidan. Nik heldu eta poliki-poliki atera ginen kanpora. Eguraldi ederra zegoen. Baina, leku hura arrotza egiten zitzaidan:

– Begira, begira horko zuhaitz horretara. Txepetxa dago adar batean. Ikusten al duzu?

– Txepetxa? Zer da hori?

– Bai, txori txiki hori. Guri begira dago gainera. Amezketa horrelakoak izango zenituzten. Zure herrian, Blas.

Amezketa? Zure herria. Amezketa. Txepetxak? Bai, gogoan dut, horiek aitari izugarri gustatzen zitzaizkion. Txepetxak. Bazituen ere bertso batzuk txori horri jarriak. Begira gelditu nintzen. Polita zen egia esan, guri begira-begira, txiki-txikia. Halako batean, begira geundela ohar-tuta edo, bi hego txikiak zabaldu eta joan egin da. Urruti.

– Zeinen polita, e Blas! Auskalo nora joango den –Nik banekien nora joango zen. Amezketara. Nire herrira.

Aurrera segitu dugu, patxadan. Neska hark kontu-kontari jarraitzen zuen. Urtaroei buruz hitz eginez, naturari buruz, koloreei buruz... Ez nekizkien gauza asko kontatu dizkit, eta nik pozik entzuten nion. Halako batean, buelta erdi eman, eta etorritako bidetik itzuli gara. Berriz sartu gara etxera. Egia esateko oso nahastuta nengoen. Baserri itxurarik ez bainion hartzen eraikuntza hari; ez zuen si-maur usainik, ez animala hotsik, eta dena txukun-txukun zegoen. Hau ez da nire etxea. Non nago bada? Zein da

ondoan dudan emakumea? Zer egiten dut aitona-amonez beteriko leku honetan?

Barrura sartzerakoan, berriro ere, aulki batean jesar-tzen lagundu dit emakumeak eta momentu bat itxaroteko esan dit. Ni ingurura begira gelditu naiz, ea barnean nuen galderen erantzunetakoren bat bilatzen nuen. Baina, geroz eta denbora gehiago egon begira, orduan eta galdera ge-hiago etortzen zitzaizkidan burura.

– Begira zeinen sorpresa ederra, Blas! Ikusi zein etorri den zu bisitatzera –emakumearekin beste andre bat ze-goen. Hau baino txikixeagoa, zimur gehiagorekin eta ilea ondo orraztua zeraman. –Bakarrik utziko zaituztet. Zerbait behar baduzue, deitzea besterik ez duzue, ados? Ala, ondo pasa.

Emakume gaztea joatearekin batera duela gutxi etorri-tako andre hura nire ondoan jarri da. Bi eskuak hartu, eta bere eskuen artean bildu ditu. Hotz-hotzak zituen, baina goxoak, ezagunak. Begietara begira-begira nuen.

– Zer moduz zaude? –galdetu dit. Nola egongo nintzen ba, beti bezala! Beno, egia esaten hasita neska gaztearekin hobeto nengoen berarekin baino eta horregatik isilik ge-ratu naiz. –Ba al dakizu zein naizen? –Begietara begiratu diot honi ere. Begi beltzak zituen eta oso ezaguna egiten zitzaidan begirada. –Zure emaztea naiz, Blas, Karmen. Ez al zara nitaz akordatzen? Hainbeste urte elkarrekin eta orain hitzik ez al duzu niretzat? Majo lagundu dizut ba, hainbeste sufritu dut zugatik. «Setenta y seixen» ezkondu ginen, Amezketan. Ni zuriz nindoan, eta, zu, berriz, gor-

batarekin, dotore-dotore. Egun zoragarria izan zen. Ez al zara ezertaz akordatzen?

Ez nion ezer ulertzen. Zer ari zen esaten emakume hura? Malko bat erori zaiola sumatu dut nire ezjakintasunarekin, baina barrura zintz egin eta aurrera segitu du.

– Momentu ederrak bizi izan ditugu batera. Behin, ochenta y unon, oker ez banago, Asturiasera joan ginen oporretara. Itzela izan zen. Eguna hondartzan pasatzen genuen eta azkenerako erreta bukatu zenuen, –keinu ezjakin bat egin nion orduan –bai, zuk. Bost egun pasa genituen bertan. Egun haietako batean, sagardoa erosi genuen etxekoei emateko, kaxa bat edo. Eta ez genuen ba dena bion artean hustu! Egundoko aitzurra harrapatu genuen.

Barrez hasi zen gelditu ere egin gabe, eta gero bat-batean negarrez. Poltsatik musuzapi bat atera eta begiak lehortu ditu. Nik begira-begira jarraitzen nion. Adarra jotzen ari ote zait? Berriz hizketan hasteko gogoia zuela sumatu diot baina aurretik arnasa sakon hartu eta hasperen sakon bat egin du.

– Joango al gara kanpora pixka batean? Eguraldi ederra daukagu. –Besoa eskaini dit honek ere eta biok atera gara aurretik egondako lekura. Berriketa-gairik ez zitzaion falta. Lehengo neskak txoriak, koloreak, urtarook... mila gauza kontatu eta irakatsi zizkidan. Oraingo emakumea ere ez zen atzean gelditzen. Honek, ordea, beraren arabera, biok bizitako kontakizunak kontatzen zizkidan. Nik buruarekin baietz egiten nion, nahiz eta tutik ere ez ulertu.

Bat-batean dena ulertu nuen. Etxe hura, egoera hura, emakume haiek... bai, guztia argi zegoen. Amak beti esaten zigun *internado* batera bidaliko gintuela ikastera; hobeto egongo ginela bertan, gauza asko ikasiko genituela eta leku nahiz jende berriak ezagutu. Eta lortu zuen. Bai hura internado bat zen. Arrazoi osoa zuen amak. Gauza asko ari nintzen bertan ikasten; txorien izenak, koloreak, urtaroak... bata zuriko emakume panpoxa oso maistra atsegina zen.

Eta ondoko emakume hau berriz... bai, badakit nor den. Asko lagundu didala dio, asko sufritu duela nigatik eta nik ez dakit zenbat gauza gehiago. Gainera begi beltz horiek... ezin dira beste inorekin nahastu. Bai, bera da, gure ama da. Senartzat hartu nau, gauza asko ari zait kontatzen; hala ere, gehienak gezurrak, asmatuak, ochenta y uno-ko kontuak. Baina nola biziko nituen istorio xeble haiek, artean existitu ere egiten ez banintzen. Adinak ez du barkatzen eta gajoa burua galtzen hasia da. Baina lasai ama, nik lagunduko dizut.

Haran isila

Ibai Esnaola Barriola
Orixe institutua
Tolosa

I

Goian, zerua. Behean, infernua. Iritsi nauk behingoz bien arteko mugara.

Hau izan zen Tribhuvan aireportua zapaltzean egin nuen lehen gogoeta.

Erronka handia izan zen niretzat Euskal Herria atzean utzi eta Nepalera bidaiatzea, neure kabuz soilik.

Umetatik izan nuen herrialde isolatu honekiko jakinmina. Beti atsegin izan ditut mendiak. Haurtzaroan maiz igotzen nintzen herriko muinoetara aitarekin, eta hazi ahala, nire zaletasunik handiena bihurtu zen malda handietan gora ibiltzea. Berezia zen mendiekiko nuen lotura. Aske sentitzen nintzen bertan.

Bada, aspalditik izan nuen Himalaiako mendikatea ezagutzeko ametsa, bereziki Everest mendia ikustekoa. Gailurretan garaiena. Hogei urte bete nituen udan erabaki nuen Nepalera, munduko sabaira, joatea.

Gizon gaztea nintzen eta sasoi ezin hobean nengoen, nire nahia betetzeko. Gertu nengoen, *trekking* edo hainbat

egunetako mendi ibilaldia egiteko. Mendizale porrokatua izaki, gogotsu nengoen bidaiatzeko, eta ohartzerako, Kathmandura, Nepaleko hiriburura, heldu nintzen Madrildik abiatutiko hegaldi luze baten ostean.

Jakinaren gainean egotea komeni zen, Nepal bezalako herrialde behartsu batera joateko. Errupiak neramatzan diruzorroan eta nepaldar hizkuntza ez nekienez, ingelesez mintzo beharko nuen.

Bizkar-zorroaren zama gainean neramala, itxurazko ostatu baten bila hasi nintzen aireportutik irten ondoren.

Zerua oskarbi zegoen eta hezetasun handiko beroak inguratzen ninduen, montzoi aldiaren amaiera hautatu bainuen hara joateko, eurite etengabeen menpe ez ibiltzearren.

Ez zen oso handia Kathmandu, baina behin hirian murgilduta, bertako jendetzaz jabetu nintzen. Milaka pertsona hara eta hona, kale estu eta narratsetan zehar, beren eguneroko zereginetan: merkatariak oihuka, kolore guztietako espezie usaintsuak saltzen, haurrak oinutsik errepidean futboleak jokatzen, behi konkordun sakratuak lurreko zabor ugaria lardaskatuz, zakur hezurtsuak azokako oiloei irrikaz begira, gazteak euren bizikletei erantsitako gurdietan turistak garraiatzen... Eromena. Jendez leporainoko autobus zaharrak eta motozikleta zaratatsuak ero moduan igarotzen ziren oinezkoen artetik. Hori gutxi balitz, giza izerdiaren usainak, lantegietako kedarrek eta abereen kiratsak goragalea eragin zidaten.

Gorantz begiratu nuen. Eraikuntza ugari zegoen kale nagusia zirudien kaos hartan, eta horiek uztartuz, kolore-

tako zapiez apainduriko hari luzeak nabarmentzen ziren. Nepaldarrek ohituraz jartzen omen zituzten otoitz-bandera haiek, beren ingurua bedeinka zezaten.

Baina horien guztien gainetik himalaiar mendi zoragarriak harro nagusitzen ziren zeru urdinean, betiko elur dirdaitsuz estalirik. Everest handia ere han nonbait egongo zen, laino artean galdurik, tontorraz zerua urratuz.

Hiriko mapa bat erosi eta batera eta bestera ibili ondoren, Vishnumati hotelean hartu nuen ostatu azkenean. Durbar plazatik hurbil zegoen ostatu apal bat zen, eta merke irten zitzaidan bertako egonaldia. Zerua iluntzen ari zen eta goi mendietako haitz gorriei egin nien so. Nekeak hartu ninduen, nire logelan sartu, bizkar-zorro astunak hustu eta ohe gainera jausi nintzen.

II

Egunsentiko argi zuriak esnatu ninduen. Egun hartan hasiko nuen *trekking*-a eta sekula baino sutuago nengoen. Ibilaldi luzea egiteko ezinbestekoak nituen tresna guztiak ni baino handiagoa zen fardelean nolabait sartu, eta zama bizkarrean neramala, hoteleko kafetegira joan nintzen, baraurik ez abiatzarren.

Ostatua uztean, hiriko lasaitasunak arras harritu ninduen, kaleetan jende anitz bazez ere. Goizeko haizekirri epel eta atsegina zebilen, giro aproposa naturaz gozatu ahal izateko.

Bodnatheko estupa liluragarriaren ingurutik ekingo nion *trekking*-ari, gero Everesteko itzulia egitea hautatu

bainuen. Ez nengoen gertu munduko gailurra zapaltzeko, baina bere magalean ibiltzea aski zen ene zorionerako.

Bodnath Kathmandutik hurbil zegoen. Nepaleko biztanle gehienak hinduak diren arren, budistek tinko eusten diete beren ohiturei eta Bodnath bezalako auzo bakanduetan bizi ohi dira, etxola xumeetan. Gizon hauetako asko sherpak dira, atzerritarrei beren ibilaldietan laguntzen dieten nepaldar mendizale trebeak.

Ene zereginetara itzuliz, dendaz josiriko kale bihurri batean sartu nintzen, *trekking*-agentzia bat aurkitzeko asmoz.

Bat-batean, kolpe bortitz batek astindu eta lurrera erori nintzen zakarki. Lasterka etorri zen gizon txiki batek nire aurka jo zuen. Jasotako ezustekoarekin harriturik, ahalbait arinen altxa eta eskua luzatu nion, lurrean intzirika ari zen gizon gazteari. Bazter guztietan lumak zeudela ohartu nintzen eta gizontxoak besapean oilo izutu bat zeramala ikusi ahal izan nuen.

– Barkatu, gazte, ongi al zaude? –galdetu nion kezkatu antzean. Jarraian, urrunetik saltzaile bat azaldu zen lasterka, besoak haserre astinduz, oihuka.

– Lapurra! Ez utzi ihes egiten! Madarikatu horrek oilo bat ostu dit! –egin zidan deiadar.

Gazteari zuzendu nion begirada. Dardarka zegoen, larri. Une batez nahasturik egon ostean, lapurrari besotik heldu, oiloa bertan utziazazi eta kalezulo batean gorde ginen biok.

III

Arnasestuka geunden ezezaguna eta biok. Kalezulo ilun eta heze hartan behintzat, ez gintuen harrapatuko merkatariak. Ziu aski, oiloa berreskuratu ondoren, hanka egingo zuen.

Lapurrari begiratu nion. Ile urria zuen, begi itxiak eta sudur zapala. Nire adin beretsukoa izan zitekeen, eta itxuraz, budista zela esango nuke. Ez zirudien gizon aberatsa zenik. Arnasa berreskuratu zuenean, hitz egin zidan.

– Mila esker, jauna... –esan zuen azkenean.

– Mila esker? –izan zen nire erantzuna– Ez zintudan lagundu behar. Ez dago ongi lapurretan egitea, eta zuk ondotxo dakizu hori!

Gazteari esaldi hark min eman ziola uste dut. Aurpegiak bihotz oneko pertsona zela adierazten zuen.

– Badakit... –aitortu zuen goibel– baina etxola txiki batean bizi naiz ene familiarekin, eta nire ogibidetik ateratzen ditudan xoxak ez dira aski guztioi bizimodu duin bat bermatzeko ere. Nire hiru semeak ikasten dihardute eta emaztea eguneroko zereginez arduratzen da, ni lan bila nabilen bitartean... Horrek bultzaturik egin dut lapurreta –halako batean malko bat isuri zitzaion masail argaletan behera.

– Barka beza Buda handiak egin dudak bekatua, arren!

Errukia eman zidan gizonak. Bere egoera lazgarriaz jabetuta, errupia sorta bat atera nuen diruzorrotik.

– Tori –esan nion dirua erakutsiz– Har ezazu hau. Ez da larregi, baina lagunduko dizu denbora baterako jana eros dezazun.

Ezezagunari begiak argitu zitzaizkion.

– Ez dakit nola eskertu ahalko dizkizudan bi mesede izugarriok jauna. Inoiz ezagutu dudan gizonik eskuzabalena zara, zalantzarik gabe. Nor zaren jakin al nezake?

– Eñaut dut izena. Euskal Herritik etorri naiz Himalaian *trekking* bat egitera –azaldu nion eskua luzatuz.

– Tenzi naiz –esan zidan, eskua gogor estutuz.

– Auzo honetatik gertu daukat etxea. Sherpa naiz izatez, baina Nepal oso behartsua denez, langabezian nago orain, beste asko bezala, eta ezin dut egoera honetan jarraitu.

Hitz hauek entzun ostean irribarre batek alde egin zidan oharkabea.

– Adiskide, sherpa ohia zarela esan duzu, ezta? Gertu egongo al zinateke Everesteko bailaran zehar nire bidelagun izateko? –galdetu nion irrikaz.

– Nola ez bada! –erantzun zuen pozik– Edozertan lagunduko nizuke egin didazun mesedea itzultzeko. Umetatik ezagutzen ditut inguru malkartsuok eta gaur bertan abia gaitzke gainera, eguraldia lagun baitaukagu. Nahi izanez gero, nire etxe apalean bazkal dezakegu eta astebeteko ibilaldia antolatzean, nire yaka zamatatu eta berehala irten gaitzke astebeteko ibilaldia egitera. Zer diozu?

Apur batean gogoeta egin ostean, gogotsu onartu nuen proposamena. Azken finean, ez nuen aukera hoberik lortuko.

– Ados nago, Tenzi!

IV

Bodnatheko auzoa atzean utzirik, muino bakandu batean kokatzen zen etxola batera eraman ninduen Tenzik. Oso txikia zen sherparen bizilekua, harrizko lau hormek eta lasto iharrez eginiko teilatu batek osatua. Otoitz-banderrez josiriko hesi biribil batek inguratzen zuen.

Etxearen sarreran ahuntz talde bat zegoen belarretan bazkatzen, eta hauek zainduz hiru mutiko zueden makila banarekin. Tenziren semeak ziren. Gu ikustean, lasterka sartu ziren etxean eta segundo batzuen buruan, amarekin irten ziren harrera egitera. Tenzik senideen aurrean aurkeztu ninduenean, eskuzabaltasunez gonbidatu ninduten beraiekin bazkaltzera. *Namaskar* esanez agurtu ninduten denak, irribarretsu.

Familia atsegina zen hura. Umeak harriturik ukitzen ninduten, munduko gauzarik arrotzena banintz bezala, eta alai egiten zuten algara hitz egiten nuenean. Tenziren emazteak, bazkari xume baina eder bat atera zigun, arrozak eta haragiak osatua.

Ase nintzenean, Tenzik Everest inguruko zeharkaldia erakusten zuen mapa bat ekarri zuen mahaira.

Denbora luzez egon ginen ibilbidea errepasatzen eta egingo genituen geldialdiak kokatzen. Gizon zuhurra

iruditu zitzaidan Tenzi. Ohitua goi-mendietako biziraupean. Bidelagun aparta izango zen zalantzarik gabe.

Jarraian, Tenzik mapa sakelean gorde eta *trekking*-erako ezinbestekoak ziren zenbait material bildu zituen. Denda esekigarriak eta une arriskutsuetan baliagarri gerta lekizkigukeen soka luzeak gurekin etorriko zen yakak eramateko utzi genituen. Etxeko ukuilutxoan zeukan Tenzik bere yak erraldoia, *Adri* deiturikoa. Zezen iletsu erraldoi honek zintzo betetzen zituen jabearen aginduak, eta bere indarra ezin hobeto zetorkigun zama astunak hainbat egunez garraiatzeko. Bere adar luzeek apur bat izutu ninduten hasieran, baina laster ohartu nintzen abere leiala zela. Tenzik esan zidanez, yakik gabeko sherpa bat, txakurrik gabeko artzain bat bezala da.

Azkenik, otoitz-bandera sorta bat motxilatik zintzilikatu, makila pare bat hartu eta abiatzeko gertu geunden sherpa eta biok. Tenziren senide jatorrak agurtu eta bide bihurri bat hartu genuen, iparrorratza jarraituz.

V

Hiru egun neramatzan Nepalgo paisaia ikusgarrietan zehar, Everest mendirantz hurbilduz. Hiru egun jo eta ke ibiliz, jateko eta lo egiteko soilik geratuz. Nekeak ez ninduen oraindik hartu, belaunetan min apur bat agertu bazitzaidan ere. Denbora laster igarotzen zitzaidan Tenzirekin berriketan, eta ohartzeko, laino artean azaldu zitzaigun munduko gailurraren irudia, urrunean, Tibet eta Nepalen arteko muga ezarritz.

Asko ikasi nuen Tenzirekin nepaldarren ohiturei buruz. Urratsez urrats lagunmin bihurtzen joan ginen. Sherpak esan zidanez, nepaldarrek Sagarmatha izenez ezagutzen dute Everest. Hitz honek zeruaren aitzina esan nahi omen du. Garaienetan garaiena izanik, mendi hau guztiz sakratua da bu-distenzat. *Adri* yaka ere lasai zetorkigun atzetik tarteka marru zakarrak botaz. Iluntzen hasi bezain laster hasten ginen bide ertzean dendak ezartzen, eta zeozer ahoratu ondoren, azkar oheratzen ginen atsedean hartzeko, egunsentian abia gintezen.

Eskailera balira bezala hedatzen ziren arroz baratzak, baso hezeak zeharkatzen zituzten bidezidorrak eta haitz malkartsuak igaro genituen, eta guztiaren gainetik Everest gero eta hurbilago ikus nezakeen. Azkenik, bost egunen buruan, Himalaiako elurra ukitu ahal izan nuen. Hotz eta zurrun zegoen, eta atsegin nuen hura zapaltzean egindako hotsa.

Goi-mendietako horma erraldoiek mugaturiko ibar zabal batera iritsi ginen. Ongi jantziak gineuden, haize izoztuari aurre egin ahal izateko.

Bailaran barneratu ginenean, irribarre egin zidan sherpak.

– Iritsi gara Sagarmatharen magalera, Eñaut, ongi etorri Haran Isilera!

VI

Ederra bezain beldurgarria zen Haran Isila. Izenak berak zioen moduan, erabatekoa zen isiltasuna. Ezer esan gabe gindoazen Tenzi eta biok, liluraturik, isiltasun sakon hura ez etetearren. Astiro genbiltzan elur artean, bizitza-izpirik ageri ez zen mundu hartan barrena. Han goian, Everest.

Orduak joan zitzaizkigun heriotzaren bailara hartan noraezean. Iparrorratza hondatu egin zitzaidan eta sherparen mapa zaharrak ez zigun askorako balio. Oharkabea, galdu egin ginen.

Hasieran lasai geunden laguna eta biok, baina denbora igaro ahala zerua iluntzen hasi zen eta larritasunak hartu gintuen. Lo egiteko lekurik aurkitu ezean gure azkena izan zitekeen.

Bat-batean, haitzarte batetik oinez gindoazenean, orro ozen batek oihartzun egin zuen haran osoan zehar.

– Zer izan da hori? –galdetu nion Tenziri, izaturik. Honek ez zidan jaramonik egin ordea. Begiratu nionean dardarka zegoen, arkaitzaren gainari so eginez.

– Kontuz! Lehoinabarrak dira! –egin zuen garrasi.

Egia zen. Bi elurretako lehoiabar jauzika zetozen gurgana, arkaitzean behera. Handiak ziren, elurra bera baino zuriagoak, orban beltzekin. Gose zeudela ziruditen, eta orro egitean letagin zorrotzak erakusten zituzten.

Adri ere jabetu zen arriskuaz eta marruka, ihesari eman zion gurekin batera, maldan gora. Alferreko ahalegina izan zen ordea, lehoiabar bizkorrek laster harrapatu baizuten yaka. Bietako batek, bortizki sartu zizkion haginak animaliarri. Tenzi nahigabez oihuka hasi zen, piztiak bidali nahian, eta *Adri*-ren marrua benetan lazarria izan zen. Hots luze hark, durundi egin zuen inguru guztian, eta ezbeharrrik okerrena jazo zen, oihartzunak elur-jausia eragin zuen.

Lurrikara antzeko dardara batek astindu gintuen. Le-hoinabarrek hanka egin zuten laster batean, *Adri*, lurrean minez utzirik. Halako batean, dardar batean ikusi ahal izan genuen gainera zetorkigun elur hautsezko uhin erraldoia. Garrasi artean, ez genuen elurroldea sahiesteko astirik izan, eta ohartzerako ezerezean murgildu nintzen.

VII

Sinestezina bazen ere, nire onera itzuli nintzen. Ez dakit zenbat denbora neraman elur geruza haren azpian, harrapaturik, baina bizirik nengoela ohartu nintzen. Izozturik nengoen. Ahalegin handiz, elurpetik irtetea lortu nuen, gorputzak erantzuten zidala ziurtatuz. Zutik jarri eta apur bat garbitu nintzen. Hotzaren hotzez zurrundurik nituen atzamarrak.

Ingurura begiratu nuen. Ez zegoen sherparen eta yakaren arrastorik. Elur gainean, Tenziren makila bakarrik ikus nezakeen.

Geratzen zitzaidan indar apurra erabiliz, zulotxo bat egin ahal izan nuen makila zegoen tokian, eta minutu batzuen buruan, Tenziren besoa azaldu zen elur artean. Aurkikuntzaren pozak eman zidan ahaleginarekin, azalera atera nuen laguna, eta lurrera jausi nintzen, lur jota.

Elur ekaitz bortitz bat hasi zen. Indarrik gabe, apurka itzaltzen nindoala nabari nuen. Begiak itxi aurretik, irudi lauso bat ikusi ahal izan nuen nigana hurreratzen. Ezin izan nuen bereizi zer izan zitekeen, baina izaki ilun eta handi bat zela esango nuke.

VIII

Bero zegoen. Gorputz guztia minberaturik neukan baina bero atsegin batek inguratzen ninduen. Begiak zabaldu nituen. Ohe batean nengoen, sutondo eta guzti. Ezin nuen sinetsi nola iritsi nintzen haraino. Oroi nezakeen azken ekintza, Haran Isileko elurroldetik onik irten nintzela zen.

Jaikitzen ahalegindu nintzen, baina ahots ahul batek eten ninduen.

– Etzan lasai gazte, atsedena behar duzu eta.

Logela behatu nuen. Ohearen izkinean agure bat zegoen eserita, kikara batetik zurrut eginez. Burusoila zen, bizar zuri luzekoa. Tunika gorrimin bat zeraman gorputz hezurtsuaren soinean eta budista begitandu zitzaidan.

– Non nago? –galdetu nion, zeharo nahasturik.

– Ez kezkatu –egin zuen barre, bere hortz urriak erakutsiz– Budaren santutegi apal batean zaude, Sagarmatha handiaren magalean. Bertako monje nagusia nauzu ni. Te pittin bat? Esan zidan edalontzi bat eskeiniz.

– Ez, mila esker –esan nion urdaila hutsik nuen arren– Baina esadazu, jauna, nola iritsi naiz honaino?

– Egia esan, zeuek azaldu zarete tenpluaren ateetan kordea galdurik, zu eta zure laguna.

Bat-batean Tenziz oroitu nintzen. Hura ikusi nuen azken unea, elurpetik atera nuenenekoaren zen.

– Onik al dago bera? –galdetu nuen larriturik.

– Lasai, gazte. Ondoko logelan dago, oraindik susper-tzeke.

Hasperen egin nuen, baina zur eta lur utzi ninduen Haran Isiletik bizirik irten izanak.

– Hala ere –hasi zen monjea– gehien harritu nauena zure fardelean azaldu den adats bitxi hau izan da Adats arre luze bat erakutsi zidan apaizak. Ilea ongi aztertu nuen, baina ez nuen haren jatorria ezagutzen.

Erabat osatu nintzenez, eurekin bazkaltzera gonbidatu ninduten tenpluko monjeek. Bertan elkartu nintzen Tenzi-ekin. Bikain zegoen hau ere, eta ni bezain harriturik. Pozez zoratzen geunden biok, elurroldetik bizirik irten ginelako, baina *Adri* yakaren galerak goibel utzi zuen sherpa.

Arratsalde guztia igaro genuen jazotakoari buruz hitz egiten, eta ezin izan genuen nire bizkar-zorroari erantsitako adatsaren agerpena azaldu. Astakeria bat iruditu zitzaidan arren, monjeek Yetiaren ilea izan zitekeela aipatu zuten, eta tenpluraino hark ekarri gintzakeela.

Yetia Nepalgo izaki mitologikorik ospetsuena da. Mendiko zaindari den piztia erraldoi eta beldurgarritzat jotzen dute, harekin gurutzatzen den edonori eraso egitea atsegin duena. Ilea luzedun gizon basati baten itxura omen duela zioten monjeek. Halako batean, zorabiatu aurretik ikusi nuen irudi lauso hura gogoratu nuen. Yetia al zen benetan? Hark salbatu ote gintuen, santutegi honetara ekarriz? Pentsakor geratu nintzen, eta adatsa sakelan gore nuen badaezpada.

Iluntzean, suspertu gintuzten monje jatorrak eskertu, eta autobus bat hartu genuen Kathmanduraino eramán gintzan.

Betiko ariman iltzatuta eramango nuen bidaia amaitzeaz zegoen jada. Lagun berri bat egin nuen, une larriak bizi, baita leku liluragarriak zeharkatu ere, baina horren guztiaren gainetik, nire ametsa bete nuen. Munduko saibaián izan nintzen, eta Haran Isil harrigarrián.

Kathmandura iristean, Tenzi uzteko garaia heldu zitzaidan. Malko artean agurtu nuen, duela egun batzuk ezezagun hutsa zen gizona. Patuak elkartu gintuenez gero, mesede izugarriak egin genizkion elkarri. Nire nahia betetzen laguntzeak, yaka kendu zion, baina hala ere pozik itzuli zen etxera.

Leher eginda, ostate batean sartu nintzen, biharamuanean hegazkina hartu beharra bainuen.

IX

Bi hilabete igaroak ziren jada, Euskal Herrira itzuli nintzenetik, eta bizkar-zorroan agerturiko adats luzea, nirekin ekarri nuen.

Egun batean, ile misteriotsu hura nire adiskide bati utzi nion. Ikerlaria zen bera, eta genetikoki azter zezan eskatu nion. Jakin-minez nengoen adatsaren jatorria ezagutzeko. Himalaian nork edo zerk lagundu gintuen aurkitu nahi nuen.

Monjeen hitzez oroitu nintzen. Ba ote da Yetirik? Zer egingo nuke alegiazko piztia hori badela ziurtatuz gero?

Gogoeta inozo hartan murgildurik nengoela, laguna etorri zitzaidan, azterketa amaiturik.

– Eta? –galdetu nion egonezinez– Zer izakirena duk?

Lagunak bekokia zimurtu zuen, laginari begiratzuz

– Nondik atera duk hik yak baten adatsa, Eñaut?

Hasperen egin nuen, dena ulerturik.

Irribarre bat

Amaia Galarraga Bastida
Urola ikastola
Azpeitia

Azkar doa, azkarregi, eta kontrola galtzen ari da. Bel-dur da, baina berak ez dio kasurik egiten, ezin du ezer egin. Amildegi batera hurbiltzen ari dira, neska oihuka, baina besteak ezin du motorra gelditu. Frenatzen hasi da, beranduegi da, ordea, ez da geldituko, behera doaz zuzenezuzenean. Dena oso azkarra da, amildegiko jauzia, gorputza ezin mugiturik utzi dion mina, sirena hotsak. Ondoren, ezer ez.

Egun bat lehenago...

Jendez beteta dago, ilara amaiezinak, baina hala eta guztiz ere, sarrerak erostea lortu du. Bi ordu eman ditu bertan, zutik eta udako bero jasangaitz horretan harrapatuta, baina merezi izan du. Kontzertura doaz! Maitenak ez du sinetsiko, eta Joana bera ere ezin sinetsita dago. Azkenean, bi hilabete lanean eraman ostean, lortu dituzte talde amerikarraren kontzerturako sarrerak eta bai merezi ere. Oporretan, hondartzan eguzkia hartzen edo mendiko txangoak egin beharrean, han egon dira bata taberna batean lanean eta bestea lau urteko haurra zaintzen.

Orain, egun bat itxarotea besterik ez zaie falta, ia urte hasieratik daramate gau magiko horren zain. Baina lehe-

nik, gaurko gaua eta biharko egun luzea gelditzen zaie eta hiru azterketa bakoitzari. Gero eta gutxiago gelditzen da, jada badator.

Besaulki ilun hori ez zaio inoiz gustatu, oso zatarra da eta bertan denbora asko egoteko gogorregia. Neskarena, ordea, askoz erosoagoa da, eta nolabait esateko, baita politagoa ere. Idazten ari da, beti bezala, galdetu dion guztia koaderno zahar horretan apuntatzen, ezer ez ahazteko, dena kontuan edukitzeko. Bitartean, Iban, ingurura begira dago, hain ezaguna egiten zaion gela aztertuz, zerbait desberdina aurkitu nahian, zortetik gabe.

Gaurko sesioa besteen antzera joan da, betiko galdera berdinak, sentitzen duena azaldu behar duela, pentsatzen duena, eta horiei zentzuzko arrazoi bat aurkitzen saiatu behar dela. Beti berdin. Hasieran ez du ezer esan, ondoren, barruan duena kanporatzen hasi da, eta azkenik, malkoz beteta, haserre baino hutsik, amaitu du. Gero, koadernoan idatzi eta aurrerapauso handia egin duela esan dio. Eraikitik ateratzerako, ordea, beti bezain zorigaitzeko sentitzen da, eta oso-oso haserre.

Beti bezala, berandu dabil. Berriro ere Ibanen errieta entzun beharko du, sesio bakoitzaren ondorengo umore paregabe horrekin gainera. Kaka zaharra. Baina gaur ez da bere errua izan, parean jarri zaion tipo aberaskume horrena baizik. Denak berdinak dira, munduaren ardatza direla uste dute eta beraiek nahi dutena ezin badute lortu, bizitza zein krudela den oihukatzen hasten dira. Eta beti bezala, Mikelek irakasgai bat eman behar izaten dio. Zer jakingo dute bada bizitzaz, dena ez dute bada...

Zain dago, bizkarra hormaren kontra, jada zigarro bat eskuan duela. Haserre aurpegia du, betiko antzera, eta ezagutu izan ez balu norbaitek jipoitu egin duela pentsatuko luke.

– Barkatu, baina oraingo honetan ez da nire errua izan. Ilaran, nire aurrean zegoen aberaskume madarikatu horrek neure onetik atera nau eta sarrerak erosi ostean, irakasgai bat eman behar niola iruditu zait.

– Erosi dituzu azkenean?

Noski erosi dituela, jakingo balu zenbat denbora eman duen zain ez luke sinetsiko, oraindik eta gutxiago dirua nondik atera duen ohartuko balitz.

Eguraldi aparta dago eta horrela jarraituko omen du. Primeran. Gaurko eguna bikaina ateratzen ari zaio Maite-nari. Azterketak nahiko ondo egin ditu, eta gainera, gaur gauean da. Jada ez da ezertxo ere falta.

Norbaitek etxeko txirrina jo du, Joana da. Ezpainetan irribarre banarekin, neskaren gelan sartu dira eta bertan kontzerturako prestatzen hasi dira, tripak dantzan dituztela, eta bozgoragailuetatik ari den kantua gogor abestuz.

Ibanek beste pakete bat ireki du eta lagunak kezkatuta begiratzen dio, baina ez dio ezer esan nahi. Gaur ez du sesiorik izan eta normalean baino urduriago dago eta ez da gauean datorrenegatik. Laster da eguna, jada urtebete, denbora asko igaro da. Baina egun hauetan, gertatutakoren oroitzapenak datorzkio eta sentitu zuen sufrimendu hori berriro ere bertan du, azalean josi izan baliote bezala. Egun hura, aita kalean zen hura. Ama bazkaria prestatzen sukaldean eta anaia txikia egongelan jolasean.

Ordutik ez da etxe horretara hurbildu eta ez da inorekin gertatutakoaz hitz egiteko gai, ezta psikologoarekin ere.

– Tira, joateko ordua dugu, Iban.

– Goazen bada.

Bakoitza bere ibilgailuan, zigarro bana eskuan eta kaskorik gabe, hor doaz ziztu bizian hiriko estadiora, auto guztien albotik eta semaforoak errespetatu gabe. Ia-ia zebra-bidea zeharkatzen ari ziren oinezko batzuk harrapatu dituzte, baina ezerk axola gabe bideari jarraitu diote, atzera begiratu gabe.

– Baina ikusi al dituzu bi horiek? Ia harrapatu ez gaituzte bada!

– Lasai zaitez, Joana, lelo batzuk dira. Eta ziur asko kontzerturako bidean izango dira.

– Hobe izango da horrela ez bada.

– Esan nizun zirrargarria izango zela!

Bi neskak pistan daude, eszenatokitik pare bat metrora jende artean ito beharrean, eta hala eta guztiz ere, inoiz baino pozago bertan daudelako.

– Ai! Ezin al zara kontu handiagoaz ibili?

Joana urduri dago eta bere albotik igaro den mutilari ere oihukatzen hasteko gai da ikututxo bategatik.

Bi begiradak. Bata haserre eta bestea oraindik eta umore okerragoaz, segundu gutxi batzuetan elkartuak.

Eta gau osoa, musika, oihu eta zirrara guztien gainetik, bata bestearen bila, berriz elkartuko diren esperantzarekin.

– Txunditzekoa izan da!

– Ikaragarria!

Bi neskak estadiotik atera eta inguruan dagoen taberna batera bidean dira, gaua amaitzeko gogorik gabe. Jende ugari dabil, gazteak gehienak, eta guztiak kontzertutik atera berriak, festarako irrikitan.

– Goazen hemendik, jende gehiegi dabil.

– Joateko? Festa hemen da, Iban, ez zaitetz inozoa izan eta gozatu!

Besteak ez dio jarraitu, ordea. Ez da lagunarekin horren antzeko eztabaida bat izaten duen lehen aldia. Festa giroa bien gustukoa da, baina alkohola eta motorra tarteko direnean, Iban ez da horren gustura ibiltzen. Lagunari ezin kontra egin, ordea, zein baino zein burugogorragoa, eta badaki, joan nahi badu, besteak ez diola lagunduko.

Barrara bidean dira, jende tartetik bidea eginez eta ahal den moduan hauen edariekin ez bustitzen saiatzen. Neska ilegorri bat du aurrean eta ezin du pasa, itxaron egin behar. Zerbait ordaintzen ari dela dirudi, ez da denbora askoan hor geldituko. Bira eman du eta inguruko norbaitek eman dion bultzadagatik, edalontziko guztia Mikelen kamisetara isuri da.

– Ai ene! Sentitzen dut!

Poltsatik musuzapi bat atera eta kamiseta garbitzen saiatu da, zorte handirik gabe eta gero eta urduriago. Mutila, ordea, lasai dago, neskaren aurpegi kezkatuari gustura begira, irribarre bat ezpainenetan.

– Ez da ezer gertatzen, neska. Gauza bat egingo dugu, ondo iruditzen bazaizu, noski. Ez naiz zurekin haserretuko zerbaitetara gonbidatzen uzten badidazu.

– Ados. Maitena naiz, eta zu?

– Kamiseta alkoholez zikindu diozun mutil ederra eta zerbeza bat ordaindu ostean hemendik ateratzen lagunduko dizuna.

Bikotea tabernatik irten da, lagun bana bakarrik utziz, baina dirudienez, bietako inor ez da horretaz ohartu.

– Nora goaz?

Jada kanpoan dira, kaletik eta jendearengandik urrun, gau ilunean biak bakarrik.

– Zurekin, edonora.

Abiadura azkartu du, neskak gogorrago estutzea eraginez. Irribarre ahoan, haizeak ilea nahasten die. Maitena apur bat beldur da, bestea, aldiz, gustora. Aspaldiko partez.

Ez du ondo gogoratzen azkenengoz horren gustora egon zen eguna, oroitzapena galdua du, igaro izandako momentu pozgarri eta alaien antzera. Alde egin zuten, amak alde egin zuen bezala. Egun batetik bestera. Bera bakarrik utziz. Bakarrik eta oso beldurturik.

Haize bolada batek pentsamendu guztiak uxatu dizkio, ezabatu, eta beste irribarre batez abiadura azkartu du berriro ere.

Zigarro bat eskaini dio, baina Joanak ezezkoa eman dio. Tabakoa gorrotu du eta ez du batere atsegin norbait bere alboan erretzen egotea, baina ez dio ezer esan nahi badaezpada ere.

Kalean zehar doaz, elkarrengandik gertu eta aldi berean oso urrun. Mutila motor baten aurrean gelditu eta nes-kari begiratu dio kontzertuan bezala.

– Nonbaitera eramaterik nahi?

– Motorrean?

– Nahi ez baduzu ez etorri, baina zu zara etxera bakarrik itzuli behar duena.

Azkenean baiezkkoa eman dio, ez oso ziur, eta mutilaren atzean eseri da. Beldur da, beti eman izan diote beldur motorrek eta inoiz ez zela horrelako batean ibiliko hitz eman zion bere buruari, txikia zenean batek ia harrapatu zuenean. Gainera, ez daramate kaskorik.

– Hau izugarria da!

Mikel eta Maitena amildegi baten ertzean daude, bata bestearen alboan, errepide ondoan.

– Lehen ia harrapatu gaituzue, badakizu?

– Zuek zineten? Tira, sentitzen dut.

– Azkarregi gidatzen duzu eta egunen batean norbait harrapatuko duzulakoan nago.

– Badakit, baina gustura sentiarazten nauen gauza bakarra da. Hemen egoteak ere asko laguntzen dit.

– Askotan etortzen zara hona?

«Amak alde egin eta aitak hamabost urte nituela etxetik bota ninduenetik.» Buruarekin baiezkoa eman dio eta irribarre triste batez zerura begiratu du.

Iban gero eta urduriago dago, azkarregi doa, baina horretaz ez dela ohartu dirudi. Joanak besoekin inguratzen du, bere esku argalekin heltzen du mutilaren jaka. Anaiak egiten zuen bezala. Askok gustatzen zitzaion anaia atzean hartu eta ibilaldiak egitea, baina hori guztia jada amaitu da eta orain dena burura dator kio. Mailukada bat beste baten ondoren.

Aita lanean, ama bazkaria prestatzen eta bera kanpora irten zen momentu batez zaborra ateratzera. Baina etxean sartu zenean izua zen nagusi. Sua, sua eta sua. Ama ateratzea asko kostatu zitzaien suhiltzailei, bizirik irten zen, ordea. Baina bere anaia ezin izan zuten atera eta bertan hil zen, bakarrik eta guztiz izututa.

Errepide ertzean norbait dagoela dirudi eta zuzenezuzenean honenganantz doa. Frenatzen saiatu da, neskak estuago besarkatu du, baina ezin du, azkarregi doa eta ez da geldituko. Norabidea aldatzen saiatu da, baita lortu ere. Orain ordea, amildegira doa.

Ezin dira dauden lekutik mugitu, beldur dira. Norabidea aldatzea lortu du, azkenean, baina orain amildegi ertzera

doaz, gainera ez daramate kaskorik. Neskak beldurtuta dirudi, Maitenari ezaguna egiten zaio aurpegi izutu hori.

«Azkarregi doa, ezingo da gelditu.» Baina Mikel bera ere ezin da dagoen lekutik mugitu. Hain ezaguna egiten zaio motorra eta bere gidaria.

Neskak begiratu egin die, bere azken begirada izutua, azken oihua.

Ibanek lagunari begiratu dio, neska horrengatik jada ezin du ezer egin eta pena ematen dio. Hala eta guztiz ere irribarre egin du. Jada amaitu da, dena amaitu da.

Kolpea ikaragarria izan da, baina bere azken indarrez Joanarengana hurbildu eta eskutik heldu dio. Begietara begiratu eta barkatzeko erregutu dio.

Irribarre bat.

Hemen nago

Elena Bermudez Yarza
Arratia institutua
Igorre

Hemen nago, egunero bezala, erakusleihotik begira, nork erosiko zain. Dagoeneko bi hilabete daramatzat toki beretik mugitu gabe eta asper-asper eginda nago. Hara! bi gaztetxo hona begira daude, dotore jarriko naiz, zerbait erosiko dutela dirudi eta.

– Egunon!

– Erakusleihoko Pilot boligrafo ezabagarria mesedez.

– Eta niri eman lau koloreko bolaluma hori, horrela ez ditut idazteko hamar tresna ezberdin eduki beharko.

Kaka zaharra, ez dut zer eginik nire lankide modernoen aurka: Pilot tinta fin gizona, Maped anderea, Kukuxumuxu boligrafo barregarri neskatoa, Pilot ezabagarri mutikoa... Zer naiz ni ba? Agure zaharkitu aspergarria baino ez!

Demontre! Badator beste norbait.

– Kaixo zenbat balio du Maped boligrafo honek?

– 2,40€.

– Bai garestia! emadazu merkeena. Txuletak egiteko besterik ez da eta...(ahopean)

– Merkeena, erakusleihoko bolaluma hori da, ez du ezer berezirik, betiko Bic klasikoa da. Tori, 50 zentimo.

– Eskerrik asko, agur.

PRAST!!

Ai! A ze kolpea hartu dudan mugikorraren kontra. Zenbat traste dituen neskato honek poltsan. Baina, dena-den, hobeto nago hemen, erakusleiho aspergarri horretan hautsa hartzen baino.

Txirrrriiiiiiiiiinnnn!

– Milan, B.H, Maped, Tip-ex, erregela jauna! Esnatu! –dio nirekin batera kutxatilan dagoen arkatz zahar batek.

– Kontxo! Begira nor dagoen hemen, Bic jauna! Egia da existitzen dela! Dagoeneko mito bat zela uste nuen!

Nik uste baino hobeto hartu naute euren artean. Antza denez, boligrafoen artean onena naiz, betiko bolaluma, bolaluma mitikoa, gehien dakiena, iraunkorrena, ondoen idazten duena. A ze poza hartu dudan hori jakitean!

Uaaaauu! Estutxetik kanpo atera naute.

Eider Jua...

PUM, PUM, PUM!!!!

– Boligrafo berri hau ez dabil ondo!

PUM!

– Ea orain!

GGGGIUUGGI!

– Orain bai, beti bezala zirriborroa egiten bukatu dut, azkenean, koaderno guztia marrazkitxo beteko dut.

...*risti*. (Eider Juaristi)

Dirudienez, hau da nire jabea: Eider Juaristi. Zer egiten ari da orri txiki honetan idazten?

Europako biztanleria zahartze prozesuan dago ...

Ene! Txuleta bat idatzi dut!

Hemen dator maistra, azterketak banatzen hasi da.

– Eider erakutsi estutxea, zuk beti txuletaz beterik izan ohi duzu eta!

– Baina ni...

– Hara! Oraingoan ere papertxo betirik duzu bata! Azkenekoan esan nizun bezala, gaurkoan ez dizut barkatuko, estutxea kendu egingo dizut.

Badirudi jabe aldaketa daukadala.

– Gaurkoan ere ahaztu zait boligrafoa. Beno, Eiderren estutxea hemen dudanez, berari hartuko diot bat, ez dut uste axolako zaionik.

Norenak dira atzamar handi hauek? Kontxi irakaslearenak dira! eta azterketak zuzentzen dabil! Ea zer dioen:

– Maitane Urresti: neska jatorra da, bederatzi bat jarriko diot, gainera asko idatzi du.

Eider Juaristi: bufff!!! Gaur ere txuletarekin, zero bat jarri beharko diot.

Mikel Solozabal: beno... bost bat jarriko diot, ez du asko idatzi eta.

Irakasle hau... azterketak irakurri ere ez ditu egiten eta! Gainera, nire lehengo jabeari zero bat jarri dio, txuletak prestatzen egin dudan lan guztiarekin! Hori dela eta, orain ez dut tinta gehiagorik botako. Izorratuta nagoenaren plantak egingo ditut.

PUM PUM PUM!

Berriz ere kolpetxoak.

– Boligrafo hau ez dabil. Ba! hemen utziko dut.

Berriro bakarrik utzi naute. Ez ahal da inor konturatu, oraindik martxan nabilela?

Hara! mutil gazte eta eder bat dator, alboetara begiratu eta bere patrikan sartu nau.

Neska guztiak, berari kasu egiten dabilta. Eskolako neskazalea izango da: mutil ederra, kirolaria, ile horia, begi urdinak... neska guztiak txoratuta dauzkala dirudi.

Ederra egongo da baina, letra behintzat eskasa dauka ba!

Iker maitea: zaila egiten zait hau esatea, badakizu nolakoa naizen baina ezin dut gehiago, eta sentimendu hau

kanporatu behar dizut. Ez dut uste espero duzunik horrelakorik jasotzea, eskolako neskazale fama daukadalako, baina zurekin maiteminduta nago. Ez dakit nola hartuko duzun, baina esan beharra nuen. Onartzen ez baduzu ulertuko nuke, badakit ez dela erraza. Mesedez, inori ez esateko eskatzen dizut.

A ze sorpresa! Hamaika kontuz enteratzen naiz ni, nire etxetxo garden honetatik. Badago bai ezberdintasuna erakusleihoko bizitza aspergarriarekin alderatuta! Mundu guztiaren ustez mutiko neskazalea dena, homosexuala da! Nork esperoko ote zuen?

AI!

Zertan dabil Endika? Maitasunezko karta nire barruan sartu du. Baina zertarako

AAAAAAAAA!

Gela guztitik zehar hegan egin ondoren, Ikerren mahian erori naiz mezua nire barruan dagoela. A ze aurpegia jarri duen Ikerrek mezua irakurtzean; ez zuen horrelako sorpresarik espero! Berehala mezua gorde egin du nirekin batera, eta berriz ere kutxatilara.

TXIRRIN!

Jolastordua dirudi, Iker eta ni bakarrik gelditu gara gela eta! Berriz ere lanera.

Sentitzen dut Endika baina niri ez zaizkit mutilak gustatzen eta ez dut ezer nahi zurekin. Baina badakit zuretzat ez dela erreza izango eta niri ez zait gustatzen gauzak

papertxoen bidez esatea, beraz, nahi baduzu, lasaiago hitz egiteko etorri nire etxera bostetan.

Ikerrek berriz ere ilunetan utzi nau, Endikaren motxila barruan, daukadan papertxoa irakur dezan.

Non nago? Ikerren etxea dirudi eta Endika eta biak elkarrekin hizketan daude.

– Endika, ez mesedez, nik ez dut hau egin nahi –dio Ikerrek.

Soinu arraroak entzuten dira. Baina zer... Bi mutilak musukatzen dabilta!

– Ez, Endika, ez jarraitu, mesedez!

– Lasai, jolas dibertigarri bat egingo dugu. Hartu boli-grafoa motxilatik eta idatzi nahi duzuna zure gorputzeko atalean nik zer egitea nahi duzun. Jolasa uler dezazun ni hasiko naiz nahiago baduzu –dio Endikak.

Zerbait bigunaren gainean idazten ari naiz! Ene! Endikaren besoan idazten ari naiz!

Laztandu nazazu hemen.

Iker urduri, idatzitako lekuan laztantzen hasi da eta izerdiarekin nik idatzitakoa zabaldu eta ezabatu egin da. Azalean idaztea kostatzen zaidanarekin!

Orain Ikerren txanda da eta dirudienez, berak ere jolasean hasteko gogoak ditu. Bere bular aldean idazten ari da orain, «*muxuka nazazu hemen*» eta halaxe bete du En-

dikak! Nire tinta txokolatea izango balitz bezala miazkatu du!!! BUAJ!!!

– Ei! Atera nazazu hemendik, mesedez, ikusi egin nahi dudala! Kaka! Ezin didate entzun, orain aspertu egingo naiz, ez daukat ezer egitekorik poltsiko honetan!

Eta ostera hegaz! Ikerrek galtzak kendu eta airera jaurti dituela dirudi, a ze lurreratze bortitza izan dudan, nire kasko urdina ere galdu egin dut! Hortik aurrera soinu arraroak besterik ez ditut entzun. Arratsalde beroa izan dutela dirudi.

Loaldi ederra egin ostean, andrazko baten garrasi gogorrek esnatu naute:

– Iker! Orain ere galtzak lurrean botata utzi dituzu! Beti berdin!

– Beno ama, ez haserretu! Ez da horrenbesterako, bota garbitzera!

Ez, ez! garbitzera ez mesedez! Bolaluma guztien ametsik gaiztoena da!

GLU GLU GLU!

Ito egingo naiz! Gelditu traste hau! Zorabiatuko naiz! Xaboia irentsi dut! Lagundu!

Azkenean! Eskerrak traste hau gelditu dela, ez nuen askoz gehiago iraungo!

– Hara! oraingoan ere azaldu da trasteren bat garbigailuan! kontxo, boligrafoa da. Ziur nire semeak utzi duela poltsikoan ahaztuta, eta beti bezala garbigailuan bukatu du! Ba orain niretzat. Ba ote dabil?.

Uf! ez daukat indarrik, ez iezadazu orain lanean jarri, arren!

Asteko erosketak:

– *Tomatea, esnea, gatza...*

PUM PUM PUM!

Berriz ere kolpetxoak. Badakit ez dudala ondo idazten baina orain ez daukat indarrik. Beno, ahalegin txiki bat egin beharko dut...

... gailetak, mandarinak, amoniakoa, lixiba...

– Jesus! Bolaluma Bic hau bai ona! garbigailutik igaro eta oraindik ere badabil! nire garaikoa da eta! Esaten diot nik ba Ikerri... zaharrena, beti onena!

– Tori Iker hau zurea izango da, garbigailuan agertu da.

– Ah bai! eskerrik asko.

Ikerrek oroitzapen gisa gorde nahi nauela ematen du, gogor estutu eskuan eta hasperen egin baitu. Bihotzaren parera hurbildu ondoren, estutzeari utzi dio astiro-astiro.

TXIRRIN!

Historiako saio hau oso astuna da, ez da arraroa ikasleak horren asperturik egotea.

– Iker, utzi boligrafo bat, nirea ez dabil eta.

– Bai, tori Eider.

Nire hasierako jabearengana itzuli naiz berriz eta berriro papertxo batean nabil idazten, baina oraingoan ez du txuleta ematen, irakaslea ohartu gabe, ikasleek, txutxumutxuak elkarri kontatzeko direla dirudi:

Mikel! Begira Endikaren kokotea, txupoia dauka! Beti berdin dabil, oraingoan ere ibili da neskaren batekin.

UAA! Berriz horren gogoko ditudan hegaldi horietariko bat. Oraingoan Mikelen mahian erori naiz. Eta Mikelek Eiderri erantzun dio:

Ba Mikel ez da ligatu duen bakarra, Ikerrek ere txupoia duela dirudi! Baina ezinezkoa da, seguru kolperen bat dela! horrek ez du inoiz neskarik aurkituko, oso itsusia da.

– Ea papertxo horiek! Isildu eta adi mesedez !

Hara! Mikelek bere kutxatilan sartu nau.

Bi egun ilunetan igaro ostean, Mikelek berriz ere mar-txan jarriko nauela dirudi, baina oraingoan ez dakit eutsiko diodan. Bizitza gogorra izan dut eta tinta agortzen ari zait. Ea oraingoan zerbait polita idazteko erabiltzen nauten, nazkatuta bainago txutxu-mutxu, maitasun mezu eta gainerako txorakeriekin:

URRUZUNO LEHIAKETARAKO PROSA. (BIC)

Hemen nago, egunero bezala, erakusleihotik begira, nork erosiko zain. Dagoeneko bi hilabete daramatzat toki berean eta asper-asper eginda nago. Hara! bi gaztetxo guri begira daude, dotore jarriko naiz, zerbait erosiko dutela dirudi eta...

POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

Borobilean amaitzen diren istorioak:
Narziso

Leire Arenas Belamendia
Azpeitiko ikastola-Ikasberri kooperatiba
Azpeitia

Narzisok ez zuen inoiz bere amaiera aurreikusi.

Eta aurreikusi bazuen ere, izar uxoa bat litzateke izara artean
[biraka.

Narzisok ez zekien ezer, ezer, ezer.

Gogoan dut behin zelan agurtu ninduen,
euri-tantazko eskutxo bat astinduz,
haize-bustizko irrifarre bat luzatuz.
Eta momentu hartan erabaki nuen hainbat auziren
[inguruan,
hala nola:

Harkaitz Canoren musuzapi odolduez

Zenbat negu igaro ote zituen
frantziar artista hark Paris guztia
odoleztatzen, artearen izenean, edertasunaren
izenean. Vanguardiak eta lore faltsuak,
odol-baldeak eta tomate entsaladak.
Tripako-miñak eta pintzel urtuak,
begi-nini bortxatua, kolore estaliak
denetik zen garai hartan.

Denetik salgai,

Pasabideetako azoketan.

Denetik salgai,

hiriburu hartan,

Frantzietaiko Parisetan.

Oheburuen existentzialitateaz

(Zer lirateke oheburuak
euren ohea galtzerdi izerdituetan itoko balitz,
egunen batean, ilargiak zelatatzen ez duela?)

Zer zentzu lukete oheburuek
ez balituzte izango zure eta nire buruak diren bi jostailutxo
gauetan parean,
arnas beroz ukituz eta laztanduz bera,
ia pertzibiezinezko sexu jardunetan?)

Ezer ez.

Dut esaten.

Ia, oheburuen existentzialitateaz.

Sentitzen dut. Ez zen nire asmoa.

Kale kantoiko musikariez

Zinez ditut atsegin
gau luze musikatuak,
euren eskutik
airerantz
salto.

Zinez ditut atsegin
ezordutako emisioak,
nota klandestinoak,
esperantza
diren
kaleetan
arrastaka.

Maitatzen ditut zinez
irrika sonoroak.
Pentagrametatik
ihes eginiko
doinu errebeldeak.

Gauaren oihala
josten
dirauten
abesti
amaigabeak.

Borobilean amaitzen diren istorioez

Istorio kurbatu ziklikoak
eta poesia modu-asmatu-asimetrikoak.

Dantza biluziez,
prosak poemei emaniko
musu lizunez,
ta euren bateratze xumeaz,
mintzo naiz gaur,
ametsetan.

Drogak utzi behar ditut

Eta merezitako deskantsua eman,
ene zain-sudurrei.

Erabaki haiek hartzean neuk ere ez nekien zerk espero
[zion
Narzisori.

Egia da ezin nezakeela pentsa berataz betirako bezala,
[baina, ...

Nork esan behar zidan bada putzu batek irentsiko zidala?
(nire seme gaixoa).

Printze mozorrotuen pausaleku soilik izango zela
[aurrerantzean?

Uraren azal leunean etzanik pasako zituela egunak, gauak
[eta hasperen kromatikoak?
(haserre kolorez bilduak)

Urte batzuk pasa eta,
esan nezake, nigan diharduela orain bere elurrezko bihotz
[isilak.

Malkoen kaligrafia

Iosune de Goñi Garcia
Askatasuna institutua
Burlata

Gomuten sinopsiari oda,
hitzen goraintziei koplá.

Hodeiertzak hiatuak itsasoan ito
eta isiluneak intziriz tindatzen ditu
otsailaren azken gau inprobisatuan.
Hitzak hitz, promesak promes;
denbora, haizearen txaratila herdoildua,
halabeharren azpikeria.

Ezintasunak ahapaldiak arean erauntsi
eta irribarreak imintzior josten ditu
otsailaren azken gau inprobisatuan.
Hitzak hitz, promesak promes;
arrazoia, bihotzaren beltzuri izurtua,
ahoskatu gabeko gezur indukzioa.

Itokarrean, etorkizunak
ez du lehenaldi inperfektua kausitzen,
murtxikatutako zorionek
ez dituzte bihotzondokoak konposatzen,
ezta goizeko aharrausiak ere
ez ditu gauak bertsoz ehuntzen.

Neguan, oroitzapenen oinaze-tokia
mihise gaineko olioeko tanta
besterik ez da,
semikortxea,
baztertutako panpina.

Neguan, desiren igarobidea
zirimiritan zizelatutako eskutitza
besterik ez da,
aldarria,
zergati guztien galdera ikurra.

Ahantzi itzazu ametsak,
hitzaurrerik gabeko kondaira guztiak.
Ahantzi itzazu hitz-emateak,
maitaleak, jomugak, ñikadak.
Ahantzi itzazu errepikarik gabeko abestiak,
amaierak, xortak, konpasak.
Ahantzi itzazu elurrak eta ortzadarrak.

Memoriaren ezkerreko bentrikuluan
erlojuaren pianistak izango denaren adagio urkagaia
malkoen kaligrafiaz zirriborratu zigun,
arnasestuka.
Arnasestuka eta ahapeka.

Ekaitzak kristalezko begiradak
goitikaturiko abangoardia amoranteetan
ezereztu zituen, dantzan,
boz goraz ahoskatu ez zenituen bertsoak
agur bakoitzaren kadentzian marrazturik.

Eta diastolerik gabeko sistolearen heiagorak
hutsuneen itsasorrazari soneto burutugabeak,
bokalik gabeko errimak promesten dizkio,
errealitatea ez baita poeta,
eszenatoki eri baten ikuslea baizik.

Atzo

metaforak utopia kutsatuetan sailkatu nituen,
gaur perpausaren azkeneko hitzetan asfixiatu
eta bihar, malkoen kaligrafiari buruzko hasperenean,
taupadek hatsa urratuko diete.

Kasualitatea izan nahiko nuke,
hirugarren betilean agur bakoitzeko
hamaika pasio baltseotan,
hamaika ezezagun jolasean.

Minutuak ezkortasun ilustratuan akatu
eta orduak logikaren nahikarian
idaztea debekatu ziguten,
baina guk ez genituen letrak zirindu
eta alegiazko harkaitzen ertzean
itxaropenen eskutik eskegi ditugu,
geroa ezabatua izan ez dadin,
iragan mugagabeen urtu ez gaitezen.

Idatzitako isiltasunaz haratago
aditzaren alkimiak euriak ugertzen ditu eta,
ele ezjakinen artean,
pozoï harengatik ito eginen da,
madarikatutako musuengatik.

Gomuten sinopsiari oda,
hitzen goraintziei koplá.

Hondarrezko gutunak

Ane Garcia Lopez
Talaia institutua
Hondarribia

Kafezkoak

Neguko hondartzetan,
urruneko ekaitza.

Jaberik gabeko
oinatzen norantzari
jarraiki
galdutako haizeetan
zintzilikatutako kometak,
patioetan
esku dardaratietatik amildutako
pintzek atxikita.

Hodeien
eldarnio hegalarietan
imajinatutako elur maluten
suizidioa,
eta hondartza
(sorpresaz)
hareazko erloju
(zuri)
bihurtzea.

Turistentzako
argazki soil.

PD: Goizetan
azukretzen
genituen
kafezko
(k)ikaretan
urtu zitzaigun
denbora.

Kanelazkoak

Basamortu beroekin
egin dut amets.

Bertako hurrek
ez omen dute
azukrezko
hodei potolorik
margotzen
ohialezko
eskolan.

*Kanelazko
azaletan
bizitzea
ez da
erraza.*

Harezko erloju
bat ekarri du gaur
irakasleak.
«Hau da denbora»
esan du.

Orduan,
kanela pauso
ttikiz atera dira
neska-mutilak
kanpora.

Hondarra eskutxoetan
hartu nahian,
ezin izan diote
segundorik lapurtu
Saharari.

Basamortuan
denbora
(esperantza bezala)
kiskali egiten baitzaie.

PD: Hareazko segundoetan,
denborazko basamortu txikietan
esnatu naiz.

Tintazkoak

Hitzez mortu
orriaren zuria.

Arkeologoaren pazientziaz
egin beharko diot
putz boligrafoari,
garen ala ez garen
argituko digun
Hamlet propioaren bila.

Arkeologoaren pazientziaz
arakatu beharko dut
gure hitzmortua,
hezurrezko letrak
aurkituta,
tintaz jantzi eta
zuri bidaltzeko.

PD: Nola esan
Ezagutzen ez dugun
Horrek
Nola
Non
Zergatik
Egin digun
Min.

Jainkoaren izenean

Leire Alonso Allue
Askatasuna institutua
Burlata

Palestina

Iritsi da negua. Hotz dago.
Zuhaitza dardarka hasi da
jadanik ez dituen
hostoen berokipean.

Gaur isiltasuna baino ez da loratzen
atzo eztrandak ereindako lurretan.
Gaur zimur ihartu dira
behinolako irribarre berdeak,
itzal orduan eguzki ziren arimak.

Eta zuhaitzak dena ikusi du.
Bergia norabait hurbildu nahi zuen bakoitzean
adarra hazten zitzaion.
Orain hamaika adar ditu
ikusteko ezer ez duen zuhaitzak.

Ni ere hostogabetu nau neguak.
Behin besarkatu ninduen
orbel mantu baino ez da egun .
Eta orbelak estalitako lurra
ez da hostoek ikusitako hura.
Jadanik ez. Jadani ez.

Zuhaitza. Olibondoa.
Bera ere aitona gabe geratu da.
Aitonarena zen olibondo soroa.
Olibondorik gabeko olibondo soro bilakatu du denborak.

Zuhaitzak oparitu zizkidan aitonak,
txabolaren inguruan daudenak.
Orain atea ere ez da gelditzen
giltza non sartu izateko.
Bihotzaren kutxatxoan dago
giltzak irekitzen duen bakarra.
Eta lur antzuan geratu dira
amaren laztana, aitaren begirada,
aitona-amona zaharrak.

Baina nik eraikiko dut,
nik eraikiko dut giltzak irekiko duen etorkizuna
lur lehorraren gainean.
Nik ureztatuko dut
itzala emateari sekula utzi ez dion zuhaitza.

Israel

Lur oparoa
agindu ziguten.
Sororik berdeenak
haziko ziren
Jaunaren altzoan.

Horrekin amets egin nuen
ama joan zitzaidanetik.

Nire semeak ez dezala
gerrikoen eztandarik jasan.
Nire semeak ez dezala
palestinarrik hegan ikusi.

Ama, ez duzu merezi.
Zure bizitzak
gehiago balio zuen.

Borrokan ari zinen.
Zeren alde?
Denen aurka.

Garai hartan
gurekin generaman Jauna.
Txoko bat baino ez genuen nahi
eta bizitzan bakea.

Krudelkeria gordinena
jasan genuen
elkarri eskua emanda.

Eta gaur,
gaur inork ez dit
eskua luzatzen.
Gaur krudelak
geu gara.

Ama, sentitzen dut.
Banoa.
Zugatik etorri nintzen,
zure indarrak bultzatuta.

Nik ez dut lapurtu nahi.
Lurra, etxea,
ez dira nireak.
Ezta babesten nauten
soldaduen ideiak ere.

Ama, banoa.
Semea nirekin eramango dut.
Duintasuna eta Jauna ondoan,
guztiak dira gure lurraldeak.

Ez du gorroto-gerrikorik lehertzen ikusiko,
eskola atarian ez da soldadurik egongo.
Ez, nik ez diot inori etxerik ostuko
Jainko berari beste izen bat eman diolako.

Hiria antzoki

Irati Majuelo Itoiz
Eunate institutua
Iruña

I

Hiria:

farola argiz apainduriko gau-antzerkia.

Errezelak zabaldu eta
eraikinen dekoratuak
bere horretan,
gris, hotz, heze,
dirau
neguko funtzioan.

Hiria lainoak hartu du
harresien ingurutik
eta aktoreak
dantzan dabilta
esperantzaren zain,
lainoaren loturez
ahantzirik.

Gruak, gizakien nahietara
etxekoturiko dinosauro herdoilduak,
desafioka ari dira iluntzean
ostertza ebakitzen.

Kaleak labirinto amaigabeak dira
ohituriko oin-zoletan
arrotzegi bihurtu baitira
pau suak,
baita antzezleentzat ere.

Hutsak hartu ditu bazterrak;
ezereza.
Hiria putzuz itotako amildegia da jadanik.

Ez dago airerik hemen,
ez da arnas hartzerik.
Hatsa izoztu egin da
amildegiaren hegian
desorekan
eta ito egin ditu
banan banan
ametsak.

II

Hau ez dihoa inora,
esan didazu,
norabait jo beharko balu antzera.
Bideak gurutzatu dira
kalekantoian,

muxuek bidezidorrak hartzen baitituzte,
betiere.

Aktoreek,
bebingoagatik,
beren papelaz ahantzi
eta inprobisatu dituzte
hitzak,
pausuak,
keinuak.

Irri suizida batek hautsi du
isiltasuna.
Hegan joan dira papelak.

Eta esan dizut,

ihes egin, ostendu,
haizeak eraman ditzan
egunak, orduak, minutuak
erlojuak ito ditzagun eta
haizeak eraman gaitzan.
Ostendu, ihes egin,

ez bada itzultzeko besterik.

Eta hiria ilun da
hertsirik
farolen argipean.
eta zure begiek
isiltasunaz
hitz egin didate atzera.

Itzultzeko ez bada besterik,
etor zaitez ihes egin eta
ostentzera,
haizeak eraman gaitzan.
Ahantzi hitzak eta etor zaitez.

Euri hotsaren oihartzun
isila,
gauaren arkupeetan,
galduriko pasabidetan.

Euri hotsa,
zure ezpainetan.

Etor zaitez.

Itxi dira errezelak.

POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

Kanposantu urdinean ihesi

Itziar Ugarte Irizar
Txantxiku ikastola
Oñati

Kanposantu urdinean ihesi

*Giza eskubide gisa bataiatutakoak
zeuenganatzen saiatu zineten guztiak
haize diplomatikoak etzan zintuzten kanposantu urdinean.
In saecula saeculorum.*

Patua zauritzen duten eguzki errainuak
aholkatutako mendekua bete da:
kanposantu urdineko hodeiak lehertu dira
euri horrekin hiltzaileen aginduak urtzeko.

Hostoak orbeletik ihesi.
Gurtzeak ez dira beraien baitan sartzeko gai,
otoitz ahaltsuak puztu zituztenetik.
Belauniko, eskuak elkartuta eta begiak itxita,
intuizioari gezurretan.

Hil kanpaiak zenduen belarriak zirikatzen,
irristatutako begiradek iluntasun urdina biluzten duten
[heinean.

Lore sorten agoniaz kutsatu dira gainontzekoak;
hilobi tartetan aurpegiak eskuekin estaltzen dituztenak,
ametsetan zuen algarekin dantza egiten dutenak,
malkoekin mozkortzen direnak,
iraultzaile bilakatu zenituzten katuak,
garrasi gauetan itotako utopiak.

Bala biluziak hazi bilakatu dira,
hauetatik zer sortuko ote den beldur,
udaberriak kontsolatu ditu
labaintzen hasitako arnas doinuak.

Ura errekatik ihesi.

Zergatiak batek dakizki.

Batzuek, inposaketen igerian gehiegi sakondu zinetela,
isiltzea komeni zenean oihu egin zenutela,
gezurren itzalei su eman zenietela,
periferian bultza egin zenutela,
askoren ustez diru hotsa tintaz birrintzen saiatu zinetela.
Hala ere, batek daki,
kontu ugari ez ulertzeko eginak daudela sinestarazi baitidate.

Arimak zenbatzen dabilta bele beltzak,
hegazkada urduri bakoitzeko hamar badituztela abisatuz.

Inguruko harea eta harriak nahastuko ditut
bizitzaren telefonoaren bila;
berarekin zita garratz bezain leunean
elkarri nostalgia erantzeko,
elkarri ikaran muxu umelak emateko,
elkarren dardaran jolasteko.

Garrak sutatik ihesi.

Hilobiko oihartzun herdoilduak
isilarazitakoak gogorarazten dabilta,
eskutik helduta mantentzen diren gorputz geldien hutsune
[estuetan.

Xomorroak miazkatzen zaituzte,
ubelduen gainean izkiribatuz behin leitutakoa;
mutu oro isilik badago ere,
isilik dagoen oro ez dela mutu.

Ortzadarretik zintzilikatzeko eskularruak utzi dizkizuet
ermitatxoaren atzealdean,
eskumutur bueltan lotu eta kolore berdetik zintzilikatu
[zaitetzen,
esperantzaren baitan balantza egin dezazuen luzaroan,
besterik ez bada.

Eta bertako itzal bakartien erreferendumean da deliberatu
aurrerantzean mundua argitasunak duela orraztuko.

Urtutako aginduekin itsasoa zikindu da,
eta nik zuetaz idatziko diet atea itxi ostean,
taupadak ez baitoaz bihotzetik ihesi.

Ipuin batean bezala

Maialen Akizu Bidegain
J. M. Iparragirre institutua
Urretxu

Beti gustatu izan zait Pinotxoren ipuina.
Amatxok irakurtzen zidan ohera sartzerako garaian.
Nik beldurrez, baina pozik entzuten nion.
Beldurrez,
ordutik gezurren bat esaterako garaian
sudurrera eramaten nuen eskua zuzenean,
nire sudur txatoa beti bezain txiki eta polit zegoela
[baieztatzeko.
Maitagarriak gezur hura barkatzen zidala ohartzean,
zin egiten nuen ez nuela berriz halakorik esango.

Ipuinetatik irtenda ere,
gezurra da ihes egiteko irtenbiderik errazena,
eta bizitza, gorputza, kontzientzia, iruzurretara ohitzen
[diren bezala,
maitagarria eta sudurra ere gezurretara ohitu dira.
Amatxok «eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan»
[esatearekin batera
irri bat ateratzen zitzaidan,
hurrengo egunean ipuin bera berriz kontatzeko eskatuz.
Atsegin nituen ipuinak.
